



2011-11-14
ASTELEHENA
000. ZENBAKIA
8. URTEA
1,10 EURO
GOIENA.NET
TOKIKOM

Behobia beroan, 515 ibarreko

Lasterketa gogorra izan zen atzokoa | 22



Helmuga. | JOSETXO ARANTZABAL

Bergarako pilotalekua bete egin zen udazkena ikusi eta entzuteko | 29



Arkujen pozik ibili ziren 'Kantari'-ko azken parte-hartzaileak | 32



San Milixango sagardoa, martxoan gertu

Gatzagako ekoizleek herriko 300 kilo sagar erabili zuten ardoa egiteko | 12



San Milixan egunean, domekan, herriko sagardogileak lanean.

OIHANA ELORTZA

Aramaioko memoria bizia diren nagusiak omendu dituzte

Antzinako kontuak batzen lagundu dute hainbat edadetuk | 13



Omendu bat. | JOSETXO ARANTZABAL

Bergarako artxibotik lapurtutako dokumentuak topatu ditu Ertzaintzak

| 4

goienakluba[™]
Abantailaz betetako kluba!

DENA IRABAZIA DA

MULTIOPTICAS
Lehen zerbiztu optikoetan

GAES
Centros Auditivos
Entzumen zentruak

REGIENDO

Txartela, beti aldean

► Zoaz 27. orrialdera

Biribilguneak: XXI. mendeko aire zabaleko museoak

- ▶ Ez dago lege edo dekreturik biribilguneak nola apaindu behar diren esateko; joerak jarraitzen dira
- ▶ Herri edo leku jakinetako historia presente edukitzeko balio dutela diote udal batzuek

ASIER ALKORTA | ARRASATE

Ez dira museoak, baina monumentuak dituzte. Ez dira arte galeriak, baina artisten lanak erakusteko espazio bilakatu dira. Ez dira Guggenheim bezain handiak, baina egunero jende asko pasatzen da haien aurretik; bisita asko izaten dituzte. Ez dira kultura ondasun moduan izendatzen, baina herritarrentzat erreferentzia puntuak dira herri guztietan. Biribilguneak dira. Azken urteetako joerak aldatzen doazen heinean, errepideetako biribilguneak gero eta originalagoak ari dira izaten. Landare eta lore dotorez apaintzeaz gain, orain, gero eta gehiago, eskulturen eta monumentuen espazio leku bilakatzen ari dira.

Frantziatik ei dator errepideak biribilgunez josteko joera. Urte gutxian, inguruko errepide guztietan biribilgune berriak agertu dira, zirkulazioa errazte aldera. Baina hasiera baten borobil formako

hutsuneak zirenak orain gero eta beteago agertzen dira. Hasiera baten, lorez eta zuhaitz txiki eta ez hain txikiz apaintzen hasi ziren lur zatiak orain bestelako elementuz ere apaintzen dira.

Gero eta gehiago dira bertoko biribilguneak apaintzeko erabakia hartzen duten udalak. Arrasaten, esaterako, anbulatorio parean dagoenak serrailla-lantokiko makina bat dauka erdian. "Monumentu moduan geratzen dira, baina inguruarekin zerikusia dute eta, ondorioz, momentu oro gogora ekartzen dute garai baten inguru horretan zer egon zen", diote Arrasateko Udaletik. Berdina gertatzen da Bergarako fundizio pareko biribilguneko eskulturarekin ere: "Azken finean, zirkulazioa gidatzeko borobil hutsak izan ordez, zerbait berezia adierazteko tokiak ere badira. Eta joera guztiak noranzko horretan datoz".

Eskoriatza eta Oñati ere ez dira atzean geratzen biribilguneak

monumentuz edo esanahiz betetako elementuz apaintzean. Horren adibide dira txantxikuekin apaindutako biribilgunea (Oñati) eta koloreztatutako zuhaitz baten enborra duena (Eskoriatza).

Ez dago arau zehatzik

Biribilguneak apaintzeko bertoko udaletan ordenantzarik edo irizpiderik dagoen galdetuta, ordezkariak argi diote ezetz. "Ez dago arau edo dekreturik irizpide horiek jarraitu behar direla esaten duenik. Beste barik, joerak jarraitzen dira".

Arkaitz Tolosa Bergarako lorezainen buruak dioenez, "biribilguneei nortasuna emateko egiten da, besteak beste". Ondartzako biribilgunea horren adibide dela dio: "Hor lehen harrobia zegoen, eta, horregatik, biribilguneak gaur egun modu estetikoan kokatuta ditu harriak. Lehengo gogora ekarri eta presente edukitzeko. Gauza bera gertatzen da



Zer ziren eta gaur egun zer diren. Argazki txikian, Oñatiko txantxikuen biribilgunea hasier



Txantxikuak oñatiarrak irudikatzen asmoz jarri ziren. | A. ALKORTA

Labe Garaian parean dagoen biribilgunearekin".

Dena dela, monumentuek mantentze-lan aldetik lan gutxiago eskatzen dutela eta horregatik jartzen direla esaten dutenak ere

badira. "Guztiz kontrakoa. Monumentuak badaude, belarrak eta landareek orduan eta zaintza handiagoa eskatzen dute eta biribilguneak arriskutsuago bilakatu ziren dira. Beraz, ez dira jartzen



LIBE GOITIA
ARRASATE

"Ados nago biribilguneak monumentuekin apaintzeko ideiarekin. Hori bai, espero dut diru askorik ez gastatzea horretan; dirua beste gauza batzuetarako behar da. Baina, hasiera baten, horren alde nago".



PEDRO OTADUI
ARRASATE

"Biribilguneak politikak daude horrela apainduta. Eta zenbat eta gehiago egin, ni neu orduan eta pozago. Lore eta guzti badaude, gainera, askoz hobeto. Baina hemen ikasi behar duguna da gauza horiek errespetatzen".



JABIER AGIRREBEÑA
ELGOIBAR

"Askotan, monumentuak garaiegiak izaten dira eta gidariak ezin izaten dute ondo ikusi. Gauza bera gertatzen da landareekin ere. Arazo hori zaindu egin behar da. Estetikoki, aldiz, ideia ona dela iruditzen zait".



ESPE UGARTE
ARRASATE

"Nire ustez, ondo daude horrela apainduta. Hala ere, monumentu hutsak egon ordez, loreekin hobeto geratzen direla uste dut. Bi elementuak batuta, biribilguneak asko ere biziago eta politago geratzen dira".



ANA KORTABARRÍA
ARRASATE

"Ondo apainduta daude biribilguneak. Gainera, orain gero eta gehiago ikusten ditut monumentuekin. Baina jartzen diren monumentuek herriarekin edo lekuarekin zerikusia eduki behar dutela uste dut".



an zen bezala ikusten da. Handian, ostera, azken joerei jarraituz biribilguneak zer bilakatu diren ikusten da. | ASIER ALKORTA



Arrasateko anbulatorio pareko biribilguneak sarraila-lantokia dakar gogora. | A. ALKORTA



Labegarietako biribilguneak tokiaren historia azpimarratzea du helburu. | A.A.

lan karga gutxitzeko", argitu du Tolosak.

Biribilguneen abantailak

Tolosaren esanetan, biribilguneek abantaila batzuk dituzte. "Biribilguneetik jende asko pasatzen da, eta, nire ustez, horregatik hartu dute hartu duten garran-

tzia. Gainera, gehienetan herri sarreretan egoten dira eta herriaren nortasuna islatzeko balio dute. Bestetik, biribilguneetan ez da jenderik ezta txakurrik ere ibiltzen, eta, ondorioz, gauzak hobeto mantentzen dira".

Gizartea bera ere geroz eta zorrotzago doala dio. "Geroz eta

gauza originalagoak eta politagoak nahi ditugu eta horrek ere biribilguneen garapena bultzatu du. Lehen belardi soilak zirenak orain landutako lorategi bilakatu dira".

Azken finean, monumentuek herriko historia azpimarratzeko balio dutela dio. "Bai herritarrei

begira eta baita kanpotik datozenek ezagutzeko ere". Nolabait definitzekotan, "txoko berezi" moduan deskribatzen ditu Tolosak biribilguneak.

Hala, bada, joerei jarraituz, borobil hutsak izatetik XXI. mendeko aire zabaleko museoak izatera pasa dira biribilguneak.



GOIENA

IÑIGO ARREGI
ARTE EGILEA

"Artearen beste interbentzio bat da eta guztiz ados nago horrekin"

Artearen mundua du ogibide Iñigo Arregik (Arrasate, 1954). Bere ikuspegitik, biribilguneen apainketa asko garatu da eta hark asko eskertzen du hori. Lanak erakusteko beste plaza bat dira, haren ustez.

Denborarekin, biribilguneak monumentuak kokatzeko leku bilakatu dira. Zer deritzozu?

Guztiz ados nago joera horrekin. Modu horretan, artea bera popular bilakatzen da; arteak gizartean egiten duen beste interbentzio bat da. Arteak ikusteko aukera zabaltzen du eta jendeak eskuragarriago dauka. Oso leku aproposak ikusten ditut biribilguneak.

Gurako zenuke zure herriko biribilgune baten zure lan bat jartzea?

Niretzako hori ohorea litzateke. Jendeak errazago ikusiko luke eta ez lukete zertan leku jakin batera joan (museo, galeria...).

Eskultura bera egiterakoan ere kontuan hartu beharko litzateke biribilgune baten kokatuko dela?

Bai, noski. Biribilgune baten kokatuko den eskultura bat egiterakoan, material batzuk baztertu egin behar izaten dira. Mantentze-lanik behar ez duen material bat aukeratu behar da. Nik altzairua edo harria erabiliko nuke.

"Niretzako ohorea litzateke nire lan bat kalean jartzea"

**ARRASATEKO BASERRIKO
PRODUKTUEN AZOKA**

09:00-14:00 Seber Altube Plaza

HILEKO 3. ZAPATUAN

2011
azaroak 19

Antolatzailea:



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGON
■ Enplegu eta Garapen
Ekonomikoaren Saila

Laguntzailea:



Arrasateko baserriek eta
merkatariek konfiantza,
herbitasuna eta kalitatea
eskaintzen dizkizute.





Ekitaldi nagusi jendetsuak egin ditu Amaiur koalizioak aste bukaeran

Aretxabaletan, Bergaran, Antzuolan eta Oñatin egin dituzte ekitaldiak, "Madrilen Euskal Herriaren eskubideak defendatzeko" botoa eskatzeko

USOA AGIRRE | ARRASATE

Amaiur koalizioak hainbat agerraldi egin ditu aste bukaeran hauteskunde kanpainaren barruan.

Aretxabaletan jende asko bildu zen plazan egubakoitz iluntzean: Aretxabaletako ezker abertzaleko, Aralarreko eta EAko kideak izan ziren, besteak beste. Trikitilariak, musikariak eta dultzainak lagunduta egin zuten ekitaldia. Amaiurren konpromisoak azaldu zituzten eta botoa eskatu zuten "Madrilerako herri gisa dagozkigun eskubideak existitzera joateko". Lore Martinez Bilduko zinegotziak egin zuen berba eta Amaiuren lau konpromezuak zeintzuk diren azaldu zuten plazan bildutakoak: Amaiur "Euskal Herriaren bozgorailua izango da Madrilen"; "gatazka politikoa modu demokratikoan gaunditzea lan egingo du"; "Euskal Herriaren eskubide nazionalen alde egingo du"; eta, azkenik, "gizarte eredu berri bat sortzea" aldarrikatu zuen. Bukatzeko, ordezkari politikoei eta herritarrek zubia irudikatu zuten. Gero, gaztaina erre jana egin zuten.

Dantza eta kantua, Bergaran

Bergaran ere herritarrek parte hartu zuten egubakoitz iluntzeko ekitaldian. *Kalera, kalera* abestu zuten bildutako herritarrek "pre-soak etxera ekartzeko" aldarri-



Aretxabaletako ordezkari politiko eta herritarrek, zubia irudikatuz plazan. | J.A.



Salda-jana Antzuolan. | U.A.

katzeko. Lau herritarrek Amaiurren lau konpromezuak irakurri zituzten. Gero, Euskal Herriko ikurrak aldarrikatu zituzten ikurrin dantza eginaz. Rafa Sanchezek (Aralar), Lauri Askargortak (EA) eta Amagoia Aristegik (ezker abertzalea) Amaiurren Madrilen egingo duen lana azaldu zuten:

Euskal Herriaren eskubideak defendatu, konpromisua lortu, eskubide sozialen alde egin eta autodeterminazioa, besteak beste. *Eusko gudariak* abestu zuten bukatzeko.

Hamaiketakoak, Antzuolan

Amaiur koalizioari babesa emateko eta Espainiako Gorteetarako hauteskundeetarako botoa eskatzeko ekitaldia egin zuten zapatu eguerdian Antzuolan, Zurrategiko plazan. Salda, txorizo pintxoak, eta ardoa eta sagardoa eskaini zuten lehenengo eta ondoren argazkia atera zuten Kalebarrengo zubian.

Oñatin, bestalde, bizikleta martxa egin zuten Amaiurren aldeko botoa eskatzeko.



Oñatiko Bilduko hautetsieiei babesa emateko prentsaurrekoa. | O.E.

Mehatxuekin ez dutela garai politiko berria oztopatuko esan du Bilduk

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Oñatiko Bildu koalizioak zinegotziek urrian zehar udal webgunearen bitartez jaso dituzten mehatxuak eta Josu Lizarralde

hautetsiak etxeko buzoian jasotako mehatxu gutuna salatzen eta elkartzuna adierazteko ehun bat lagun elkartu ziren zapatu eguerdian Oñatiko plazan. *Fas-*

cista, no hay tregua, viva la Guardia Civil dio Lizarralde jasotako gutunak, eta Bilduko logoa eta bere aurpegia mira baten barruan ere agertzen dira. "Mehatxu horiek, zabaldu den garai politiko berria oztopatu gura dute, baina argi esan gura dugu ez dutela lortuko. Interpelazioa luzatzen diegu eragile guztiei eta gizarteari orohar, garai berriaren aldeko konpromisoa hartu duten ordezkari politikoak jasaten ari diren mehatxuen aurrean konpromiso garbiak har ditzaten", esan zuen Nerea Zubia Bilduko hautetsiak plazan elkartu zirenen izenean. Bestalde, "mezu garbia mehatxuekin jarraitu gura dutenei: fan hemendik, herri honetan ez duzue tokirik", luzatu zuen Jose Luis Fernandezek. Josu Lizarralde eskerrak eman zien elkartutakoak babesa ematearren.

Bihar, martitzena, ez ohiko osoko bilkura egingo dute Oñatiko udaletxean. Bilduko hautetsiek jasotako mehatxuen inguruko mozioa aurkeztuko dute eta herritar guztiak deitu dituzte osokoan eta ondorengo kale agerraldian parte hartzera.



Bost alderdi nagusietako ordezkari bana elkarrizketatuko du Goiena telebistak, gaur hasita

Bost alderdiko ordezkari bana elkarrizketatuko du Goiena telebistak. Elkarrizketa bakoitzaren bi emanaldi egingo ditu. Hauek izango dira saioak: Juana Bengoetxea (PP), gaur, astelehena, 21:29ean eta bihar, martitzena, 15:15ean; Mikel Izagirre (Ezker Anitza), bihar, 20:55ean, eta etzi, 15:15ean; Eneko Andueza (PSE), etzi, 20:47ean, eta eguenean, 15:15ean; Lore Leanzibarrutia (EAJ), eguenean, 20:47ean, eta egubakoitzean, 15:15ean; eta Maite Arisategi (Amaiur), egubakoitzean, 15:14ean eta 21:17ean (bi emanaldiak egubakoitzean dira, zapatua hausnarketa-eguna delako).



Blanca Roncalek PPren "konpromisua eza" kritikatu zuen Arrasaten eta Eskoriatzan

TXOMIN MADINA | ARRASATE

Senaturako bi hautagai egon ziren egubakoitzean Arrasaten eta Eskoriatzan arrosak banatzen senaturako zerrendaburua, Jose Luis Valles, eta hirugarrena, Blanca Roncal. Bi herrietako zinegotzi sozialistak ere eurekin egon ziren.

Blanca Roncalek esan zuen PPren programa anbigua dela:

"Denok dakigu programa anbigua egin dutela, mozketak proposamenak ezkututzen dituen programa bat. Hori justifikatzeko, jasotako herentzia erabiltzen dute. Jasotako herentziarekin ezin dela besterik egin esaten badute, ez daitezela aurkeztu. Ez daukate krisian dagoen Espainia batendako konpromisudirik", esan zuen Roncalek.



Blanca Roncal (eskuman), Debagoieneko sozialistekin. | T.M.

Bergaran lapurtutako artxiboak topatu dituzte

Gizon bat atxilotu zuten, ustez lapurreta egiteagatik, eta ikerketak zabalik jarraitzen du

LEIRE KORTABARRIA | BERGARA

Bergarako Udal Artxibotik lapurtutako dokumentu historiko batzuk berreskuratu zituen Ertzaintzak, eta 48 urteko gizon bat atxilotu zuen Zumarragan, joan den astean. Ikerketak zabalik jarraitzen du lapurreta zelan izan zen argitzea eta dokumentuak banan-banan identifikatzeko.

Loiolakoak eta Donostiakoak

Bergarako ertzainek koordinatutako operazio baten ondorioz, gizon bat atxilotu zuten, ustez Bergarako Udal Artxiboko, Loiolako Artxiboko eta Donostiako Zabala Etxeko artxibo pribatuko dokumentu historikoak lapurtu izanagatik; eta halako 200 dokumentu ingu-

ru topatu zituzten ertzainek. Dokumentuak XVII. eta XVIII. mendekoak dira, baina bakoitza zein den eta nongoa den jakin behar dute orain. "Baliteke beste artxiboren bateko dokumentuak ere egotea", esan du Ertzaintzak.

Ikerketa irailean hasi zen, Bergarako Udalak ipinitako salaketa baten ondorioz. Ertzaintzak konfirmatu digunez, Bergarako Udal Artxiboko arduradunak faltan igarri zituen dokumentu batzuk, Errege Seminarioko Fondokoak. Filatelia ikertzaile batez susmatu zuten ertzainek. Bergarako artxibora sarritan joaten zen. Atxilotu ondoren, epaitegira eraman zuten 48 urteko gizon bat hori.

Auto elektrikoak kargatzeko bi gailu jarri dituzte Arrasateko Eroski hipermerkatuan

Txartel bidez egiten da karga; kilometroa dieselaren %25 da, gutxi gorabehera

MONIKA BELASTEGI | ARRASATE

Auto elektrikoak kargatzeko bi gailu jarri dituzte Arrasateko Eroski hipermerkatuaren aparkalekuan. Ezkerreko sarreraren ondoan jarri dituzte eta urdin koloreko bi zutaberen itxura dute.

IBIL SAREN (Eve eta Repsolek osatutako enpresa) bitartez jarri dituzte kargagailuok eta helburua da herritar guztiei ematea zerbitzua, ez bakarrik hipermerkatuko bezeroei, "nahiz eta oraindik ia erabiltzailerik ez dagoen", Eroskiko ordezkarien esanetan.

Autoa kargatzeko, txartela

Arrasateko hipermerkatuan jarri dituzten gailuak erabiltzeko IBIL enpresarekin txartela kontratatu behar da -telefono txartelaren antzekoa- eta hori erabiliko da kargagailuan sartu eta autoa kargatzeko. Prezioari dagokionez, kilometroa dieselaren %25 da, gutxi gorabehera, hipermerkatutik aurreratu dutenez.

Eroskitik aurreratu duten moduan, oraindik auto elektrikodun erabiltzaile gutxi badago ere, Eroskik eta IBILEk elkarlanean dihardute EAEn auto elektriko bultzatzeko. Horrekin,



Kafetegitik gertuen dagoen sarreraren ondoan jarri dituzte bi gailuak. | M.B.

mugikortasun iraunkorraren eta ingurumenarekiko errespetuaren alde egiten dute, hirietan eta herrietan kutsadura txikituta. Aipatzekoa da auto elektrikoek ez dutela kutsadura akustikorik

sortzen, ezta emisiorik ere, eta, galera mekaniko gutxiago izateaz gain, errendimendu energetiko handiagoa dutela, mantentze-kostu txikiagoa eta kilometroko kostu txikiagoa.

Ordutegi berria Oñati-Arantzazu autobus zerbitzuan

M.B. | OÑATI

Urrian batutako inkesten emaitzak aztertu ondoren, Oñatiko Garapen eta Turismo Agentziak Arantzazurako autobusen ordutegian hainbat aldaketa egitea onartu du.

Hori horrela, azaroaren 13an hasi eta datorren urteko martxoaren 25era bitartean izango dira aldaketa horiek, Oñati-Arantzazu-Oñati autobus zerbitzuan. Oñatitik 08:00etatik 17:00ak bitartean irtengo dira autobusak eta Arantzazutik, berriz, 08:30ean hasi eta 17:30ak bitartean.

Arrikutzen geltokia

Bestalde, Arrikutzeko kobetan ere izango du geldialdia zerbitzu horrek, eta geldialdiak honako autobus hauek egingo dituzte, hain zuzen ere: 11:00etan Oñatitik irteten denak eta Arantzazutik 13:30ean abiatzen denak.

Bada, Oñatiko Udalak herritarrak zerbitzua erabiltzera animatzen ditu; baita beste herri batzuetatik Oñatira doazenak ere.

Hobekuntzak egin ditu Pesak hainbat lineatan

M.B. | ARRASATE

Pesa autobus konpainiak aldaketak egin ditu hainbat lineatan. Eibar-Arrasate eta Oñati-Arrasate-Eskoriatza-Leintz lineetan berrantolatu egin dituzte gaueko zerbitzuak. Hala, Arrasate, Aretxabaleta eta Eskoriatza artean joan-etorri gehiago egongo dira eta Leintz Gatzagak ere joan-etorri gehiago izango ditu. Bestalde, Eibar-Bergara-Arrasate-Gasteiz linean bi joan-etorri gehitu dituzte.

Arrasate-Bergara-Eibar-Loiuko aireportua izeneko lineari dagokionez, martxan dagoela aurreratu dute Pesatik. Lehen autobusa 05:15ean abiatzen da Arrasatetik eta lau orduan behin bat egongo da 21:15ak arte. Bueltarako 07:15ean abiatuko da lehena eta 23:15ean azkena. Tarifen kasuan, Arrasatetik Loirako txartelak 11,25 euro balio du; Bergaratik, 9,80; eta Eibartik, 7,45. Autobusean eta bidaiaria agentzietan erosi ahal izango dira eta autobusean ordainketa diruz bakarrik egin ahal izango da. Hala, ezingo dira Lurraldebus txartelak erabili.

Gure prezioek ez daukate ezustekorik.



FORD FOCUS TDCi azken prezioa URBAN

15.500€

- ✓ guztiz ekipatua
- ✓ 5 urteko Ford bermea
- ✓ matrikulazio gastuak
- ✓ giltza eskuan eta EZUSTEKORIK GABE.

Sar zaitez facturasinsorpresas.com-en eta ikus itzazu URBAN prezioak.



Feel the difference

MUGARRI AUTOAK

Araba Etorbidea, z/g
ARRASATE

Ford Focus gama, batez besteko kontsumoa 4,2-6,4 l/100km. CO₂ igorpenak 109-149 g/km. Salneurriak hau eskaintzen du: Focus Urban 1.6 TDCi 95 zp (70kw) eskuako aire-girogailua, MP3-CD irratia eta pintura zuri solidoa. Eskaintzak dakarrena: BEZa, garraioa, Ford Project 5 urte arte, matrikulazio zerga eta matrikulazio gastuak (gestoriako gastuak eta zirkulazio tasa), Penintsulan eta Balear uharteetan baliagarria hilabete bukaera arte. Ford Protect 5 urte arte, enpresa eta flotentzat ez da aplikagarria. Ikusten den modeloa agian ez da eskaintzen dena.

Lazpiurrek ez du ordutegi malguaz erabakirik hartu

Familia eta lana kontziliatzeko plan pilotuan parte hartu zuen, eta oraingoz alde batera utzi du gaia

LEIRE KORTABARRIA | BERGARA

Bergarako Lazpiur enpresak ez du oraindik erabakirik hartu lana eta familia kontziliatzeko ordutegi malguen programaren gainean. Enpresak gai hori, momentuz, alde batera utzi du Ekoizpen aldetik lan handiko unean daude, eta ordutegien inguruko aldaketa horren gaintik ipini dute ekoizpena, enpresako iturriek esandakoaren arabera.

Enplegu eta Gizarte Gaietarako Sailak bultzatutako plan pilotu baten parte hartu zuen Lazpiurrek, iazko azaroan hasita. Berarekin batera, beste hiru enpresa sartu ziren programa horretan. Bizimodua eta lana hobeto bateratzeko ordutegi aldaketak enpresa bakoitzean egin ahal zitezkeen aztertzea zen helburua.

"Barne-arrazoia tarteko"

Euzko Abertzaleak taldeko Amaia Arregi legebiltzarkideak Enplegu eta Gizarte Gaietarako sailburu Gemma Zabaletari galdetu zion proba pilotu horren ondoren antzemandako eragozpenei eta hartutako neurri jakin batzuei buruz. Lazpiurren gainean galdetuta, Zabaletak esan zuen ordutegi berria aplikatzea "atzeratu" egin zutela, "barne-arrazoia tarteko".

Gaineratu zuenez, zeuden bi aukeretatik, ordutegi malgua aukeratu zuen Lazpiurrek: "lanaldi zatituari eutsi" eta "ordutegian malgutasuna, baita eguerdiko etenaldia murrizteko eta arratsaldean irteteko ordua aurreratzeko aukera ere".

Lau enpresek topatutako oztopoak hauek izan dira: enpresa-

batzordearekin negoziatzeak dakarren atzerapena; ordutegi desberdina duten bezeroak atenditzeko premia; enpresaren eguneroko jardueraren baldintzak eta horiek ekarri dituzten atzerapenak; langileek dituzten itxaropenak modu trinkoan eta koordinatuan kudeatzea; eta ordutegi-eredu berriaren ondoriozko neurriek sor dezaketen kostu psikologikoa.

Zabaletaren esanetan, zuzendaritza-taldeek ez dute arazorik ordutegi berria ezartzeko; enplegatuek aipatu dituzten arazoak ohiturekin lotuta daude.

Enpresa gehiagora zabaldu nahi du Enplegu Sailak ordutegi aldaketa, eta 2012an neurri gehiago definituko dira, "kontuan hartuta prozesua etengabea dela".



Fiareko Periko Etxeburua eta Beñat Irasuegi, Goiena telebistan. | GOIENA

Periko Etxeburua eta Beñat Irasuegi | Fiareko ordezkariak

"Banka etikoaren lan taldea sortu nahi dugu Arrasate aldean"

Fiare bankak oinarri etiko batzuk betetzen dituzten proiektu berriak finantzatzeko dituzte

L.K. | ARRASATE

Fiare Banka Etikoa (www.projectofiare.com) aurrera eramaten dute boluntario batzuek. Periko Etxeburua eta Beñat Irasuegi kideen esanetan, helburua Fiare kreditu kooperatiba izatea da.

Zer da Fiare?

Beñat Irasuegi: Banka etikoaren oinarriekin kreditu kooperatiba bat sortzeko proiektua da. Proiektuaren hiru ezaugarri nagusiak hauek dira: gizartearen esku jartzea etekin sozialak emango dituen tresna finantzario bat; egitura demokratikoa izatea -Fiarek etorkizuneko kooperatiba izan nahi du-; eta gardentasuna.

Noiztik zabiltzate horretan lanean?

Periko Etxeburua: 2005ean hasi ginen. Bilbon ireki genuen lehen bulegoa, eta estatu osoko bulego nagusia da. Baditugu informazio bulegoak hainbat hiri eta herritan, eta espero dugu 2012-rako gehiago irekitzea. Kolaborazio batzuk baditugu eta beste kontaktu batzuk beste herri batzuetan; Bergaran, Oñatin eta Arrasaten baditugu kontaktuak. Arrasateko bailaran taldea lortu nahi dugu.

B.I.: Kapitala enpresa handietatik lortzea baino garrantzitsuagoa da guretako herrian antolatutako taldeak lortzea eta proiektua herriak eraikitzen joatea.

Zelako proiektuak finantzatzeko dituzue?

P.E.: Lau motatakoak: sozialak, kooperatibak, kulturalak eta ekologia arlokoak. Orain gehien arlo sozialekoak finantzatzeko

ditugu, batez ere giza-txertaketakoak; baita 3. mundurako kooperatibak ere.

Ze produktu eskaintzen dituzue entitate finantzario moduan?

B.I.: Fiare oraindik proiektua da, eta beste entitate batzuen laguntzarekin funtzionatzen du. Kooperatiba egiteko kapital soziala lortu behar denez, 2005ean erabaki genuen hori aktibitate finantzarioarekin lotzea, eta produktu sinpleak ateratzea. Batetik, gordailuak: eperako, 3.000 eurotik abiatuta edo 300 eurotik abiatuta ireki daitezkeenak. Badauke kontu korranteak, baina elkarrengandako bakarrik. Interesak ez dira handiak, gure helburua ez delako beste entitateekin kompetitzea. Sortzen diren interesak proiektuari emateko aukera ere badago.

Eta, bestetik, maileguak ditugu: oraingoz, bakarrik elkarre edo enpresei ematen dizkiegu, baina eskatzen ditugun balore etikoak betetzen dituztenak. Eta, beste edozein bankutan bezala, dirua itzuli egin behar dute.

P.E.: Bi filtro pasatzen ditu proiektuak: batzorde etikoak ikusten du lehenengo, eta baietza ematen badu, batzorde ekonomikoak.

"Gizarte kontrola, kooperatiba izatea eta gardentasuna dira gure oinarriak"



Joxe Mari Aizega, ikastaroak aurkezten. | VK COMUNICACION

Profesionalendako ikastaroak Basque Culinaryn

Egungo merkaturako euren burua hobeto prestatzeko aukera eman nahi die sukaldariei

L.K. | ARRASATE

Gastronomiako eta sukaldaritzako sektoreko profesionalendako 60 ikastaro antolatu ditu Basque

Culinary Centerrek, eta berau aurkeztu zuten joan den martitzenean. Askotariko gaiak landuko dituzte: produktua eta

sukalde-aplikazioak; pastelgintza eta gozogintza; sukaldaritza-teknikak; aretoa eta bezeroarekiko arreta; sukaldaritza-kudeaketa; dastatzea eta sumilleria; elikagaien industria; eta pintxoaren mundua, parrilla, otoruntzak eta gertakariak. "Ikastaro horiei esker, sektoreko profesionalak espezializatzeko eta beren prestakuntza osatzeko aukera izango dute, etengabe aldatzen den egungo merkaturako", esan du Mondragon Unibertsitateko Basque Culinary Centerrek.

Arzak, Subijana, Aduriz...

Ikasturte honetan, Master Classak ere izango dira profesionalentzako prestakuntzan. Guztira sei ikastaro magistral emango dituzte nazioartean erreferente diren chef handiek: Juan Mari Arzak, Pedro Subijana, Andoni Luis Aduriz, El Bulli jatetxeko arduradunak, Joan Roca, Pascal Barbot, Michale Brass eta Massimo Botura arduratuko dira platerak prestatzeko teknikak, sekretuak eta moduak erakustez.

AHTren Gipuzkoako adarrean 350 milioi inbertituko dute

L.K. | ARRASATE

Lehendakaritza eta Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio sailek bakarrik izango dute aurrekontu handiagoko datorren urtean, eta AHTren obren aurrekontua %27,3 handiagoko izango da, eta Gipuzkoako adarrean 350 milioi inbertituko dira, Herri Lan eta Garraio sailaren aurrekontuaren %44,5.

AHTrako aurrekontua baino gehiago haziko den bakarra berrikuntzarako fondoa da: %62,5 handituko da.

Carlos Agirre Ekonomia sailburuak eman zituen datu horiek Eusko Jaurlaritzaren 2012ko aurrekontuen proiektua aurkezterakoan, joan den martitzenean. Legebiltzarrak abenduaren 23an bozkatuko du proiektua.

Langabezia tasa, %10,8

Sail hauen aurrekontuak txikituko dira gehien: Ingurumena (-%10,9), Kultura (-%8,2) eta Herrizaingoa (-%6,7). Hezkuntzaren aurrekontua %1,7 txikituko da, eta Enplegu eta Gizarte Gaiena, %1,2.

Agirrek esan zuen 2012rako %10,8ko langabezia tasa aurreikusten dutela, aurten baino %0,3 txikiagoa.

Jaime Zambrana | Unibol Quechua unibertsitateko errektorea

"Indigenen eskualdeetako baldintzak hobetzera daude bideratuta karrerak"

- ▶ 2008az geroztik ari dira lanean herri indigenen unibertsitateak
- ▶ Lau karrera eskaintzen dituzte, eta

TXOMIN MADINA | ARRASATE

Mondragon Unibertsitatea ezagutzen egon dira egunotan Unibol Quechua Casimiro Huanca unibertsitateko bi kide. Boliviako Unibertsitate Indigenako zati bat da hori, 500 ikasle inguru dituena. Goienara egindako bisitan, unibertsitate horien helburu eta ezaugarriak buruz berba egiteko aukera izan genuen.

Nola sortu zen Unibol eta nola egituratzen da?

Unibol nekazarien erakundearen proiektu bat da; hiru unibertsitate osatutako unibertsitatea da, Boliviako herri indigenei zerbitzu ematen diena. 2008an eratu ziren, Evo Moralesen gobernuaren garaian, eta unibertsitate hauek sortzeak erantzuten die herri indigenen hezkuntzan, osasunean eta oinarriko zerbitzuen aldeko borrokan egindako aldarrikapenei. Gazte indigenak unibertsitatean egotea beti izan da bazterketarako gai bat, desberdintasunerakoa. Unibertsitate hau herri eta erakunde indigenetako gazteei formazio profesionala ematera bideratuta dago.

Ze ikasketa ematen dira bertan?

Lau karrera daude: basoekin lotutakoa, elikaduraren industriarekin lotutakoa, piszikultura eta agronomia. Karrera bakoitzean hiru titulazio maila daude: sei seihilekoren ostean, goi mailako teknikaria; hamar seihilekoren ostean, lizentziatura; eta bi urte gehiago egin ostean, masterra. Karrerak bideratuta daude produkzio-dinamikak indartzera, komunitate indigenak dauden eskualdeetako baldintzak hobetzera. Erakunde indigenen beharrei erantzutea ere bada helburua. Izan ere, erakunde hauek curriculumak garatzeko orduan euren planteamenduak aurkeztu zituzten.

Ikasleak aukeratzeko orduan komunitate indigenek zeresan handia dute, ezta?

Unibertsitatean sartzeko prozesu bat dago. Lehenengo eta behin, esan behar da gobernu organoa batzorde komunitarioa dela. Unibertsitateko instantzia gorenena da, eta bertan daude ordezkariak nekazari eta indigenen erakundeak, baita ikasleak, irakasleak eta unibertsitateko alderdi administratiboak ere. Unibertsitatean sartzeko, erakundeek babestuta egon behar du, erakundeek eurek egiten dute hautaketa prozesua unibertsitatean zein sartuko den erabakitzeke. Ikasle hauek, euren formazioan, babestu dituen erakunde edo komunitatearekin elkarlanean ibiliko dira; baita formazioa amaitzean ere, komunitatearen garapen produktibo, ekonomiko edo kulturala-



Jaime Zambrana, Goienako egoitzan. | XABIER URTZELAI

ren aldeko ekimen produktiboak egiten. Helburua da ikasleek sustaia ez galtzea; beste unibertsitate batzuetan, ikasleek edozein bide har dezakete ikasketak amaitzean. Gure kasuan, komunitateak emandako babesari erantzuteko konpromisoa hartu beharko du ikasleak.

Ze garrantzia ematen zaie hizkuntza indigenei?

Unibol Quechuan, sare curricularrak ezartzen du formazioarako baldintza moduan kitxua ikastea. Berba egiteko orduan askok bada-kite, baina ez idazterakoan. Unibertsitateak hori garatzen du; formazioaren oinarriko zutabe bat da. Bada beste ardatz transbertsal bat Andeetako kosmobiarioi buruzkoa; bertan, indigenei eragiten dieten prozesu historiko, sozial eta ekonomikoak lantzen dira. Sare curricularreko bi elementu hauek oso garrantzitsuak dira formazioan; titulua lortzeko, esaterako, azken lanak kitxuen hizkuntzan egon behar du. Baina, era berean, hizkuntza horrek izan behar du egunerokotasuean komunikaziorako ohiko hizkuntza. Hori lortzeko, irakasleak formatzeko lan egin behar da.

Ohiko irakasleak figuraz gain, jakintsuek ere badute pisua.

Irakasle jakintsuak erakundeek bultzatutakoak dira eta alor ezberdinetan esperientzia eta ezagutza dute: medikuntzan, nekazaritza eta abelzaintzan, kultura kitxua duten errituarekin, hizkuntzaren erabilera... Helburua da haiek ere, etorkizunean, karreraren zuzendaritzako karguak edo unibertsitatearen kudeaketari lotutakoak ere hartu ahal izatea.

Unibertsitate hauek sortu haurretik, ze aukera zuten indigenek goi mailako hezkuntzara heltzeko?

2008a baino lehen, indigenendako aukerak baztertzailak ziren. Unibertitate publiko zein pribatuek ez dute borondate politiko edo instituzionalik izan indigenei euren interes kultural edo bokazio produktiboaren araberrako formazioa eskaintzeko. Unibertsitateek politika monokulturala izan dute, homogeneizazioa bideratutako heziketa prozesuak sustatuta. Ezaugarri estrukturaleri ere erantzuten die horrek; azpiegiturak ez dira behar bestekoak edo behar bezalakoak nekazaritza-guneetan eta ezin zen Lehen edo Bigarren Hezkuntzarik egin. Jende gutxi joan zitekeen unibertsitateara. Era berean, esan daiteke estatuak berak ere, homegeneizazioa lortu nahian, herrialdeko aniztasun kulturala ikustezin egin gura izan duela.

Etazein onura ekarri ahal dizkie komunitateei euren kideek goi mailako hezkuntza izateak?

Egun, komunitateek izan ditzakete nolabaiteko profesionalak, baina beste unibertsitate batzuetan formatutakoak izan ohi dira, eta ez dute indigenen dinamika kultural, ekonomiko, sozial edo produktiboa ezagutzen. Ideologia, hizkuntza edo kosmibisio bereko profesionalak izatea oso garrantzitsua izango da. Agronomian formatutako jendea sortzea da helburua, baina identitate kulturalaren osagarri indartsuarekin, eta hizkuntzaren maneiarekin.

"Erakundeek eurek egiten dute aukeraketa zein sartu erabakitzeke"

"Komunitateak emandako babesari erantzun beharko diote ikasleek"

"Estatuak ikustezin egin gura izan du herrialdeko aniztasun kulturala"

ZABALIK

MANU ARREGI
http://goiena.net/iritzia/



Eta orain zer?

Ez dakit nola bizi izan zenuten zuek ETaren urriaren 20ko komunikatua. Harrituta, neuk. Ez adierazpenagatik beragatik, alderdien eta politikarien erreakzioengatik baizik. Aho batez ontzat emateak komunikabideetan azaldu dena baino gehiago zekitelako esan nahi du. Patxi Lopezek izan ezik. Abilezia izugarria du honek behin eta berriro jokoz kanpo gelditzeko.

Bi atal berezi eskaini zizkion prozesuari La Sextako *Salvados* programak: *Borrando a ETA* eta *Reiniciando Euskadi*. Youtuben dituzue ikusgai. Goraipatua izan da Jordi Evole hori dela eta.

Baina ez ziren hor errealitate guztiak azaldu, Espainiak ikusi nahi duen errealitatea baizik. Dena den, ematen dira bertan zenbait klabe interesgarri. Garbi uzten du Martxelo Otamendik ez zirela Donostiako bake konferentziara etorri zirenak etorriko PSOEren eta PPren onarpenik gabe. Eta bereziki interesgarria da *Follonero*-k Jesus Eguigurenekin duen solasaldia. Ikustekoa da Eguigurenen aurpegia Evolek ea zer sentitzen duen gobernu batek ETArekin izan duen azken bitartekaria izatean galdetzen dionean. "Azkena ni?", erantzuten dio Eguigurenek.

Prozesuak atzera bueltarik ez izateko, zerbait egin beharko du estatuak. Ez du Mariano Rajoik erronka erraza izango, munstro izugarria sortu dutelako bere inguruan denbora honetan. Baina uste dut berak ere badakiela zenbait pauso eman behar direla, lehenbailehen. Eta epe motzera amnistia edo parekoren bat eskatzea errealista ez izan arren, ezin egoera normalizatu bat imajinatu, hamar urte barru, adibidez, preso guztiak kalean ez badira.

Espainiak ulertu beharko du normalizazioa ez dela gauzak orain bezala gelditzea, batzuek nahi duten bezala. Normalizazioa nork bere ideiak aurrera eramateko aukera izatea da. Guztiek besteen posturak errespetatuz. Bide luzea dugu horraino. Baina bidean gaudela sinetsi nahi dut.

USTEAK USTE

JON BEREZIBAR | jberezibar@goiena.com

Santa Barbara parkea

Arrasateko erdialdeko leku eder eta lasai bakarrak badauka, antza, zelanbaiteko madarikazio moduko bat, ze Santa Barbara parkean sekula ez da-eta inor ibiltzen. Ez, behintzat, ni bertan ibili naizenetan; bat edo beste txakurra paseatzen eta eskolatik ezkutuan zigarrotxoa erretzen gaztetxo batzuk, inor gutxi gehiago. Eta luxuzko gunea da, orain udazkenean ikusgarri dagoena eta herri erdialdean dauden leku txakur urri horietako bat. Nolatan daukagu herritarrek parkea hain ahaztua? Akaso, mahaiak dauden lekuan taberna eta terraza eginda edo parkea bera kontzertuak eta ekintzak antolatzeke erabiltzea izan daiteke aukera.

KALE INKESTA

Kanpainako telebista saioek zure botoan eragiten dute?



GARBIÑE ZUBIZARRETA
ARETXABALETA

"Ez ditut ikusten, hortaz, nire botoa ez da aldatzen. Politikaz hitz egin beharrean bata besteari egin ez dutena esateko erabiltzen dituzte".



JUAN MARI URRUTIA
ARETXABALETA

"Militantea naizenez, gauzak argi ditut eta nirekin ez dute ezer lortzen. Horrelako tokietan, gainera, ez dira aukera guztiak agertzen."



JOVITA ARTABE
ARETXABALETA

"Ez atzera, ez aurrera. Nik botoa aspaldi erabakia edukitzen dut. Gainera, ikusi ditudan aldi gutxi horietan gezurrak besterik ez ditut entzun".



PRUDEN MUJIKA
ARETXABALETA

"Saioak ikusi arren, nire botoa argi daukat. Zoritxarrez, politikaz hitz egin beharrean euren lana goraiatzera edo gezurrak esatera jotzen dute".

HANDIK ETA HEMENDIK

Postmodernitatea heldu da, bai, eta?

Luis Aranberri 'Amatiño'
http://eibar.org/blogak/amatiño/

"Individualismoa, mass media, moralaren desagerpena, itxura gordetzea, nartzisismoa, hedonismoa, intimitatearen eta gorputzaren kultuak...".

Postmodernitatea ez al du eskaintza hoberik?

Helburu handiei eustearen konpromisoa amaitu egin al da?

Benetan?
"Gauzak ikusteko modua" omen da aldatu dena azken belaunaldi honetan.

Holaxe dio behintzat Iraitz Urkulo (Bilbo, 1987) euskal literatura doktoregaiak *Postmodernitatea, gaurko mundurako filosofia berria* izenburupeko txostenean (*JAKIN* 185.Uztaila-abuztua, 2011).

Erdi-Aroan hasi eta XVII. eta XVIII. mendeetan loratu zen arrazoimenaren, zientziaren, ezagutzaren eta mugarik gabeko aurrerakuntzaren nagusitasunak goia jo bide du.

Harako modernitateak honako postmodernitatea erakarri du, eta arrazoimen unibertsalak arrazoibide ugari eragin, betiere norbanakoaren interesen arabera.

Hau da, ez da arrazoimena zalantzan dagoena, bat eta bakarra ote den baino. indartsuekin atera naiz antzokitik.

Oker nahiz zuen, modernitatearen arrazoimen unibertsalak bazuen postmodernitatearen aniztasunak ez duen nolabaiteko "alde ona", gizaki postmodernoa nekez definitu ahal izango baitu bere burua modernoak bezain erraz eta zehatz.

Zailtasun hauek gaintitze aldera edo, Iraitz Urkulok berak azpimarratzen ditu postmodernitatearen zenbait oinarritzko ezaugarri, alegia: ezberdintasuna, aniztasuna, pertsonalitatea, erlatibitatea, gainbeheraren kontzeptua, balioen galera, nazio-sentimendua... Baita hainbat proposamen zehatz eskaini ere:

-Ideia ona deritzot norberaren autoestimua hautsia berregitetik hasteari. Bizitza behar

eta menpekotasun ikasien eskuetan utzi ordez, oso garrantzitsua da bakoitza bere buruarekin ados jar dadila, pentsamendua lasaitasunak har dezan.

-Postmodernitatean argi dagoen gauza bakarrenetakoa da subjektua ez datorrela bat sistemaren inposaketekin.

-Nik defendatzen dudana proiektu postmodernoa erlatibismoa tolerantetean sustraitzen da.

-Egia historiko nagusiak zalantzan jartzea praktika osasuntsu gisa onartu beharko genuke.

-Arrazoiak nork duen edo nor dabilen zuzen/oker erabakitzea ezinezko bihurtu bazaigu, horrek denok berdintzen gaitu. Zalantza partekatzen dugu.

-Ez gaitzezen konformatu subjektu postmodernoa indiferentea eta azaleko hedonista dela sinetsarazi nahi digutenean bertsioarekin, jo dezagun muinera eta konbentzi gaitzezen besteon aurrean jarrera irekiagoa hartzeak ekar diezazkigukeen onurez, hemendik aurrera gure bizitzaren maila guztietan islatu ahal izateko. Ba, horixe.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkarte
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Estepan Plazaola
Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Monika Belastegi
Sailietako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Inaki Iturbe (Disenaua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Asteburuko edizio arduraduna
Leire Kortabarria
Maketazioa Kepa Martelo, Imanol Soriano
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundifano, Zortza Martin, Itsaso Berezibar, Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPEREA
ARRASATE 20500:
Utalora Lizenziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
arrasate@goiena.com

ORDEZKARITZA
ARETXABALETA 20550: Durana 11
Tel.: 943 79 86 21 | Faxa: 943 77 18 54
aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com
Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 08 10 50
harpidetza@goiena.com
Lege Gordailua: SS-0088/04
ISSN: 2173-707X
Tirada: 5.000 ale.
Difusioa: 4.383 ale.

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria.

GOIENAK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako initzen erantzukizunik.



Eusko Jaurilaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Zure espazioaz gozatzea gustuko duzu. Maiteenak dituzunekin batera gozatu nahi duzu haren apaingarrien dotoretasun eta gustu ona. Etxean igarotzen dituzun uneak ulertzeko modu pertsonal eta bakarra da. **Zuk egiten duzu Kibuc.**

ZU bakarra zara



prezio berezia Lehen 2.599 €

2.099 €

174,92 € x12 hilabete interesik gabe*

Marroi txokolatean ere bai



LARRU LODITUAN



Eserleku irristagarri elektrikoak
Bizkar etzangarria

3D proiektuak doan

KIBUC Gure Ametsa

Landeta Hiribidea 1, **Azpeitia** Tel. 943 15 16 81 gureametsa@kibuc.com

www.kibuc.com



Proiektu eta eraberritze integralak

KIBUC
altzariak eta osagarriak

Azkenean etxean

Tasmania sofa Erosotasun eta dotoretasun proposamena, elektrikoki mugitzen diren eserlekuekin eta eskuz etzan daitezkeen burukoekin. 3 lagunentzako sofa eta chaiselonguea larru loditu zurian eta marroi txokolatean. **Motorrak doan.** Neurria: 281x100/165 zm.

Adierazitako akabera eta neurrietarako balio duen prezioa, izakinak bukatu arte (guztira 300 sofa). BEZ barne. *Finantza-erakundeak ontzat emateari baldintzatua.

UDAL ORDEZKARI IZANDAKOAK

Rosarito Galdos | EAko zinegotzia Oñatin (2003-2007)

- ▶ Bi agintaditan izan zen zinegotzi, Andoni Gartziarekin eta Lourdes Idoiagarekin
- ▶ Zortzi urtean Gizarte Zerbitzuetako batzordeburu izan zen
- ▶ Politikako lehen lerroa utzi ondoren, EAJn hainbat lan egiten ditu egun

"Zaharren egoitza baten dagoen Gipuzkoako lehen psikogeriatrikoa Oñatikoa izan zen"

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Rosarito Galdos (Oñati, 1943) EAJko zinegotzi izan da 2003tik 2007ra. Gizarte Zerbitzuetako buru izan da, eta oroitzapen onak ditu. "Lan handia egin dugu eta proiektu onak ipini ditugu martxan", esan digu.

Zortzi urte egin dituzu zinegotzi. Nahiko?

Bai. Udalera heldu nintzenez, oso garbi nuen bi agintaldi egingo nituela. Zinegotzi batendako proposena dela uste dut. Esperientzia barik heldu nintzen Udalera. Lehen agintaldian, departamentua ezagutzeko denbora izan nuen. Teknikariak, Gizarte Zerbitzuaren barruko gauzak... Lehen hartu-emanak izan nituen. Konturatu barik, bigarren agintaldian sartu ginen. Bigarrenean, aurreko esperientzia guztiarekin, beste modu batera egin nuen lan.

Bi agintaldiak Gizarte Zerbitzuetan, batzordeburu. Gustura?

Bai, oso. Zinegotzi kargua hartu nuenean, alderdikideei esan nien Gizarte Zerbitzuak gura nituela. Betidanik gustatu izan zait pertsona helduekin eta adinduekin lan egitea.

Sartu zinenean, nola zegoen departamentua?

Ondo antolatuta. Egia esan, punta-puntako teknikariak daude Gizarte Zerbitzuetan. Askok eskertzen diet nirekin egindako lana. Kargua hartu nuenean, argi eta garbi esan nien talde moduan lan egingo genuela. Ni ez nintzela zinegotzia eta eurak teknikariak. Eta horrela egin dugu lan zortzi urtean: lantalde moduan. Azken finean, zinegotziak aldatu egiten dira, baina teknikariak ez.

Zortzi urtean lan handia egin zenu-



Rosarito Galdos, Portu kaleko plazatxoan. | MIREIA BIKUÑA

ten. San Martin egoitza goitik behera berri zuen.

Guk egindako proiektu nagusia izan da, izarra. 2006an eraberritze lan handia egin genuen. Urte har-

tan, abenduan, hirugarren solairuan psikogeriatrikoa inauguratu genuen. Zaharren egoitza baten zegoen Gipuzkoako lehen psikogeriatrikoa izan zen. 2007an gai-

nerako solairuak eraberritu genituen. Eta 2009an beheko solairua antolatu genuen: ile-apaindegia, taberna...

Dirutza handia erabili genuen



San Martin egoitzak zilarrezkoa Q-a jaso zuenean. | GOIENA

egoitzari egun duen itxura emateko. 83 egoiliarrendako lekua dago.

Kalitate handiko egoitza da. Gipuzkoan daudenen artean onenetarikoa. Kalitate maila hori izateko, ematen den zerbitzuaz gain, hango langileen eta mojen lana azpimarratu gura nuke. Bereziki aipatu nahiko nuke Sor Maitek egin duen lana. Bederatzi urte egon da egoitzako arduradun moduan, eta tarte horretan eraberritu dugu egoitza. Lerro hauen bidez, eskerak Sor Maiteri.

Eguneko zentroa aurrerapauso inportantea izan zen?

Bai. Egoitzaren ondoren eman beharreko pausoa zen. 25 lagun daude egun.

Etkez etxeko zerbitzuan ez dago itxaron-zerrendarik.

Hala da. Herri bakarra gara itxaron-zerrendarik ez daukaguna. Zerbitzua azpi-kontratututa dauka Udalak. 80 bat herritarrek dute etkez etxeko zerbitzua; bi agintaldietan eskaera guztiak bideratzen saiatu gara.

Gizarte Zerbitzuen barruan daude, baita ere, emakumeei laguntza emateko zerbitzua eta droga-menpekotasun zerbitzua.

Erantzun ona izan dute herritarren artean. Bi sail horietan lan handia egin dugu. Baina ezkutuan egindako lana da. Jendaurrean ezin da dena erakutsi.

Eta orain zertan betetzen dituzu orduak?

Ez daukat aspertzeko denborarik. Alderdi politiko bateko kidea naiz eta horrek ardurak batzuk dakartzatza. Ez nago politikako lehenengo lerroan, baina laguntzen jarraitzen dut.

"Talde moduan egin nuen lan Gizarte Zerbitzuetako teknikariekin"

"Etkez etxeko zerbitzuan ez dugu itxaron-zerrendarik eduki"



Bai Euskarari
urrats biziak



ziurtagiriaren elkartea



baieuskarari.org

Laguntzailea: **goiena**
KOMUNIKAZIO TALDEA

HERRIAK

ANTZUOLA

Udaberrirako amaituko duten gaztetxea, elkarlanaren emaitza

Diseinua udalak eta asanbladak adostutakoa izango da eta obran ere ariko dira gazteak

JULEN IRIONDO | ANTZUOLA

Duela hamar-bat egun hasi ziren lanak anbulatorioa egon zen erakinean; soberan dauden paretak bota dituzte, eta orain dator beharrezko instalazioak egitea eta gaztetxea izango den gune berria eraikitzea. Lanak udaberrirako amaitzea da asmoa, nahiz eta gero guztiz jantzi eta atontzen amaitu beharko duten: normal funtzionatzen hasteko datarik ez dago oraindik.

Aspaldiko proiektua da gaztetxea Kalebarrendik frontoi osterara, osasun etxea egon zen eraikinera eramatearena. Jose Angel Zabalo alkate zela hasi ziren lantzen eta 2010 urteko udal kontuetan aurreikusi zuten lanak egiteko dirua -120.000 euro-. Anbulatorioa Torresoroara lekualdatzea, baina, uste baino gehiago atzeratu zen eta horrek ekarri du obra hainbeste atzeratzea.

146 metro koadro

Baina lanak martxan dira dagoeneko; eta martxan dira udaleko Hirigintza Sailak gazteekin adostutako diseinuaren arabera: "Proiektua euren ideiekin egin dugu; gainera, eskatu izan dutena ez dira gauza arraroak izan. Ez da zaila izaten ari adostasunera iristea. Euren artean badira, adibidez, arkitektura ikasleak edo dekorazioaz dakitenak, planoak ondo maneiatzen dituztenak", dio Valen Moñux udaleko aparejadoreak. "Zailtasun handiena da prozesua luzatu egiten dela, eurek asanbladarekin kontsultatu behar dituztelako erabakiak, eta guk ere bai udalean gure artean", gehitzen du Moñuxek.

Antzuolako Gazte Asanbladak lantaldea du antolatuta gaztetxe berriaren gaia eramateko. Gustura daude proiektuak hartu duen itxurarekin: "Ahal den neurrian kontuan hartu dituzte gure proposamenak; adibidez, segurtasun arazoengatik aldatu behar izan ditugu asmo batzuk"; beharrezko aldaketak zirela onartu eta gazteen eta udalaren arteko elkarlan ona berresten dute Gazte Asanbladakoek.

Gaztetxe berriak izango du 146 metro koadroko azalera: zati handiena hartuko du erabilera publikorako guneak -60 metro koadro-, eta horrez gain izango ditu sarrera-biltokitarako armairu batekin-, elbarriendako ego- kitutako bi komun, sukaldia,



Honen antzerako itxura izango du Antzuolako gaztetxe berriak barrutik. | ANTZUOLAKO UDALA



Duela hamar-bat egun hasi ziren anbulatorioa izandako eraikinean lanak egiten. | JULEN IRIONDO

ESANAK

"Proiektua euren ideiekin egin dugu; ez da zaila izan adostasuna"

VALEN MOÑUX | UDAL TEKNIKARIA

"Askatasun handiagoa izango dugu, azalera alderik egon ez arren"

ANTZUOLAKO GAZTE ASANBLADA

barra-ia hamar metroko luzerakoa-, bulegoa eta agertokia -17 metro koadro-. Obra egin eta oinarrizko ekipamendua jarriko dute aurrena; agertokia, adibidez, soinu eta argi azpiegituretarako prest utziko dute, nahiz eta lan eta gastu horiek aurreragorako utziko dituzten.

Gazteen gustuko gaztetxea

"Azalera ez dago alde handirik lehengo gaztetxetik berrira. Baina pozik gaude distribuzioarekin. Askatasun handiagoa izango dugu kokapenagatik", diote gazteek. Gaztetxearen kanpoaldeak ere aukera gehiago emango dizkie; lehen lokal batean zeuden, etxebizitzaren azpian: "Bizilagunak zeuden, negozioak ere bai; nahiz eta beti konpondu izan garen ondo".

Aurreko astean paretak bota, gremioek jardungo dute lanean datozen asteetan. Baina gazteak ez dira konformatu gunearen diseinuan parte hartzearekin; obran ere zuzenean lan egiteko gogoia erakutsi dute: "Gure helburua gaztetxea auzolanean egitea zen; gu prest geunden obra egiteko herriko jendearen laguntza aurkitzeko", diote. Udalak, baina, profesionalen esku utzi ditu hainbat egiteko halabeharrez; dena den, oinarrizko lanak amaituta gazteen ardura izango da obra osatzea, hormak margotzea, adibidez. "Egingo dugu deialdia auzolanerako", iragarri dute Gazte Asanbladakoek.



Eguerdian taloak jateko gosez zeuden azokara joandako gehienak. | O.E.



Larrua, bitxiak, kristala edo egurra lantzen duten 14 artisau etorri ziren San Milixan azokara. | O.E.



Umeen tailerra. | O.E.



Sagar mota asko ikusgai. | O.E.

Aurreko urteetan baino lan handiagoa izan zuten Leinz Gatzagako *sorginek* taloak egiteko. | OIHANA ELORTZA

LEINTZ GATZAGA

Azken urteetako jendetsuena izan da aurtengo San Milixan azoka

Munduko gatz ezberdinen erakusketa egon da eta herriko sagardogileek sagardoa egin dute plazan

O.ELORTZA/I.GALLEGO | LEINTZ GATZAGA
San Milixan azoka egun handia da Gatzagarentzat. Eskoriatzatik irteten ziren autobus lanzaderak jarri arren ez zen erraza Leintz Gatzagan autoa aparkatzeko lekua

aurkitzea. Jendeak egun dotorea kalean igaro nahi zuela nabaritzen zen eta Gatzagak entretenimendu ugari eskaintzen zituen: larrua, kristala edo egurra lantzen duten artisauak, trikitilariak, sagardo-

gileak eta taloak txistorra edo hirugiharrarekin. Eguerdian, Gatzagako *sorginek* antolatutako talo postuak pilatzen zituen frontoi berrituan zeuden gehienak. Plazan, berriz, bi ziren interes

puntuak: gatz museoak mundu guztitik ekarritako gatz beltza, laranja eta grisa erakutsi eta saltzen zuen, batetik, eta umeez gatz plastilina moduan ere erabiltzeko aukera izan zuten. Bes-

tetik, herriko sagardogileek sagardoa egiten ziharduten.

Hiru sagardogile daude egun Leintz Gatzagan eta horietako bi egon ziren plazan jende aurrean sagardoa egiten, beste lau zapabost lagunekin batera. Guztira, herrian batutako 300 kilo sagar erabili zituzten sagardoa egiteko, urtebete, bost-kantoi, abade-sagarra edo gorritxo klasetako sagarrak tartean. Sagar-pitterra jendeari eman zioten probatzeko eta sagardoa kupel baten sartu zuten. Martxoan edo apirilean kupaletik atera eta botiletan sartuko dute, herriarrek edateko.



EUGENIA KEREJETA
GATZAGA

"11:00etan hasi gara taloak egiten eta 14:00ak arte ez gara gelditu. Azken urteetako azokarik jendetsuena izan da eta pozik ibili gara denendako taloak egiten".



AITOR ETA URKO ALBERDI
GATZAGA

"Bertakoak gara eta urtero etortzen gara. Aurtan ere jan dugu taloa eta sagardoa nola egiten duten ikusten ere egon gara. Azoka polita izan da".



ANE ETA MALEN UGARTE ETA BEGOÑA BARRENA
ARRASATE

"Ilobendako jostailuak erosi ditut. Lau iloba txiki ditut eta egurrezko alfabetoen puzzleak erosi dizkiet. Nik neuretako ez dut ezer erosi, bertako ogiaz aparte. Baina taloa jan dut. Azoka askotan egon naiz eta inoiz ez dut ikusi, bertatik bertara, sagardoa nola egiten den, eta gustora egon nazi begira. Sagar-pitterra ere probatu dut eta asko gustatu zait".



IÑAKI GOROSTIDI
ADUNA

"Etorri izan naiz beste urte batzuetan ere eta aurtan ere giro ona dago. Erosleak, baina, tantaka-tantaka datoz. Artisauen salmentak jaitsi egin dira".

ARAMAIO

Ahozko ondarea utzi digutenei, merezitako omenaldia

Aspaldiko ipuin, kondaira eta bizipenak kontatu dituzten aramaioarrei omenaldi polita eta hunkigarria egin zien Udalak zapatuan



Omenduak eta euren senideak, Arriolabengoa eta Ozaeta lanaren egileak eta Udaleko ordezkariak, omenaldiaren amaierako talde argazkian. | JOSETXO ARANTZABAL

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Antolatzaileak eta protagonistak pozik eta Aramaioko zinema aretoa herritarrez lepo. Divina Arriolabengoa eta Arantza Ozaetak jasotako Aramaioko aspaldiko ipuin, kondaira eta bizipenak kontatu zituztenei egindako omenaldia arrakasta borobila izan zen. Udalak egin zien omenaldia, zapatuan, zinema aretoan.

Egun osoko egitaraua


Neurrikoa izan zen omenaldia, ez laburregia eta ez luzeegia. Ane Miren Etxeberria zinegotziak aurkezpen txiki bat egin zuen eta gero herriko dantzariak aureskua dantzatu zieten protagonistei. Dantza saioaren ostean Divina Arriolabengoa eta Arantza Ozaetak hartu zuten hitza. Protagonistei eskerrik beroenak eman zizkieten: "Elkarrizketak amaitu ostean zuengana bueltatzeko gogoia pizten zitzaigun. Hainbat balio

transmititzeko gaitasuna duzue, eskerrik asko". Falta zirenak ere kontuan izan zituzten: "Fisikoki ez dauden arren, hemen sentitzen ditut", esan zuen Arriolabengoa.

2000. urtean egindako bilketaren CDa ez dute prestatu oraindik -Etxeberria zinegotziak beranduago jasoko dutela esan zuen-. 2010ean egindako bilketaren DVDA, berriz, protago-


nista bakoitzari edo haren senitarteko bati eman zitzaion, lore banarekin. Bertaratutakoen txaloak ez ziren falta izan. Gero, Xabi Igoa bertsolari aramaioarrek bertso bi eskaini zizkien

omenduei eta azkenik, talde argazki polita atera zuten agertoki gainean. Omenaldiaren ostean, guztiek batera lunch ederra egin zuten erretiratuen elkartearen.



DIVINA ARRIOLABENGOA ETA ARANTZA OZAETA
LANAREN EGILEAK

"Ekitaldia hasi baino lehen urduri geunden baina etorri direnak ikustek asko lasaitu gaitu. Izugarria izan da denak batera ikustea, eta omenaldia hunkigarria eta neurrikoa izan da. Oso polita izan da zaharren eta gazteen artean dagoen distantzia une batez apurtu eta espazio berean elkartu ditugula ikustea. Apurketa hori oso garrantzitsua da gizartearendako".



NIKOLAS GARDOKI
OMENDUA

"Askok gustatu zait. Laburra eta polita izan da omenaldia, behar den moduan. Gutaz akordatzen dira oraindik, poztekoa da hori. Lan handia egin dute, eskertzekoa da".



INES BEITIA
OMENDUA

"Ikaragarri gustatu zait, eskerrak etorri naizela. Oso lan polita egin dute lehengo bizipenak gogora ekartzeko; zein ezberdinak diren lehengo bizimodua eta oraingoa".



BERGARA

OIHANA ELORTZA

Gaztetxeaz hausnartu dute Elosun

Egubakoitz iluntzetik domekara arte bilduta egon dira Bergarako Gazte Asanbladako 30 gazte baino gehiago gaztetxeaz hausnartzen, Elosuko abadetxean. Gaztetxearen erabilpenaz eta kudeaketaz eztabaidatu dute adibidez; irratia eta bloga nola eta zertarako erabili dezaketen ere ikusi dute Txapa irratiko eta Topatuko lagunekin; urteko plangintza eta proiektuak ere aztertu dituzte eta inguruko gaztetxe lagunak ere gonbidatu dituzte euren egoeren berri jakiteko.



ESKORIATZA

IMANOL GALLEGO

Parte-hartzea, udalen ardatza

Eskoriatzak aurrekontu parte-hartzaile batzuk izateko lehen pausoa eman zuen zapatuan. Kiroldegan, 140 herritarrekin batera, Eskoriatzak zeri eutsi, zer hobetu eta zer sortu beharko litzatekeen definitu zuten. Aretxabaletak, bestalde, kiroldegi berriari buruzko informazioa eman eta aholkua eskatu die herritarrei.



Sarrerako sabaia konpondu eta bi ate berri jarri dituzte.



Txukunago eta erosoago jarri dute aterpetxea; irudian, sukaldia.



Beheko sua ere badu, hotzik ez pasatzeko. | BESAIDE MENDIZALE ELKARTEA

Besaidek hobekuntza-lanak egin ditu Leixargarateko aterpetxean

- ▶ Mendizaleei aterpetxea erabiltzeko gonbita egin diete mendizale elkarteko arduradunek
- ▶ Aizkorriko parke naturalean dago, paraje ederrean; erreserbak, aurrez, Garibaiko egoitzan

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Besaide mendizale elkarteak Leixargarateko aterpetxean hobekuntza lanak egin ditu. Besteak beste, sarrerako sabaia konpondu dute, teilatuan zenbait teila ordezkatu dituzte eta bi ate berri jarri dituzte. Barrutik, berriz, sabaia jaitsi eta isolamendua jarri diote. Eta ez hori bakarrik, zorua ere berritu dute.

Besaideko arduradunek, hiru enpresa eraikitzaileekin elkartu eta aurrekontua eskatu ostean, Eskoriatzako Ramel enpresa aukeratu zuten. Iraileko bigarren astean

hasi ziren lanak eta duela hiru bat aste amaitu zituzten. Hau da, hilabete pasatxo egin dute bertan; horrek erakusten du obra handia izan dela.

Azken finean, aditzera eman dutenez, "txukunago eta erosoago" jarri dute aterpetxea Besaidekoek. Konponketa lan sakon horien ostean, erabiltzera gonbidatu nahi dituzte mendizaleak, bazkideak zein bazkide ez direnak: "Erabilerak ematen dio bizitza eta zentzua Leixargarateko aterpetxeari", adierazi dute. Lagunartean asteburua pasatzeko gune ederra dela

eta baliabide ezin hobeak eskaintzen dituela diote Besaidekoek: "Anima zaitetz eta pasatu familia edo lagun artean asteburu bat!".

Giltza egoitzan eskatu behar da

Aterpetzeko giltza jasotzeko prezioak honakoak dira: elkarteko bazkideek zazpi euro; Besaideko bazkide eta ikasleak direnek bost euro eta bazkide ez direnek, azkenik, hamar euro.

Aterpetxea erreserbatzeko, martitzen eta eguaztenetan Besaide mendizale elkarteak Garibai kaleko 3. zenbakian

duen egoitzara agertu behar da, 19:30etik 20:30erako ordu tartean. Giltza eskatu eta unean bertan ordaintzearekin nahikoa izango da.

Aterpetxea, paraje ederrean

Leixargarateko aterpetxea Aizkorriko parke naturaleko inguru paregabean dago, Alabita aldamenean, hain zuzen ere. Bertako pagadiez gozatzeko aukera dago, eta baita mendi ibilaldi ederrak egiteko ere. Degurixako zelaia eskua-eskura geratzen dira. Eta mendi itzuli ederra eginez, Kur-

tzebarri, Atxorrotz eta Elgeako inguruak eta, urrunago, Urbia-Aitzgorri ingurua bertatik bertara ezagutzeko aukera ematen du. Esandako moduan, Leixargarateko aterpetxea Besaideko bazkideen eskura egoteaz gain, bazkide ez direnek ere erabili ahal izango dute aurrerantzean.

Aterpetxeak 12 pertsonarendako literak, sukalde bat, beheko sua eta komuna ditu, besteak beste. Hau da, egun batzuk pasatzeko oinarritzkoa den guztia dauka aterpetxeak.



Iaz 20. urteurrena ospatu zuten Arrasaten bizi diren extremadurarrak. | UBANE MADERA

Extremadurako etxearen 21. urteurrena ospatuko dute

Corazon de Encina kultur elkarteak egun osoko ospakizun berezia antolatu dute zapatarako

J.B. | ARRASATE

Arrasaten bizi diren extremadurarrak ospakizun berezia egingo dute zapatuan, hilak 19. Corazon

de Encina elkarteak sortu zela 21 urte bete direla ospatuko dute. Lehen zuzendaritza taldea 1991ean osatu zen ofizialki. Egun osorako

egitaraua prestatu dute. 12:00etan, Extremadurako paisaien bideoak jarriko dituzte eta 13:00etan oho-rezko topa egingo dute. Gero, 19:30ean, *Es lo que hay* rumba taldeak eta Javi eta Iker musikariek kontzertua eskainiko dute. 20:30ean elkarteko taldeen esku-tik play-back ikuskizuna egongo da eta 21:30ean bazkideen afaria egingo dute. Amaitzeko, flamenkoa izango da protagonista, Isabel eta *El Rubio*-ren esku-tik.

Biteriko berdeguneetako hesiak eta Markuleteko bidegorria hizpide gaurko gobernu batzarrean

Hainbat gai jorratuko dituzte gaurko Tokiko Gobernu batzarrean. Besteak beste, bizilagunen eskaerari erantzuteko, Biteri plazako berdeguneetako hesiak jartzeko lanak esleituko dituzte. Bestalde, Markuleteko bidegorrian, mendebaldeko saihesbideak eragin dituen seinaleak kentzeko eskaera egingo diote Aldundiari. Izan ere, seinaleok bidegorriko tarte bat oztopatzen dute.



JOSE MARI GANBOA

Goikobaluren ahotsa Burgosen

Azaroaren 6an Burgosko Santa Tekla basilikan izan zen Goikobaluru. Mezan zehar *Aita Gurea* abesteko aukera izan zuten eta meza ostean beste bi kantu abestu zituzten. Jose Mari Ganboa presidentearen arabera, hainbat arrasatear izan ziren emanaldian.

Plan orokor berrirako herritarrei iritzia eskatuko die Udalak

- ▶ Azken plenoan aho batez onartu zen plan berriaren aurrerapena erakustea
- ▶ Erakusketa jarriko dute Kulturaten, abenduaren 16tik otsailaren 5era arte



Otalora lizentziaduna kaleko proiektua erakutsiko da, besteak beste. | J.B.

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE
Arrasateko Hiri Antolamendua-ren Plan Orokorraren (HAPO) aurrerapena prest dago. Hau da, hirigintza plan berriarekin lanean dihardu Hirigintza Sailak. Azkena behin betikoz onartu zenetik zortzi urte pasa dira eta Udalak plana berrikustea erabaki du. Prozesua, baina, luzea izango da. Aurrerapena egin dute dagoeneko eta azken osokoa aho batez onartu zuen udalbatzak zirriborro hori jendaurrean erakustea. Kulturaten erakusketa jarriko dute, abenduaren 16tik otsailaren 5era.

Herritarren proposamenak jaso ostean Plan Orokorra idazteko oinarritzko irizpide eta helburuak zehaztuko dira, gero agiri hori prestatu eta jendau-

rrean erakutsiko dute hilabete batez, eta eskumenak dituzten bestelako administrazioei ere jakinaraziko zaie. Erakusketa-ko emaitzak jasoko dira eta behin behineko onartuko da agiria, dagozkion aldaketekin. Aldaketok egiturazko antolamendua funtsa aldatzen badute Udalak hasierako onespina eman behar dio agiriari eta jendaurreko izapidea irekiko du berriz, beste behin onartu aurretik.

Horren ostean Udalak agiria EAeko Lurraldearen Antolamendurako batzordeari igorriko dio eta batzorde horren txostena loteslea izango da lurralde antolamenduko tresnei, eta Udaz harago dauden proiektuei. Hiru hilabete izango du batzorde horrek txostena egiteko. Eta orduan, aldaketa guztiak egin ostean, Udalak behin betiko Plan Orokorra onartuko du.

Hainbat proiektu jendaurrean

Udalak hainbat lekutan eragina izan dezaketen proiektuak erakutsiko ditu herritarren aurrean: Gesalibar, Atxabalpe, Zalduspe, Kanpanzar, Otalora Lizentziatua, San Viator txiki...

KINTADAK

1936AN JAIOTAKO EMAKUMEAK

Urte horretan jaiotako emakumeek bazkaria egingo dute batzokian, azaroaren 19an.

Joan gura dutenek batzokian bertan eman behar dute izena, aurrez 10 euro ordainduta.

1955EAN JAIOTAKOAK

Azaroaren 26an egingo dute urteroko ospakizuna. Errioxako Briñas herriko upel-tegi batera joango dira San Millar de la Cogolla herrian bazkalduko dute.

Irteera ordua 09:00etan izango da Garibai geltoki ondoan eta 21:00etarako bueltatuko dira Arrasatera. Izena emateko 60 euroko ordainketa egin behar da 3035 0202 79 2021039641 kontu korrante zenbakian.

1960AN JAIOTAKOAK

Zapatu honetan, hilak 19, egingo dute urteroko hitzordua. 3035 0047 10 0470072778 kontu korrantean 60 euroko sarrera egin behar da, izen abizenak kontzeptu moduan jarrita (Bittor 630 018 281 eta Kontxi: 652 762 163).

1973AN JAIOTAKOAK

Abenduaren 3an Sara merenderuen bazkaria egingo dute. Bazkaltzera joateko 14:30ean geratu dira Garibai autobus geltokian.

Izena emateko, azaroaren 24a baino lehen, 45 euroko ordainketa egin behar da 3035 0055 12 0551053221 kontu korrante zenbakian, izena eta abizena kontzeptu moduan jarrita.

Rafa Ruedak azken lana aurkeztuko du eguenean

'Kooltur ostegunak' ekimenaren eskutik, musikari mungiarrek 'Enaren geometria' diskoa ekarriko du

J.B. | ARRASATE

Joan den egueneko Gasteizko Tom Tom Makuts taldearen saioaren ostean Rafa Rueda musikari mungiarra izango da hurrengo gonbidatua *Kooltur ostegunak*

ekimenaren barruan. Ruedak *Enaren geometria* azken diskoa aurkeztuko du eguenean gasteiztean, 22:00etatik aurrera. Ohikoa denez, sarrera bost euro ordaindu behar da.



Rafa Rueda musikaria. | GOIENA

Lan berria, doinu berriak

Habiarra itzuli da Rueda, hegoaldera, kantuen epelera, musikari izateko hautua egin zueneko garaira. PiLT taldean hasi zen jotzen baina azken urteotan bakarka dihardu. 2003an kaleratu zuen *Kea* bakarkako lehen diskoa; *Saredun eskua* bigarrena izan zen eta *Zuhaitz okerretan* hirugarrena. Orain, 11 abestiz osatutako diskoarekin dator. Aurreko hiru diskoetako esperientzia jasotzen du lan berriak, baina aldi berean, doinu berriak ditu.



GOIENA

Zestoan egun pasa ederra 1953an jaiotako arrasatearrek

Urteroko ohiturari eutsiz, 1953an jaiotako arrasatearrek joan den azaroaren 5ean elkartu ziren. Aurten ospakizun berezia Arrasatetik kanpo egitea erabaki dute; Zestoara joan ziren. Arrakasta borobila izan zen deialdia, erantzun ezin hobea izan zuen. Izan ere, 70 lagun inguru elkartu ziren. Jakinarazi dutenez, egun pasa ederra egin zuten.

Arrasateko Otamendirena izan zen buzkantzik onena Zumarragan

J.B. | ARRASATE

Azaroaren 6an egin zen Zumarragako buzkantz lehiaketan, Arrasaten harategia duen Jose Ramon Otamendi harakin ordiarrak irabazi zuen lehen saria: garaikurra, diploma eta 300 euro. Benetako saria, baina, ohorea izan zen: "Benetako saria izan da epaimahaikideendako buzkantzik gustukoena nirea izatea". Otamendik dakiela, buzkantz lehiaketa bakarra da Zumarra-

gako eta "oso pozik eta gustura" dago lehen saria eman ziotelako.

Seigarrenean bai

Otamendiren seigarren aldian izan da aurtengoa Zumarragako lehiaketan, eta lehenengoz irabazi du. Azken orduan eman zuen izena: "Goizean utzi nituen buzkantzak eta eguerdian justu-justu heldu nintzen sari banaketara". Heldu eta irabazi.



Otamendi -bigarrena ezkerretik-, sari banaketa ekitaldian. | GOIERRIKO HITZA



Abenduaren 24an ikusmin handia pizten dute umeen Gabonetako kantuek. | GOIENA

Herriko ikastetxeak elkarrekin abenduaren 24an

Bakoitzak bere ibilbidea egin ondoren, Frontoian eta San Martin plazan batuko dira Aranzadi Ikastola, Mariaren Lagundia eta San Martineko ikasleak

EDU MENDIBIL | BERGARA

Abenduaren 24an kantura ateratzen dira Bergarako hiru ikastetxeak eta aurtengo nobedadeak zera izango da: ikasle denak eguerdi partean batuko direla Frontoian eta San Martin plazan. Ikastetxe bakoitzak bere ibilbide propioa egin ondoren, Haur Hezkuntzakoak Frontoian elkartuko dira eta gauza bera egingo dute Lehen Hezkuntzakoak San Martin plazan. Aranzadi Ikastola, Mariaren Lagundia eta San Martin ikaste-

txeetako ordezkariak Udaleko Gazteria eta Hezkuntza Teknikari Nagore Narbaizarekin hainbat bilera egin dituzte eta aurten, lehenbizikoz, hiru ikastetxeak batzeko akordioa egin dute.

Olentzero eta Mari Domingin

Hiru ikastetxeendako Olentzero eta Mari Domingin bakarria izango da. Txikienek bietako bat izango dute Frontoian zain eta gurasoak umeen kargu egingo dira hantxe. Bien bitartean Olentzerok

edo Mari Dominginek San Martin plazan egingo die harrera Lehen Hezkuntzako neska-mutilei. Ika-le guztiak plazan batzen direnean, ikuskizuna eskainiko dute Olentzerok eta Mari Dominginek.

Egun horretan txikienek, *Olentzero*, *Alaken*, *Elurra teilatuan*, *Din dan don* eta *Bizar Zuri* abestuko dituzte. Lehen Hezkuntzakoek, aldiz, *Horra Mari Domingin*, *Hator*, *hator* edota *Gauko izar* prestatu beharko dituzte abenduaren 24rako.

Autobusa kantu txapelketako finalera joateko

E.M. | BERGARA

Bergarako Nau taldea (Maitane, Garazi, Olatz, Miren eta Markel) eta Sara Manzano bakarlarria Gipuzkoako kantu txapelketako finalean lehiatuko dira datorren azaroaren 27an, Donostiako Principal antzokian. Finala ikustera joateko autobusa antolatu du Musika Eskolak. Autobusa 15:00etan aterako da bus geltokitik. Izen-ematea Musika Eskolako idazkaritzan egin daiteke azaroaren 22a baino lehen. Edozein argibidetarako 943 76 57 80 telefono zenbakira jo dezakezue.

Izen-ematea hilaren 22ra arte

Bi talde, sei bikote eta bederatzigarren bakarlarria lehiatuko dira Donostiako finalean. Tartean izango dira Arrasateko Maialen Arratibelek eta Eneritz Urrutiak osatutako bikotea eta Josu Zubia bakarlarria oñatiarra.

Euskal kantarien harrobi berria lantzea da txapelketaren helburu nagusietako bat. Aurtengoa Gipuzkoako Euskal Kantu Txapelketaren 15. ekitaldia da. Finalaren aurretik bi saio jokatu ziren; lehenbizikoz, Lezon, 16 abesti izan ziren lehian. Bigarrena Bergarako Zabalotegiko aretoan izan zen joan den urriaren 23an eta 22 abesti aurkeztu ziren orduan.

Esan bezala, finalerako autobusa antolatu du Musika Eskolak eta musikazale guztiak gonbidatu nahi dituzte. Izen-ematea Musika Eskolako idazkaritzan egin daiteke azaroaren 22a baino lehen. Argibideak 943 76 57 80 telefono zenbakian.

El Salvadorreko kalteei aurre egiteko laguntza eske

El Salvadorren kalte ugari jaso dituzte azken asteotako euri jasak eraginda. Mikel Andueza apaiz bergararra El Salvadorren dabil aspaldi eta laguntza jasotzeko Oscar Romero Solidaritate Batzordeak hiru kontu ireki dituela gogoratu nahi izan digu: Kutxan (2101 0001 14 0004048278); Euskadiko Kutxan (3035 0059 81 0590021346); eta Banco Sabadell Guipuzcoanon (0042 4161 31 0001037408).

Ekonomia jardueren gaineko zerga, azaroaren 18ra arte

Ekonomia jardueren gaineko zergaren erreziboak ordaintzeko borondatezko epea azaroaren 18ra arte dago zabalik. Udalak jakitera eman duenez, data horren ondoren errekar-guaz kobratuko dute. Edozein argibidetarako udaletxera edo 943 77 91 64 telefono zenbakira jo dezakezue.

Haurrendako zine emanaldia domekan Osintxun

Osintxuko *Gaztañatan azaroa* egitarauaren barruan, domekan, hilaren 20an, gaztetxoei zuzendutako zine emanaldia izango da ludotekan, 17:00etan. Azaroaren 21ean, berriz, Animen Eguna ospatuko dute Osintxun eta gaztañak eta sagardoa dastatzeko aukera izango da auzoko plazan, 19:00etan hasita.

Keinuen hizkuntzari buruzko ikastaroak urtarriletik

Aransgik, Gipuzkoako pertsona gorren familien elkarrekin, keinuen hizkuntza ikasteko ikastaroak antolatu ditu. Gorrekin komunikazioa hobetu nahi duten debagoiendar guztiei daude zuzenduta. Has tapen zein sakontze mailak izango dira, urtarriletik maiatzera. Ikastaroak 30 ordukoak izango dira Argibide gehiago Aransgiko egoitzan, Boni Laskurain pasealekuan, edo 943 76 27 03 telefonoan.

Santa Zezilia Eguna ospatuko dute Musika Eskolakoek eguenean

Eguenean, hilaren 17an, ospatuko dute musikariaren zaindariaren eguna. Gazte Banderekin batera San Martin plazara kalejiran joango dira eta trikitalariak ere aterako dira kalera. Jarraian hasiberrien abesbatzakoek eta txistu taldeak emanaldia egingo dute plazan eta bukatzeko, txokolate jana izango da.

Juan Martin Elexpururen hitzaldia gaur Irizar jauregian

- ▶ 'Zer gertatzen da Iruña-Veleian?' hitzaldia egingo du idazle bergararrak
- ▶ Iruña-Veleiako ostrakak benetakoak direla defenditzen du Elexpuruk

E.M. | BERGARA

Jardun euskara elkarteak antolatuta, Juan Martin Elexpuruk *Zer gertatzen da Iruña-Veleian?* hitzaldia egingo du gaur, astelehena, Irizar jauregian, 19:00etan. Euskal filologian doktorea, gertutik ezagutzen du gaia idazle bergararrak.

Aspaldian zalaparta handia sortu da Iruña-Veleiako idazkunen inguruan. Adituen batzordeak erabaki zuen aurkikuntzak faltsuak direla, baina harrezkero kontu

hori argitu gabe dagoela eta argitzeko eskatzen dutenen ahotsa (Elexpururena tartean) sendo entzun da. Elexpuruk banan-banan aztertu ditu Iruña-Veleiako ostrakak hizkuntzalaritzaren ikuspuntutik, eta benetakoak izateko itxura guztia dutela dio.


Dagoeneko hiru urte bete dira Iruña-Veleiako auzia lehertu zenetik eta oraindik ere ez dela faltsutzailearen arrasto txikiarik ere aurkitu salatu du Juan Martin Elexpuruk. Gaurko hitzaldian

auzi honen gaineko bere ikuspuntua azalduko du.

Liburu bilketa Jardunen

Bestalde, Jardunek euskarazko liburuen truke azoka antolatu du azaroaren 25ean eta 26an, San Martin plazan. Azokarako liburu bilketa hilaren 24ra arte egingo dute Jardunen, kultura etxean, aste barruan 9:00etatik 13:00etara 15:00etatik 19:00ak arte.

Eramandako liburu bakoitzeko txartel bat emango zaie



Juan Martin Elexpuru.

partaideei. Ondoren, txartel bakoitza sailkapen bereko edozein libururengatik trukatu ahal izango da azaroaren 25eko eta 26ko azokan. Argibide gehiago Jarduneko bulegoan edo 943 76 36 61 telefono zenbakian jaso ditzakezue.

Petti musikari nafarra, Txapa Irratiaren denboraldi hasieran

Txapa Irratiak denboraldi berriaren programazio aurkezpena egingo du egubakoitz arratsaldean, 19:30ean; ondoren kontzertua izango da

EDU MENDIBIL | BERGARA

Txapa Irratiak denboraldi berriaren programazio aurkezpena egingo du egubakoitz arratsaldean, 19:30ean, eta aurkezpenaren ostean Petti bakarlariak emanaldia egingo du gaztetxean. Berako musikaria hainbat aldiz jo izandakoa da Bergaran eta egubakoitzean...

Gaztetxera gerturatzerik ez dutenek kontzertua zuzenean irratarik jarraitzeko aukera izango dute. Ohikoa bihurtzen ari den bezala, Txapa Irratian, FM 97.25ean entzun ahal izango da kontzertua. Era berean Internen ere izango da entzungai, www.txapairratia.org/ webgunean.

Kantatzeko modu berezia

Dagoeneko aurkezpenik behar ez duen artista bilakatu da Petti. Existenzialismotik abiatuta, zirra sortarazten duten kantu ederren egilea dugu eta, beste batzuen artean, Billy Bragg, Tim Buckley edo Nick Drake aipatu dira berarengan eragina izan duten artistei dagokienez, baita Nick Cave edo Tom Waits ezagunak ere. Zera dio Euskal Herriko kritikak: gure eszenan guztiz originala dela Beraoak duen kantatzeko zein gitarra zarrastatzeko moduak. Aurten bera izan da Caneseko Midem musika merkatu ezagunera gonbidatu zuten estatuko artista bakarra. Era berean, nazioarteko hainbat artistarekin kolaboratu izan du eta iaz, esaterako, Barrence Whitfieldekin hainbat emanaldi egin zituen Euskal Herrian.

Pete Ross australiarra

Azaroaren 18ko Pettiren hitzorduaz gain, azarorako beste hainbat



Petti nafarra, kontzertu baten. | GOIENA

hitzordu iragarri ditu Txapa Irratiak. Azaroaren 21ean, esaterako, Pete Ross australiarra izango da Bergaran. Ez da ohikoa astelehen baten kontzertua izatea gaztetxean, baina Ross Euskal Herrian dabilela aprobetxatuta, Bergaran ere geldialdia egingo du. 2001 eta 2004. urteetan Australia eta AEBetatik barrena Dan Broadie eta The Bro-

ken Arrows taldeekin gitarra jotzaile moduan aritu zen Ross. The Paesanos taldearekin grabatu zuen azken diskoa, baina gaztetxera bakarrik etorriko da.

Rafa Rueda, abenduaren 16an

Abendurako, berriz, beste bi kontzertu iragarri dituzte: hilaren 10ean Cobra eta Eikostate taldeak

izango dira gaztetxean eta abenduaren 16an Rafa Rueda eta Andra kan izango dira gonbidatuak.

Ruedak diskoa argitaratu berri du, *Enaren geometria* izenburupean. Kritikaren arabera, mungiarren azken lana aurrekoak baino pop-rock akustikoagoa dauka. Hamaika abestik osatzen dute *Enaren geometria*.

OHARRAK

1934AN JAIOTAKOEN BAZKARIA ZAPATUAN

1934koen bazkaria azaroaren 19an Errekin. Frontoian batuko dira, 14:00etan. Izen-ematea (12 euro) Errekin.

1948AN JAIOTAKOEN AFARIA HILAREN 19AN

1948an jaiotako afaria azaroaren 19an Zabalan. Frontotik autobusa aterako da 21:00etan. Izen-ematea (55 euro) Euskadiko Kutxan.

1991KO BERGARARRAK BATUKO DIRA ZAPATUAN

1991koen afaria azaroaren 19an Tartufon. Izen-ematea Euskadiko Kutxan.

1953AN JAIOTAKOEN AFARIA AZAROAREN 19AN

1953koen afaria eta dantzaldia azaroaren 19an Txarrantxa jatetxean. Izen-ematea (15 euro) Txarrantxan edo ONCEko kioskoan (Tasio), azaroaren 17a baino lehen.

1945EKOAK HILAREN 25EAN BATUKO DIRA

1945eko afaria azaroaren 26an Azpeitxi jatetxean. Izen-ematea Azpeitxin bertan, 25 euro aurreratuta.

1939AN JAIOTAKOEN BAZKARIA HILAREN 26AN

1939an jaiotako bergarrek bazkaria egingo dute azaroaren 26an Pertxa elkartearen, 14:30ean. Aurretik Frontoian batuko dira, 13:00etan. Izen-ematea ondo telefono zenbakietan: 943 76 24 79 (Eulali Elgarresta) edo 943 76 28 58 (Pello Garitano).

1966KOEN HITZORDUA, AZAROAREN 26AN

1966an jaiotako bergarrek afaria egingo dute azaroaren 26an. Batzokian afalduko dute, 22:00etan. Halere, 19:30ean elkartuko dira Ariznoa tabernan. Izen-ematea Ariznoa tabernan, azaroaren 7tik 24ra. 10 euro ordaindu behar dira fidantza moduan.

SAN JOXEPEKOAK, LIZARRARA HILAREN 24AN

Azaroaren 24an Lizarrara joateko irteera antolatu dute erretiratuek. Egun osoko irteera izango da eta autobusa 08:30ean aterako da bus geltokitik. Lizarran bisita gidatua egin ondoren, Irache Hotelean bazkalduko dute. Izen-ematea eta argibideak erretiratuetan, 943 76 21 40.

POL-POLEKO BETERANOEN IRTEERA DOMEKAN

Pol-Pol Mendizale taldeko betaranoek, urteko azken irteera egingo dute Balmasedako Kolutza mendira, hilaren 20an. Irteera egun guztirako izango da. Ibilaldia goizerako da, eta, ondoren, Karrantzako El Cartero erretegian bazkalduko dute. Txartelak Pol-Poleko bulegoan, Oxirondo azokan.

Sarasuaren zubiak eta bideak

Jardunen eskutik, Jon Sarasua ezagunak hitzaldia egin zuen eguaztenean Irizarren. *Hizkuntza, bideak eta zubiak* izenburupean, munduko hizkuntza gutxituen erronkak eta eta euskararen berreskurapenaren inguruko gakoak azaldu zituen Sarasuak. Jende gehiegi ez zen egon, baina hitzaldira joan zirenak gustura geratu ziren.



JARDUN ELKARTEA



Ikusi Makusi antzerki taldeko kideak, Santa Anan egindako entsegu bateko atsedenean. | MIREIA BIKUÑA

Ikusi Makusikoen antzezlan berria erretiratuen kultura astean

- ▶ 'Halako bizilagunetatik, libra gaitzazu Jauna' da lanaren izenburua
- ▶ Gaurtik egubakoitzera arte kultura astea ospatuko dute Pake Lekun

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Pake Leku erretiratuen elkartean jai giroan egongo dira gaurtik egubakoitzera arte: kultura astea ospatuko dute. Egunero ekitaldi bat izango dute, baina aipagarriena egubakoitzeko antzerki emanaldia izango da. Ikusi Makusikoen *Halako bizilagunetatik, libra gaitzazu Jauna* antzezlan estreinatuko dute: Santa Ana antzokian izango da, 17:30ean. Bada, estreinako emanaldia erretiratuendako bakarrik izango da.

Bebarru bateko bizilagunak
Axun Artzuagak idatzi du antzezlan berria eta atezaina kontratzen duen bebarru bateko

bizilagunen arteko gorabeherak kontatzen ditu. Erretiratuak gustura egingo dute barre.

Abenduan beste emanaldi bat egingo dute Oñatin eta ondoren, beste hainbat herritan: Arrasaten, Bergaran, Antzuolan, Gernikan, Eibarren eta Otxarkoagan, besteak beste.

Irteera, bingo berezia...

Pake Lekuko kultura astea gaur hasiko dute Aloña abesbatzak agustindarren elizan egingo duen kontzertuarekin (18:00).

Bihar, Jose Antonio Azpiak hitzaldia egingo du. *Antzina eta gaur egungo ezkontzak* delako gaiaren gainean egingo

du berba erretiratuen elkartean, 17:00etan. Eguaztenean irteera egingo dute Errioxara eta eguean bingo jokoa egingo dute, 17:00etan. Asteroko hitzordua da erretiratuendako, baina aste honetan sari bereziak egongo dira bingoan.

Ospakizunak egoltzan

Erretiratuen antzera, San Martin egoitzan ere ekintzak dituzte astean: Aste Nagusia ospatuko dute gaurtik zapatara arte zaharren egoitzako egoiliarrek. Musika eskolako piano, biolin, gitarra eta akordeoi taldeek kontzertua egingo dute gaur, 18:00etan. Bihar, bola-joko txapelketa egingo dute, 16:30ean, eta 17:30ean bertso eskolako emanaldia egingo dute. Eguna bukatzeko, gaztaina-erre jana egingo dute egoiliarrek, haien familiakoek eta langileek.

Eguaztenean Oñati abesbatzak kontzertua egingo du 19:00etan. Eguenean bi ekitaldi egingo dituzte: 10:30ean bingo berezia eta 18:30ean Oñatz taldearen saioa.

Azkenik, zapatuan egun handia ospatuko dute. 13:00etan meza izango dute parrokiako koruaren laguntzarekin eta ondoren bazkaria egingo dute. Egoiliar bakoitzak bi senideren laguntza izango du bazkarian.

Azkenik, zapatuan egun handia ospatuko dute. 13:00etan meza izango dute parrokiako koruaren laguntzarekin eta ondoren bazkaria egingo dute. Egoiliar bakoitzak bi senideren laguntza izango du bazkarian.

Mendia eta Natura argazki lehiaketako izen-ematea zabalik

VIII. Mendia eta Natura argazki lehiaketako lanak hilaren 20a baino lehen entregatu behar dira. Interesatuak www.concursosdigitales.com atarian eman behar dute izena. Epaimahaiak 44 lan aukeratuko ditu eta horien artean argazki onenak. Guztira, 1.400 euro banatuko dituzte saritan. Abenduaren 9an jakinaraziko dituzte irabazleak.

Zero Zabor taldearen ikastaro-tailerra eguaztenean

Oñatiko Zero Zabor taldeak hainbat ikastaro-tailer egingo ditu aurrerantzean: *Economía circular* hilaren 16an (18:30) eta *Consumo en la era capitalista, Principios de Sostenibilidad* eta *Libre comercio y sostenibilidad* aurrerago. Roberto Bermejo ekonomialariaren liburu batzuen pasarte batzuk ozen irakurri eta hausnarke-ta egingo dute.

Argentinarako materiala batuko du Ulma abendura arte

Ulma taldeak II. elkartasun azoka dauka martxan. Abenduaren 12ra arte arropak eta eskolarako materiala utz daitezke Ulma taldeko zerbitzu zentraletan, 08:30etik 13:00etara eta 14:00etatik 17:30era. Euren asmoa da 26 kaxa material betetzeko. Hain zuzen ere, Hermansoloña GKEk materiala jaso eta Argentinara bidaliko du.

Alex Txikonek hasiko du Aloñaren mendi hamabostaldia bihar

Aloña Mendi elkartaren mendi hamabostaldia bihar hasiko du Alex Txikonek kultura etxean: 19:30ean, *Makaluko ertza eta GI neguan* ikus-entzunezkoa eskainiko du. Eguaztenean Fidel Mendiaren txanda izango da; muturreko eskiaren gainean egingo du berba (19:30). Azkenik, zineklubean, *127 horas* filma eman-go dute eguenean.

Xake txapelketarako izena emateko epea zabalik gaztelekuan

Hilaren 19an jokatu dute XVII. xake txapelketa gaztelekuan. Izena emateko epea zabalik dute: 943 71 82 57 telefonoan edo gazteinformazioa@oinati.net helbidean. Era azkarrean jokatu dute, suitzar erara eta sei itzultitara. Guztira, 1.035 euro banatuko dituzte saritan. Era berean, herriko jokalaririk onenak sari-tuko dituzte.

Txurro-denda hilabetez egongo da Herriko Plazan

Ezustekoa izan dute oñatiarrek astean: Herriko Plazan txurro-denda ipini dute. Hilabeterako baimena eskatu du ugazabak. Lehen aldia da herriko jaiak ospatzen ez diren egunetan txurro-denda plazan ipintzen dutena —orain arte, Corpusetan eta San Migeletan ipini dute, barraken gunean—. Pago Uso elkartearen aurrean dago.



MIREIA BIKUÑA



Eguenean, San Martin bezperan, eskolako haurrek gaztaina erreak jateko aukera izan zuten. | SAN MARTIN ESKOLA

ARAMAIO

Haur, gazte zein heldu, San Martin eguna giro ederrean ospatu zuten aramaioarrek

Eguenean, bezperan, ospakizun berezia egin zuten eskolako haurrek; egubakoitzean, partxisak eta trikiti doinuek hartu zuten protagonismoa



Igotz Mateo, Julen Errasti, Even Steven eta laugarren finalista. | TXIRRITOLA



Trikitixa taldekoak egubakoitz iluntzean, goiko kaleak alaitzen. | JOKIN BEREZIARTUA

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

San Martin eguneko ospakizunak egunean hasi ziren San Martin eskolan. Eskolako haurrek, patioan abestu eta dantzatzeaz gain, irrintzi lehiaketa egin zuten. Azkenik, gaztaina erreak dastatzeko aukera izan zuten haur, guraso zein irakasleek.

Hala ere, egubakoitza izan zen egun handia. 16:30etik aurrera Txirritola elkateak partxisa eraman zuen pleno aretara. Hamar urte bete ditu arden Txirripartxisa-k. 14 urtera arteko 31 haurrek eta 15 urtetik aurrerako 12 helduk hartu zuten parte. Haurren artean Igotz Mateo, Julen Errasti eta Even Steven izan ziren irabazleak eta helduen artean, berriz, Mikel Ruiz de Azua, Amaia Lopez de Bergara eta Alex Mendikute. Postuen arabera diru kopuru ezberdina jaso zuten, Elkar dendetan euskarazko materialarekin trukatzeko. Gero, 18:00ak pasatxo zirenean, Trikitixa taldekoek kalejira egin zuten plaza goiko kaleetara. Amaitzeko, trikitilarietara esker, udal txeko arkupean buzkantza, txorixo eta ardoa dastatzeko aukera izan zen.

ELGETA

Garraio zerbitzua eta ludoteka-gaztelekua babesteko eskaera

Bi lehentasun horiek kontuan hartzeko eskatzen dio Elgetako Udalak Foru Aldundiari

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Aldundiaren 2012ko aurrekontu zirriborroa azaltzeko, ahaldu nagusi Martin Garitano eguztenean, hilak 16, batuko da Arrasaten debagoiendarrekin. Larraitz Ugarte Mugikortasun eta Bide Azpiegiturako diputatuak aurreratu du Elgetako saihesbidea, oraingoan, atzeratu egingo dutela. "Egoera ekonomikoa ikusita, lehentasunak finkatu behar izan ditugu eta iruditzen zaigu Elgetako saihesbidea, une honetan, ez dela lehentasun bat".

Elgetako Udalaren premiak

Elgetako alkate Oxel Erostarberi lehentasunen inguruan galduta, bi premia garrantzitsu

nabarmendu ditu: garraio zerbitzu publikoa eta ludoteka-gazteleku zerbitzua. "Uste dugu gurea bezalako herrietako bizilagunei garraio publiko zerbitzu egokia eman behar diela Foru Aldundiak, eta adostasun batera iritsi ginen aurreko Foru Aldundiarekin. Espero dugu gobernu aldaketak ez eragitea bi urteren ostean lortutako adostasunean. Nerabe eta haurren zerbitzuetan ere ezinbestekoa dugu Foru Aldundiaren laguntza. 2009an 18.000 euro, 2010ean 9.000 euro eta aurten 3.000 euroko laguntza jaso dugu. Aldundiak 2009ko konpromisoari heldu behar die berriz; bestela, ezinezkoa izango da zerbitzua dagoenetan mantentzea".



Bilbo eta Donostia batzen dituen autobusa, Elgetan. | L.Z.

LEINTZ GATZAGA

Gatz museoa eta Jakion ezagutzeko aukera

Mankomunitateak antolatutako IX. Jardunaldi Gastronomikoen barruko bisiten artean daude

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Joan den astean jarri zituen abian Debagoieneko Mankomunitateak IX. Jardunaldi Gastronomikoa, eta abenduaren 11 artean hainbat ekimen egingo dituzte. Horien artean, Gatzagara antolatutako bisitak daude, gatz museoa eta Jakion kontserbagintza enpresa ezagutzeko aukera, hain zuzen.

Iturriko gatz mahaian gozo leloa duen bisita barruan sartzen da barazki eta fruta kontserbagintza enpresa ikusi eta bertako produktuak dastatzea. Ondoren gatz museoa erakusten dute, eta sasoi baten Gatzagan egondako gatz ekoizpenaren berri eman. Bisita horiek egunero eskaintzen dituzte –prezioa, 4 euro–, baina hitzordua aurrez egin behar da Mankomunitatean –943 71 89 11 edo turismo@debagoiena.net.

Gatz museoa aste bukaeratan ere bisita daiteke. Zapatu, domeka eta jaiegunetako orduetgia hauxe da: 12:00etan euskaraz eta 13:00etan gaztelaniaz. Atzo, San Milixan eguna, ostera, ate irekiak egin zituzten museoan, eta gatzarekin hainbat ekintza, artisau feriarat etorritako guztiek ezagutzeko aukera izan zezaten.

Herriko altxorrek ezagutu

Gatzagak, gainera, beste altxor batzuk ditu: Erdi Aroko gunea –eraikin dotoreak, harresia, kale estuak...–; Dorletako santutegia –txirringularien zaindaria den Ama Birjinaren ermita– eta mendi ibilaldiak. Horiek guztiak ezagutzeko Gatzagako Turismo Bulegora deitu behar da –665 73 95 50– edo labidea1@euskalerrria.org helbidera idatzi.



ANTZUOLA

ERRETIRATUEN ELKARTEA

Iruña ezagutzen erretiratuak

Joan den hilean kultura astea antolatu zuten herriko erretiratuak: Virginia Imazen *klown* ikuskizuna, entzumenaren gaineko hitzaldia, merienda eta Iruñera irteera egin zituzten. Iruñeko irteerara 60 bat lagun joan ziren. Goizean Nafarroako hiriburuko leku esanguratsuenak bisitatu zituzten eta jatetxe batean bazkaldu ostean arratsaldea libre izan zuten, bakoitzak nahi zituen txokoak bisitatu ahal izateko. Erretiratuak egingo duten hurrengo ekintza Gaztainerre eguna izango da, azaroaren 27an.



*Eraman dotoretasuna
zure etxera*



gelatzu s.l.

Zubillaga auzoa 1
OÑATI
Tel.: 943 71 63 22
Faxa: 943 78 15 51

KIROLA

BEHOBIA-DONOSTIA

Behobia gogorrenari aurre eginez, 515 debagoiendar helmugan

- ▶ Ritxar Fernandez eta Kristina Goirizelaia izan dira ibarreko azkarrenak
- ▶ Hego haizeak guztiz baldintzatu zuen 47. Behobia-Donostia
- ▶ Milaw (1.02.17) eta Gebre errekorrekin (1.08.07), txapeldun

M.BIKUÑA/L.KORTABARRIA | ARRASATE
Irteera hartu zuen 19.877 korrikalariak baino protagonismo handiagoa izan zuen atzo beroak 47. Behobia-Donostian. Hego haizeak gogor astindu zuen kostaldean, eta goitik behera baldintzatu zuen lasterketa. Helmugan, denborak baino, beste batzuk ziren protagonistak: lipotimiak, korrikalariak botaka egiten, zorbioak, nekea... Proba hasi aurretik hidratatzea oso inportantea zela esan zuten antolatzaileek.

Zailtasunak zailtasun, 515 debagoiendarrek bukatu zuten proba. Horietan azkarrenak Ritxar Fernandez oñatiarra (1h 07min 40s) eta Kristina Goirizelaia arrasatearra (1h 19min 21s) izan ziren.

Plusmarka berria

Sailkapen orokorrari dagokionez, azken urteotako irabazle izan diren Rafa Iglesias eta Txema Martinezen faltan, Etiopiara joan dira gizonen eta emakumezkoen sari nagusiak. Rafa Iglesias eta Txema

Martinez plusmarka bat ezarri du emakumezko azkarrenak, Tirhas Gebre-k: ordu bat, 8 minutu eta 7 segundo behar izan zituen 20 kilometroak egiteko. Iaz, 30 segundo gehiagorekin bete zuen maratoi erdia, baina taldetik kanpo irten zuen eta bere kronoa ez zen ofiziala izan. Aurten kendu du arantza hori, eta 1998an Rocio Rios lasterkariak egin zuen marka (1h 08min 54s) hobetu egin du. Gipuzkoan udazkenean egin dituen proba guztiak irabazi ditu 21 urteko korrikalari etiopiarrek.

Helmugan azkarrena Abraham Milaw izan zen (1h 02min 57s). Alberto Juzdadok 1996an egin zuen plusmarka (59min 19s) urratu barik geratu da beste behin, hortaz.

Gipuzkoarrek lasterketa ona egin dute: gizonen artean, Jon Arozena eta Asier Cuevas 5. eta 6. ailegatu dira, hurrenez hurren. Arozenak 1h 04min baino gutxiago egitea lortu du, eta Cuevasek 1h 04min 13s-ko denborarekin bukatu du. Kilometro bat falta zitzaionean,

emakume bat gurutzatu zaio eta zertxobait gelditu behar izan du martxa Cuevasek. Emakumezkoetan, Claudia Behobide hirugarren ailegatu da (1h 14min 22s), eta Milder Gaztañaga bosgarren izan da (1h 17min 18s).

Lehenengo bostekoa Akebom Hadush-ek (1h 03min 11s), Alejandro Martinezek (1h 03min 33s) eta Jaume Leivak (1h 03min 48s) osatu dute, gizonetan, eta Hiwet Kashuk (1h 13min 23s) eta Pilar Fernandezek (1h 15min 26s), emakumeetan.

Lehiarik gabe

Behobia-Donostiaren 47. edizio honetako berezitasunak bi izan dira: batetik, eguraldia; egun beroa izan da, zertxobait haizetsua ere bai. Eta, bestetik, partehartzea: inoiz baino atleta gehiagok eman zuten izena (23.400 izan ziren) eta inoiz baino gehiagok hasi zuten lasterketa (19.877).

Zirrara handiena lehenengo lau gizonen artean ipini dute. Milawk ihes egin zuen, baina Lezon harpatu zuten –berak horretarako

bidea emanda– Habush etiopiarrek, Martinez leondarrek eta Leiva katalanak.

Zenbait kilometro batera jarraitu zuten laurek. Leiva geratu zen atzean lehenengo. Pasaiko portuan, Milawk eritimo bizia inposatu zuen, lehiarik gabe helmugara lehenengo ailegatu arte. Handik 14 segundora sartu zen Habush.



Richar Fernandez oñatiarra izan zen Debagoieneko azkarrena; irudian, helmugara heltzen. | JOSETXO ARANTZABAL



JON ANDER EGAÑA
BERGARA

"Eguraldi ona egin du, eta gustura ibili naiz. Patinetan kilometroak motzagoak egiten dira. Aldapa gora indarrak neurtzen ibili gara, eta aldapa behera, abiadurarekin, azkarrago ibili gara. Hanka Labanakako zortzi kide etorri gara".



IMANOL MOLINERO
OÑATI

"Leher eginda nago. Gustura egiten dut korrika gaurko moduko eguraldiarekin, baina bakarrik geratu naiz, eta horrela zaila da aurrera egitea. Gerritik behera minduta daukat gorputz osoa. Bero handia egin du".



JABI IBARRA
BERGARA

"1.20.00 azpitik egiteko asmoz etorri naiz, eta, justu-justu, lortu dudala uste dut. Bero handia eta hego haizea egin du. Beste helburua maratoia prestatzea zen. Dena den, neka-neka eginda bukatu dut proba".



MIREN JOSUNE BIKUÑA ETA MARIJE ZUBIZARRETA
OÑATI ETA ESKORIATZA

"Marijerendako laugarren aldia zen, baina neretako lehena, eta egia esan, oso pozik nago. Lasterketa barruko giroa ikaragarria da. Oso urduri nengoen hasieran, eta orain, helmugan, urduri nago oraindik. Elkarrekin egin dugu lasterketa. Ahal genuen guztietan ura edaten eta disfrutatzen. Ze eguraldi nahiago dugun? Ez da erraza. Iazko euria oso txarra da, eta gaurko beroa ere bai. Akaso, tenperatu freskoagoa eta haize bako eguraldia aukeratu genuke".

FUTBOLA | UDAk berdindu Anaitasunaren aurka | 26



IBARREKO AZKARRENAK

GIZONEZKOAK

1. Ritxar Fernandez	01.07.40
2. Yera Varela	01.08.02
3. Asier Urdanpilleta	01.09.34
4. Kepa Varela	01.13.22
5. Imanol Molinero	01.14.11
6. Jose Gabriel Urizar	01.14.32
7. Xabier Elkoro	01.15.08
8. Garikoitz Gartzia	01.15.42
9. Joxu Arana	01.15.58
10. Patxi Gartzia	01.16.42

EMAKUMEZKOAK

1. Kristina Goirizelaia	01:19:21
2. Nere Arregi	01:26:46
3. Oihane Etxebarria	01:30:54
4. Idoia Aranguren	01:34:19
5. Izaskun Gartzia	01:35:25
6. Itziar Aldekoa	01:35:51
7. Lidia Gonzalez	01:36:48
8. Idoia Velez de Mend.	01:37:34
9. Amaia Bernal	01:37:44
10. Maixol Iparragirre	01:39:27

ITURRIA: FORTUNA KIROL ELKARTEA

DATUAK

19.877

KORRIKALARI

Horiek dira 47. Behobia-Donostian parte hartu zutenak. Horietatik 7.823 gipuzkoarra ziren. Guztira, 23.400 lagunek eman zuten izena.

3.000

KORRIKALARI KATALAN

Horiek dira Kataluniatik Behobiara joandako korrikalariak. Helmugan, behin eta berria ematen zituzten korrikalarien denborak katalanez.

120

KORRIKALARI

Horiek izan zuten Gurutz Gorriak atenditu zituen korrikalariak. Gehienak hidratazio faltagatik. Lipotimiak eta beste izan ziren nagusi helmugan.




German Aginagalde, Imanol Lukas, Miren Aginagalde eta Ander Jausoro. | J.A.



Txipak utzi eta domina jaso ondoren, galletak hartu zituzten korrikalariak. | J.A.



Hanka Labankako Egaña. | J.A.



IKER SOLOGAISTOA
OÑATI

"Oso gogorra izan da. Bigarren kilometroan hasi gara ura edaten. Proba hasi aurretik hasi gara ura edaten, baina korrikalari asko ikusi ditut hidratazio faltan. Iaz euria, aurten bero...nik korrika egiteko temperatura freskoa nahiago".



FERNANDO RODRIGUEZ
BERGARA

"Bukaera oso gogorra izan da, baina iaz baino hobeto. Iaz euria eta aurten haizea. Nik beroarekin askoz hobeto egiten dut korrika, dena den, bero handia egin du, eta korrikalari askok oso gaizki pasa dute".



IGOR ARRESE
OÑATI

"Nekatuta nago. Bukaera oso gogorra izan da. Bero handia iragarri zuten, baina ez nuen uste horrenbesteko izango zenik. Anoa puntu guztietan geratu naiz ura edatera. Hidratazioa zaindu beharra izan dugu".




IKER ETA GURUTZ LARREA
ANTZUOLA

"Gorputzari buelta eman ezinka gaude. Bero handia egin du eta nekatuta gaude. Proba hasi dugunean denbora bat geneuka buruan, baina kilometroek aurrera egin ahala, erritmoa jaitsi beharra izan dugu. Hustu egin gara, eta proba oso luzea egin zaigu, azken kilometroan noiz sartuko zain egon gara. Iaz euria egin zuen, eta kexatu egin ginen. Gaur, bero egin du eta kexatu egin gara. Gu behintzat, askoz erosoago ibili ginen iaz. Euriarekin hobeto moldatzen gara".



Bergarako Hanka Labanka taldeko kideek helmugan. | JOSETXO ARANTZABAL



Yeraí Varela oñatiarra. | J.A.




Felix Sancho eta Ana Isabel Urmeneta oñatiarrak | JOSETXO ARANTZABAL



Korrikalaria indar barik. | J.A.



Biluzik, fresko-fresko. | J.A.



Urrezkoa izan ote da? | J. ARANTZABAL



Jokin Astigarraga oñatiarra eta Unai Azkarate. | J.A.

IKUSPUNTUA

MIREIA BIKUÑA



Eguraldia ezin da aurreikusi

Hirugarren aldiz egon naiz Bulebarreko helmugan lanean, eta oraingoan ere inbidia eman didate korrikalariak. Euren poza helmugan, euren ospakizunak, euren meritua. Irailetik gogor egin dute lan 20 kilometroak egiteko, eta atzokoa egindako lanaren emaitza izan zen.

Aurretik prestaketa nork bere kontura egiten du. Ondo planifikatuta: entrenamendu egunak eta distantziak, janaria... Baina euren esku ez dagoena eguraldia da: euria, hotza, beroa, haizea... Hori ezin dute aurreikusi.

Hirugarren aldiz egon nintzen atzo Behobian, eta aurretik ez ditut ikusi helmugan ikusitako aurpegiak. Etiopiarrek izan ezik, gainerako korrikalariak estu eta larri heldu ziren: adurra aurpegian, hidratazio falta, izterrek erreta, korrikalariak botaka egiten...

Punta-puntako korrikalari asko ziplo erori ziren helmugan bertan. Gurutze Gorriko lagunek lan estra izan zuten.

Beroak asko gogortu zuen lasterketa, eta korrikalariekin berba egitea ez zen batere erraza izan helmugan. Horregatik guztiagatik, eskerrikasko gurekin berba egin zenuteno: Imanol, Iker, Gurutz, Ana Isabel, Agustin, Pablo, Marije, Jon Ander, Jabi, Josune...

Behobia-Donostia ikusi ondoren, beti izan dut proba egiteko gogoia, baina meniskoak ez dit utziko. Hurrengo urtean lankideak animatuko ditut.



PABLO AREJOLALEIBA OÑATI

"Gorri-gorri heldu naiz helmugara. Berotuta eta nekatuta. Hasi aurretik edan dut ura, proba barruan ere bai, eta orain iturri bat izango banu... Lasterketa ikusteko eguraldi aproposa egin du, baina korrika egiteko, bero larregi".



AGUSTIN OJANGUREN ARAMAIO

"Hanka Labankako azkarrena izan naiz. Lasterketa buru izan diren patinatzaileen erritmoa hartu gura izan dut, baina azkarregi zihozten. Adinak ez du barkatzen, eta gauza handia da lasterketa bukatzea. Pozik nago egindako lanarekin".



ASIER MURGUZUR OÑATI

"Nekatuta nago, eta muskuluak gogortuta dauzkat. Antolatzaileek ura edateko aholkatu digute, eta aholkua bete dugun arren, oso gogorra izan da. Anaiarekin eta lagun batzuekin etorri naiz, baina norbere kontura ibili gara".



JULIO DE LA JARA ETA IMANOL ELORTZA MADRIL ETA ARRASATE

"Taldea irten gara Behobiatik, baina sakabanatu egin gara gero. Poliki-poliki egin dugu. Gure erritmoa, eta ahal genuen guztietan, ura edan dugu. Anoa puntu batzuetan gu pasa garenerako ez zegoen urik. Bero handia egin du eta kilometro askotan hego haizeak aurrez-aurre zigut. Ze denbora egin dugun? Egia esan, halako eguraldiarekin eta hankan min izanda, ez gara erlojuari begira egon. Baina, seguruenik, ez dugu emaitza onik egin. Hurrengoan izan beharko".

Behobia-Donostiako debagoiendarren denborak

ANTZUOLA

796	Ion Aranguren Fernandez	01:21:03
1000	Ion Arregi Retolaza	01:22:26
1165	Aritz Saidi Olaortua	01:23:22
1982	Gurutz Larrea Soraluze	01:26:58
2067	Mikel Montori Zabaleta	01:27:20
2224	Javi Peñalba Caceres	01:27:52
2568	Iker Larrea Soraluze	01:28:59
3159	Gorka Garitano Arregi	01:30:38
3160	Jon Kortabarria Arando	01:30:38
4107	Oscar Velarde Bernal	01:33:10
4120	Xabier Azkarate Egaña	01:33:12
4166	Asier Aranguren Ezkurra	01:33:19
4443	Gorka Manso Igarza	01:34:02
4555	Idoia Aranguren Fernandez	01:34:19
5456	Iker Irizar Izaguirre	01:36:21
6416	Raul Coma Niño	01:38:21
6485	Andoni Garcia Muñoz	01:38:27
6537	Iban Herzog Rodriguez	01:38:33
6957	Luis Franco Fernandez	01:39:27
7370	Ibon Urzelai Madariaga	01:40:18
8808	Luis Herzog Rodriguez	01:43:16
8813	Serafin Tena Leon	01:43:16
8923	Iosu Errasti Jauregi	01:43:31
8924	Izar Urteaga Mendizabal	01:43:31
9336	Andoni Azkargorta Gezalaga	01:44:21
10060	Idoia Larrañaga Kortabarria	01:45:44
10066	Izakun Larrañaga Kortabarria	01:45:45
11929	Josu Asensio Igarza	01:49:54
12406	Patxi Kortabarria Olabarria	01:51:04
16130	David Martin Lucena	02:01:20
16871	Xabier Aranceta Artola	02:04:20
18350	Amalia Cabrera Nuñez	02:12:44
18600	Alberto Cáceres Guillen	02:14:50
18601	Modesto Cáceres Martin	02:14:51

ARAMAIO

2506	Aitor Arana Arexolaleiba	01:28:49
4075	Jonathan Unzalu Rincon	01:33:07
10638	Iñaki Mondragon Azpiazu	01:47:02
13515	Iosu Ibañe Ruiz De Azua	01:53:48
16085	Cesar Azkarate Beitia	02:01:11

ARETXABALETA

265	Garikoitz Garcia Arrieta	01:15:42
1452	Javier Arconada Martinez	01:24:48
1849	Xabier Leceta Garcandia	01:26:24
2447	Sergio Perez Aguilera	01:28:36
2498	Roberto Etxeandía Garziaetxabe	01:28:47
2665	Unai Kerejeta Lopez	01:29:14
2976	Asier Aguirre Larrañaga	01:30:02
3254	Oihane Etxebarria Arana	01:30:54
4379	Igor Aguirre Gabilondo	01:33:52
5044	Izakun Garcia Uralde	01:35:25
5606	Roberto Negro Martinez	01:36:39
7126	Leire Guenetxea Mondragon	01:39:45
7131	Joni Guenetxea Mondragon	01:39:46
7477	Ion Urbe Ocon	01:40:33
8352	Aitor Urbe-Etxebarria Gorostiza	01:42:20
9068	Jon Zubillaga Urzelai	01:43:50
9369	Xabier Gonzalez Pinedo	01:44:24
9840	Ion Urtaza Agirrezabal	01:45:19
9876	Oier Sarasua Marichalar	01:45:23
10064	Rorber Azkarate Zabaló	01:45:45
10172	Kepa Urza Guridi	01:46:01
10327	Mikel Zubizarreta Eraña	01:46:21
10617	Maite Arkauz Arenaza	01:46:58
10729	Fernando Urribesalgo Inurritegi	01:47:12
11803	Oscar Martinez Remedios	01:49:32
12317	Ander Hernandez Akiuz	01:50:50
12547	Imanol Luengo Gabarain	01:51:25
13070	Anabel Aranzadi Martin	01:52:46
13077	Jabi Garcia San Martin	01:52:46
13093	Pedro Azkargorta Belategi	01:52:49
13288	Arrate Arkauz Arenaza	01:53:17
13652	Zuhaitz Errasti	01:54:08
15146	Juan Mari De la Maza Artola	01:58:13
16107	Juan Cruz Urtaza Gamba	02:01:15
16295	Juan Antonio Urbe Uriarte	02:01:57
16475	Mikel Mendiráz Elempuru	02:02:37
17485	Jose Maria Etxebarria Lopez	02:07:20
17504	Andoni Beitia Arrecigor	02:07:24
17746	Unai Beitia Arrecigor	02:08:41
17890	Maidor Urzelai Ugalde	02:09:33
18369	Paki Hernandez Majadas	02:12:53
19359	Antxon Del Rey Galan	02:25:52

ARRASATE

206	Jose Gabriel Urizar Murguioiti	01:14:32
313	Patxi Garcia Oyarzabal	01:16:24
557	Alberto Sanchez Carrasco	01:19:08
580	Kristina Goirizelaia Gonzalez	01:19:21
583	Txus Goikoetxea Garralde	01:19:22
706	Endika Donnay Otegui	01:20:21
755	Eneko Urrizalki Jauregi	01:20:43
787	Juanma Martinez Remedios	01:20:58
1020	Luis Usatorre Aranzabal	01:22:34
1402	Aratz Gomez Larrañaga	01:24:31
1470	Ander Ansoategi Oruna	01:24:51
1505	Jose Ignacio Gaztañaga	01:25:00
1513	Juan Pedro Del Pozo Gonzalez	01:25:02
1669	Angel Delgado Iglesias	01:25:35
1700	Robert Gil	01:25:41
1703	Jurgi Lopez De Arkaute Guridi	01:25:42
1762	Alexander Altuna	01:26:00
1831	Josu Aldea	01:26:20
1930	Nere Arregi	01:26:46
2043	Oskar Zubiaga	01:27:14

2212	Iñigo Labayen Iraeta	01:27:49
2413	David Gomez Davila	01:28:31
2596	Josu Arkauz Arana	01:29:03
2908	Iban Aranguren Zubillaga	01:29:53
2912	Iban Labayen Iraeta	01:29:53
3126	Jon Osinaga Astigarraga	01:30:33
3372	Mario Iglesias Lobato	01:31:14
3485	Eduardo Garcia Zalama	01:31:31
3513	Ander Bereziartua Lizarazu	01:31:35
3643	Iñaki Juez Marina	01:31:57
3766	Aitor Berasaluce Velez De Mendizabal	01:32:21
3934	Ganix Lasa Erle	01:32:44
4001	Javier Ansoategi Etxebarria	01:32:56
4102	Bixente Gonzalez	01:33:09
4247	Ramon Goñi Farrás	01:33:33
4257	Jesus Mari Zabarte	01:33:35
5043	Alberto Romero Vinagre	01:35:25
5083	Kepa Antxia Uribe-Etxebarria	01:35:31
5507	Ekain Garin Ibañe	01:36:27
5764	Aitor Garin Elorza	01:36:59
5983	Marce Mellado Martin	01:37:26
6019	Iñaki Urrutia Garaionandia	01:37:30
6022	Mikel Zubillaga Atxa	01:37:30
6055	Idoia Velez De Mendizabal Azurmendi	01:37:34
6181	Rikardo Zubillaga Atxa	01:37:50
6215	Javier Viguera Vazquez	01:37:55
6411	Ametz Elustondo Astigarraga	01:38:20
6680	Jose Luis Borbolla Jimenez	01:38:51
6823	Premin Sampedro Larrañaga	01:39:10
7082	Aritz Ancin Murguzur	01:39:41
7400	Oxel Azkarate Iturbe	01:40:23
7404	Josu Uribetxebarria Bolinaga	01:40:23
7524	Koldo Balantategi Ezkurra	01:40:40
7708	Mikel Viguera Vazquez	01:41:02
8003	Oier Aliaga Garcia	01:41:39
8471	David Amuchastegui Gonzalez	01:42:36
8983	Jesus Albistur Marin	01:43:39
9215	Iosu Errasti Balanzategui	01:44:07
9251	Mikel Azkargorta Viguera	01:44:11
9378	Josu Urcelay Segura	01:44:25
9411	Juan Ignacio Bolinaga Alegria	01:44:30
9569	Sergio Blazquez Martin	01:44:46
9599	Beñat Olalde Gallastegi	01:44:50
9827	Egoitz Garcia Caciaga	01:45:17
9898	Mikel Arenaza Ocaranza	01:45:25
9958	Laureano Gallardo Bolaños	01:45:32
10181	Maria Jesus Velasco Garcia	01:46:02
10199	Iñaki Jauregi Bidaburu	01:46:03
10218	Iñigo Azkarate Morras	01:46:05
10365	Gorka Egizabal Martinez	01:46:26
10622	Jose Negreira Rodriguez	01:46:59
10689	Javier Reguero Carazo	01:47:08
10766	Xabier Mendialdua Xpe	01:47:17
11017	Manu Remon Sanchez	01:47:53
11150	Ignacio Beltrán De Guevara Berebier	01:48:08
11307	Juan Luis Murgia Uribetxebarria	01:48:29
11312	Kepa Azpitarte Gabilondo	01:48:30
11385	Kike Caballero Sanchez	01:48:40
11575	Juan Manuel Galilea De Miquel	01:49:04
11777	Andoni Ozaeta Mendiaratx	01:49:30
11818	Imanol Elorza Castillo	01:49:35
11912	Angel Iturbe Abasolo	01:49:49
12273	Nekane Irala Reyes	01:50:44
12294	Alex Martiarena Arregui	01:50:46
12601	David Hernandez Serrano	01:51:36
12618	Luis Mari Azkargorta Belategi	01:51:39
12621	Rafa Aranzabal Gisasola	01:51:40
12628	Alicia Carrasco Amado	01:51:41
12631	Jon Iregi Etxebarria	01:51:41
12632	Mikel Benitez Mengual	01:51:41
12635	Alexander Barañano Astigarraga	01:51:41
12865	German Gallastegi Goikolea	01:52:15
13285	Irene Lasaga Arana	01:53:17
13295	Asier Olcoz Jauregialzo	01:53:18
13299	Aitor Arostegi Gallastegi	01:53:18
13441	Rafa Mungia Etxabe	01:53:39
13663	Maialen Aranezi Murua	01:54:09
13664	Aitor Unamuno Garai	01:54:10
13854	Gorka Otxoa Aranzabal	01:54:36
13923	Goizeder Caballero Martinez	01:54:46
13928	Jon Racionero Zabaló	01:54:47
14020	Alazne Ruiz De Munain Ipiña	01:55:03
14321	Onintza Langaran Galdos	01:55:52
14530	Araitx Etxabe Zubizarreta	01:56:28
14755	Ion Ansoategui Mascariño	01:57:05
14768	Jabier Retequi Albisua	01:57:07
14849	Aitor Lezamiz Bolinaga	01:57:21
14854	Maitane Landa Aperiñbiri	01:57:22
14859	Iker Arostegi Gallastegi	01:57:23
14867	Carlos Alonso Rodriguez	01:57:24
15197	Unai Parot Nabarro	01:58:24
15278	Jon Lizaur Beitia	01:58:38
15280	Mikel San Argimiro Isasa	01:58:38
15630	Julen Zabaleta Mendizabal	01:59:42
16317	Jose Jurado Mesa	02:02:01
16618	Josemi Bastardo Juarez	02:03:16
16922	Iker Ibarra Balanzategi	02:04:33
17468	Juan Maria Amilburu Oxinaga	02:07:14
17505	Julian Errarte Amozarrain	02:07:24
17594	Joxe Migel Gaztelu Otxandorena	02:07:51
17597	Juan Angel Arregi	02:07:52
17733	Juan Luis Lasa Sagasta	02:08:35
17749	Idoia Urrutia Herrero	02:08:43
17755	Amalia Urrutia Herrero	02:08:44
18023	Begoña Rodriguez Del Reguero	02:10:29
18247	Alaitz Martinez Mujika	02:11:57
18366	Maitane Ruiz De Munain Ipiña	02:12:50
18395	Yon Ander Korta Leonardo	02:13:02

18707	Terce Garcia Lopez	02:15:48
18709	Maite Asorey Boisa	02:15:48
19120	Saioa Sasiain Guerra	02:21:19
19426	Eneritz Urrutia Tena	02:27:40
19441	Josefina Mugica Elorza	02:28:18
19507	Ainhoa Arstimuño Dominguez	02:31:52

BERGARA

148	Kepa Varela Arregi	01:13:22
240	Xabier Elkoro Fernández	01:15:08
281	Joxu Arana Oregi	01:15:58
326	Iker Herran Hernandez	01:16:35
338	Mikel Mugica Bikuna	01:16:42
448	Iñaki Mujika Goikoetxea	01:18:12
594	Ander Garitano Zuazolacigorraga	01:19:30
659	Jabi Ibarra Moñux	01:19:58
756	Ion Beistegi Etxaniz	01:20:43
1035	Aitor Eraña Arroiabe	01:22:38
1179	Andoni Gomez Gutierrez	01:23:27
1182	Aitor Gartzia Arkauz	01:23:27
1343	Iñigo Pagaldai Urresti	01:24:14
1486	Iñigo Olañeta Elempuru	01:24:58
1525	Fer Rodriguez Cuesta	01:25:20
1814	Ibai Mendia Bilbao	01:26:13
2015	Igor Unzurrunzaga Altube	01:27:07
2301	Manolo Varela Fernández	01:28:11
2462	Josu Lete Aramburu	01:28:38
2632	Martin Egaña Villar	01:29:09
2690	Eneko Lazkano Bikendi	01:29:18
2804	Gorka Erana Atorrasagasti	01:29:35
3100	Oier Loyola Zubia	01:30:28
3512	Jose Javier Zabaleta Pais	01:31:35
3585	Ignacio Puertas Sebal	01:31:49
3775	Marcos Alonso Castellano	01:32:22
4027	Jesus Mari Iglesias Fernandez	01:33:00
4036	Ion Ander Garitano Askazibar	01:33:00
4162	Anselmo Gomez Rodriguez	01:33:19
4376	Txema Aragones Rebollo	01:33:52
4433	Fernando Muruamendiñaz Inarra	01:34:51
4590	Jose Mari Anduaga Elias	01:34:23
4941	Markel Fernandez Belastegi	01:35:10
5031	Urko Irizar Urrutia	01:35:24
5075	Imanol Elkoroerebizar Azkarate	01:35:30
5203	Iker Arazkonaga Sotil	01:35:47
5234	Itziar Aldekoa Urbiet	01:35:51
5237	Jesus M. Labaka Arando	01:35:52
5437	Igor Aguirrezabal Sanmiguel	01:36:19
5462	Gorka Marzan Altube	01:36:21
5481	Ibon Arrieta Urriategi	01:36:23
5534	Eduardo Samaniego Etxeberria	01:36:31
5600	Julian Zangitu Alberdi	01:36:39
5605	Mikel Etxaniz Alberdi	01:36:39
5743	Miguel Angel Moreno Santos	01:36:56
5808	Josu Goitia Zelaia	01:37:04
5981	Rafael Prieto Hernandez	01:37:26
6471	Juan Luis Arriola Lazkano	01:38:27
6474	Miguel Angel Outeirini Vazquez	01:38:27
6554	Peru Azkarate	01:38:36
6574	Daniel Balmori San Gil	01:38:38
7032	Josean Larrion Lopez Dedicastillo	01:39:36
7127	Xabi Eguren Laskurain	01:39:46
7215	Martin Odriozola Gonzalez	01:39:57
7256	Anaitz Egaña Oregi	01:40:03
7384	Carmelo San Torcuato Perez	01:40:20
7481	Ion Zangitu Juaristi	01:40:34
7825	Javier Borobia Martinez	01:41:18
7857	Juan Ignacio Lopez Aramendi	01:41:21
8038	Xabier Sabalza Laskurain	01:41:43
8040	Ekaitz Alkorta Zabaló	01:41:43
8072	Julen Berraondo Laskurain	01:41:46
8349	Jesus Esnaola Loiti B	01:42:19
8423	Agurtzane Lete Larrañaga	01:42:30
8676	Oskar Ortiz Rodriguez	01:42:59
8816	Eneko Gonzalez Valle	01:43:17
8855	Ion Alberdi Garaiondo	01:43:22
8919	Maria Rosa Aguirre Igartua	01:43:30
9277	Eñaut Uriarte Palacio	01:44:15
9516	Aritz Mazkarian Murillo	01:44:41
9570	Arkaitz Errasti Elorza	01:44:47
9604	Sabino Azcarate Leturia	01:44:50
9774	Asier Gartzia Beristain	01:45:10
9789	Jon Marton Otamendi	01:45:12
9829	Rafael Moral Murillo	01:45:18
9851	Xabier Albisua Gallastegi	01:45:20
9878	Patxi Arriola Lazkano	01:45:23
9991	Javier Igartza Perez	01:45:35
10097	Jose Ignacio Balenciaga	01:45:52
10458	Aitor Lete Larrañaga	01:46:38
10934	Jose Ignacio Albisua Iraolagoitia	01:47:40
11053	Saturnino Lopez	01:47:57
11070	Aitor Curado Rodriguez	01:47:58
11072	Manu Curado Rodriguez	01:47:59
11100	Jose Antonio Dorronsoro Agirrezabal	01:48:02
11700	Asier	

FUTBOLA

Hasieratik bukaerara liderra baino gehiago izan arren, UDAk ezin izan zuen lehia irabazi

Kanpokoek 2-0koari buelta eman zioten bigarren zatian; Juanan Cruz, oso pozik taldearen lanarekin

EMAITZA

ARETXABALETA

2-2

ANAITASUNA

JOKIN BEREZIARTUA | ARETXABALETA
Hasieratik bukaerara gehiago izan arren Aretxabaletak ezin izan zuen Anaitasunaren aurkako partidua irabazi. Lider moduan heldu zen atzo talde azkoitiarra Ibarra futbol zelaira, baina Juanan Cruz etxekoen entrenatzailearen arabera, ez zuen liderra zenik erakutsi: "Eurak baino hobeto aritu gara, gaur [atzo] zelaian gu izan gara liderrak".

Oso ondo hasi zen etxeko taldea, zelaian ondo jarrita eta baloiaren jabe. Estu hartu zuten liderra eta atsedendira 2-0koaren heldu ziren aretxabaletarrak.

Penalti bat ere huts egin zuten Cruzen mutilek; eskerrak penalti osteko korner jaurtiketa maisuki errematatu ostean bigarre-na sartu zuela Gilen Marek. Lehena Aitor Perezek egin zuen, baloia atezainaren gainetik loratuz. Haizearen eta atezainaren laguntza izan zuen Perezek baloia sareratzeko.

Etxeko taldeak lehen zatian alde izan zuen haizea eta bigarrean, ordea, kontra.

"Lan zoragarria egin dute"

Bigarren zatian jokoa ez zen larregi aldatu. Bai, aldiz, markagailua. Hirugarren minutuan 2-1ekoa egin zuen Anaitasunak, eta UDAk 3-1ekoa egiteko aukerak izan arren, 2-2koa heldu zen. Aukera apurrak ederto aprobetxatu zituzten kanpokoek.

Emaitza justua izan ez arren, oso pozik zegoen Cruz jokalarien lanarekin: "Partidu ikusgarria



Iker Sanchez aurrelaria, erasoko jokaldi bat antolatu nahian. | JOSETXO ARANTZABAL

egin du taldeak, lan zoragarria. Emaitza ez dator bat egin dugun jokoarekin baina horrela jarraitzen badugu helduko dira, ziur nago". Izan ere, ikusle batek baino gehiagok galdetu zioten entrenatzaileari ea zer egin behar den etxean partidu bat irabazteko.

Anaitasunak talde gogorra eta dituzten aukerak aprobetxatzen aditua dela deritzo Cruzek: "Baloiz luzeak jartzen oso onak dira, gogorrak eta ordenatuak". Atzoko berdinketaren ostean, zortzigarren postuan dago Aretxabaleta, 15 punturekin.

Etxean, Bergarak irabazi eta Mondrak galdu; Aloñak, berriz, kanpoan irabazi

Bergara eta Mondrak etxean jokatu zuten zapatuan. Mahoneroek arazo barik irabazi zuten Behobiaren aurka, 3-0. 14. minutuan kanpokoek atezaina egotzi zuten epaileak Bergarako jokalaria bati penaltia egin ostean. Orduetik aurrera kontrolpean izan zuten lehia etxekoek. Saiklapeneko erdi postuetan daude, 12 punturekin.

Mondrak, bestalde, Pasajesen aurka galdu zuen etxean (0-3). Iban Rodriguez entrenatzailearen arabera, talde hobeak eta bi gol defentsako akatsak izan arren, merezimenduz irabazi zuten kanpokoek. Beheko postuetan daude, 10 punturekin. Aloñak, azkenik, 0-1 irabazi zuen Urolaren aurka. Azken aurrekoak dira Andoni Azkargortaren mutilak, zortzi punturekin.

PILOTA

Aitor Mendizabal | Pilotari profesionala

"Bi aste ditut finalerako eta beraz, badago denbora; dena emango dut irabazteko"

Albisu 13-22 menderatuta, Lau t'erdiko Promozio Txapelketa finalean egongo da, azaroaren 26an

JOKIN BEREZIARTUA | ANTZUOLA
Pozik eta harro egoteko ez zaio arrazoirik falta Aitor Mendizabali. Merezimenduz lortu zuen finalerako txartela egubakoitzean Jon Ander Albisuri irabazi ostean (13-22). Asteburua deskantsatzeko baliatu eta asteon hasiko da hilaren 26ko finala prestatzen. **Hil ala biziko partidua izan zen egubakoitzekoa. Nola bizi izan zenuen norgehiagoka?**

Urduri hasi nintzen, finalera sailkatzeko 17 tanto egin behar nituenez presio handia nuelako. Hala ere, argi nuen hasieratik partidua irabaztera joan behar nintzela. Gainera, aurkariaren herrian jokatzeko nuen, Ataunen, eta hango pilotalekua nahiko zorrotza eta bizia da.

Partiduan sartu nintzenean dena nahiko ondo joan zen: 2-0 galtzen hasi nintzen baina gero buelta eman eta aurretik joan nintzen partidu osoan zehar: 2-6/5-11/10-17/13-22.



Aitor Mendizabal. | ARGAZKI PRESS

Nola eragin zizun aurkariaren etxean jokatzeko?

Pilotalekuko harmailak beteta zeuden, eta giro ederra. Albisuren etxean jokatzeko nuen eta normala denez, gehiengoa haren aldekoa zen. Hala ere, igarri nuen nire jarraitzaileen babesa.

Zein balorazio egiten duzu profesionaletaraz jautzia ematea horrenbeste kostatzen otean, lau hilabetetan

final batera sailkatu izanaz?

Oso pozik eta gustura nago, ez nuen espero. Poliki-poliki hasi nintzen, lehen partidua justu-justu irabazi nuen eta hortik aurrera hobera egin dut.

Azken hiru partidua irabazi egin ditut eta horri esker egongo naiz finalean.

Azken egunotan pilota biziak direla eta keak entzun dira pilotariren baten ahotik. Zure kasuan, kezarik izan al duzu?

Orain arte nahiko pilota onekin jokatu dugu, ez daukat inongo kezarik. Nik aukeratu ditudanak pilota baxuak edo behetik doazenak izan dira orokorrean.

Finala modu berezian prestatuko duzu? Zeintzuk dira dituzun aurreikuspenak?

Aurkaria Lemuno edo Ongay izan, dena emango dut finala irabazteko. Aste bukaera deskantsatzeko hartu dut eta orain, astean zehar, hasiko naiz finalera begirako entrenamenduekin.

Bi aste ditut eta beraz, badao denbora prestatzeko. Non izango den jakin gura dut; ea ahalik eta lasterren esaten diguten, bertan entrenatu ahal izateko.

Zerbait gaineratzerik nahi?

Oso gustura nago egindako lanarekin eta noski, ditudan jarraitzaileekin. Pilotaleku ezberdinetara jarraitu naute, jende asko etorri izan da ni ikustera. Babes hori gertutik igarri dut eta asko eskertzen diet.



SASKIBALOIA

JOSETXO ARANTZABAL

MU nagusi senior mailako derbian

Gipuzkoako senior mailan Debagoieneko derbia Arrasaten geratu zen, MU 80-75 nagusitu zen Soraluze BKEren aurka. Talde bakoitzak zati bana izan zuen: lehena bergarrena izan zen eta bigarrena, berriz, arrasatearra. Hirugarren laurdenean bereziki min handia egin zuen MUK kontraerasoan. 11 punturekin daude bi taldeak, beheko postuetan.

SASKIBALOIA

EBAko bigarren porrota jaso zuen atzo Aloñak Torrelavegan (91-83)

Xabi Igartua entrenatzailearen arabera, irabazteko partidua zen atzokoa: "Defentsan lan eskasa egin dugu, hainbat jokalditan saskiratze errazak utzi ditugu-eta. Aurrealdean ere arinegi lotu ditugu jokaldiak; ez gara batere fin ibili". Erreakzioa beranduegi heldu zen, eta 91-83 galdu zuten.

ESKUBALOIA

Ford Mugarrik irabazi eta Soraluze BKEk galdu, biak kanpoan

Ford Mugarrik sendo jarraitzen du lidergoan (17), atzo Basaurin irabazi ostean (29-33). Partidu ona egin zuten Ane Herroren mutilek, lau minutuko "erlaxazio une" bat izan ezik. Soraluze BKEk, berriz, galdu egin zuen El Pilar taldearen aurka (38-34). Atzean ahul dabilta bergararrak.

DEBAGOIENA EZAGUTZEN



JAKION
www.jakion.es

Jakionek emandako
Produktu sorta*

* 50 eurotan baloratutako sorta.

SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

Seguraski mendizaleek leku hau ondo ezagutzen dute. Zein lekutan aurkitzen gara?

Argazkia eta galdera > Jose Fernandez

PARTE HARTZEKO
Telefonoz: 943 25 05 05
e-postaz: kluba@goiena.com
SMS bidez. Bidali KLUBA ERANTZUNA
[bazkidearen zenbakia] 215800 zkra

Parte-hartzaile guztien artean zozketatuko da.

4 SARRERA

'HOSTOAK' IKUSKIZUNA
ERMUA ANTZOKIA (ERMUA), AZAROAREN 25EAN. 22:15EAN.

BIDALI KLUBA SARRERAK
[BAZKIDEAREN ZENBAKIA] 215800 ZENBAKIRA.



TOPAKIDE TXARTELAREKIN PARTE HARTZEKO
DEITU **943 25 05 05** TELEFONORA.

2011n atera etekina txartelari



GAES ENTZUMEN ZENTROA
Arrasate, 943 71 27 93 / Bergara, 943 76 94 55
■ %10 deskontua (ez metagarria beste eskaintza batzuekin)



MULTIOPTICAS
Arrasate, 943 79 29 95 / Bergara, 943 76 15 75
■ %15 deskontua (ez metagarria beste eskaintza batzuekin)



BEGIONDO OPTIKA
Aretxabaleta, 943 79 98 21
■ -%15 produktu guztietan. Kontsulta doan.

ETA HAUETAN ERE BAI



RENAULT
AUTOBERRI



goienakluba 2011

Tel.: 943 25 05 05 | e-posta: kluba@goiena.com | goienakluba.com
Urteko kuota: 48 €.

goienakluba
Abantailaz betetako kluba!



Helduok gero eta okerrago hitzegiten diegu umeei

Irati Pagoagak uste du askotan eredu okerrak ematen amaitzen dugula

LARRAITZ ZEBERIO | ARRASATE

"Gaur kakotas egin duzu", "Bota niri pelotita", edo "Galletita jango duzu?"... Irati Pagoagak hiru adibide horietatik abiatu du *Guraso.com* atarirako egindako azken hausnarketa. Haurrek hizkuntza erreferentzia egokiak behar dituztela, eta helduak direla eredu gogorazten du. "Hizkuntza eredu desegokia ematen badiegu, nekez sortuko dituzte esaldi egokiak", azaltzen du.

Hizkera geroz eta kaskarragoa
"Ez dago zalantzarik, umeen uler-

men maila edo abstrakzioa ez dago helduon pare, eta horregatik esaldi errazak erabili behar ditugu, baina sinple hitzegiteak ez gaitzala eraman gaizki hitzegitera". Pagoagak euskarak dituen forma jatorrak erabiltzen jarraitzeko eskatzen die gurasoei. Hala, artikulua hasieran emandako adibideetarako ondorengo esaldiak proposatzen ditu; "Gaur kaka pila galanta egin duzu", "Bota niri pelotatxua", "Ni zein naiz, osaba?" eta "Galletatxua jango duzu?" erabiltzeko gomendioa egiten du.

"Pentsa dezagun gure umeei eskaintzen ari garen hizkuntza ereduaz", dio Pagoagak. "Jo dezagun forma errazetara eta gure umetako hiztegiara" proposatzen du.

Lexikoa ere zaindu

Pagoaren esanetan gehiegi nahastu gabe ere ondo hitzegi dezakegu. Esaldi errazak eta laburrak egiteaz gain erabiltzeko lexikoak ere bere garrantzia duela uste du gainera. "Lexikoaren gainean tradizio landua dugu euskaraz, eta mate-



Aita semeak aurrez aurre. | NONO FOTOS

rial asko dago jasota; *Guraso.com*, *Uztarria.com* eta *Erabili.com* atariak aipatu ditu. Ez dago zertan gauza berriak asmatzen ibili. Eredu zuzenak eskaintzea garrantzitsua izango da hiz-

kuntza bera ondo finkatzeko. Eta garbi dago ama hizkuntza ondo finkatzea, gainontzeko hizkuntzak ikasteko berme egokia izango dela", adierazten du.



Nerabea sare sozial batean. | ESCAPEDTOWISCONSIN

Nerabeek ez dute sare sozialetan euskaraz egiten

Topagunea kultur-kabiak eta Soziolinguistika Klusterrak lehen neurketa bat egin dute

L.Z. | ARRASATE

Nerabe euskaldunek ez dute sare sozialetan euskara erabiltzen. Hori da ikerketak utzi duen lehenengo ondorioa. "Sare sozialetan nerabeen artean ematen den erabilera kalekoaren oso antzerakoa da", adierazi du Soziolinguistika Klusterreko Asier Basurtok. Bilbon eta ezagunak zehatz batzuk dituzten gazteekin egin dute neurketa; 12-18 urte bitarteko mila bat gazte, denak euskaldunak eta denak bilbotarrak. "Aztartu dugun taldean euskararen era-

bilera oso-oso txikia izan da. Ia-ia ez dute sare sozialetan euskararik erabiltzen", esan du Basurtok.

Euskarazko hizkerarik ez

"Sare sozialetan laburdura pila ikusten dugu gazteak gaztekeraz ari direnean; SMS hizkera ere sortu dute. Bada, euskaraz ez da horrelakorik ematen", dio Basurtok. Laburtutako esamolde bakarra antzeman dute; 'skerrik' (eskerrik asko). "Gure teoria da euskaraz erabiltzen duten esamolde bakarrenetarikoa izanik

sortu dutela laburdura. Ez da kasualitatea hitz hori izatea".

Harrapazank aisialdi programa baliatu dute ikerketa egiteko; talentu lehiaketa antzerako bat da non parte-hartzaileekin harremanak sare sozialen bidez egiten diren. Mila lagunetik gorako komunitatea zen, eta plataforma horretan zirikatzaile bat sartu dute. "Nerabeek oso gutxi jarraitu dute. Zirikatzailearekin dena euskaraz egin dute, baina beraien artean ia dena erdaraz da. Gure ustea da zirikatzailearekin batera desagertuko dela talde horretan euskararen erabilera".

Nerabeen euskara erabilera maila kezka iturri da aspaldi honetan, eta sare sozialak erabilera hori neurtzeko espazio egokia izan daitezke. Lehen ikerketa hau hasierako gerturatze bat izan dela, eta jarraipena izango duela adierazi du Asier Basurtok.

Bideo-jokoak begi nagia edo anbliopia leuntzeko

L.Z. | ARRASATE

Indiako oftalmologia klinika batean Ghosh doktorearen lantaldeak ondorio deigarria atera ditu berriki egindako esperimendu batean; bideo-jokoak onuragarriak izan daitezke anbliopia arazoak leuntzeko.

10-18 urte bitarteko ehun neska-mutikorekin bi urteko iraupena izan duen esperimendua egin dute. Denekin burutu dute ohiko tratamendua — egunean gutxienez bi orduz ondo ikusten duen begia estaltzea—, baina talde bati bideo-jokoak gehitu dizkiete tratamenduan.

Gazte guztietan eman dira hobekuntzak, baina egunean bideo-joko saio bana egin duten gazteen artean hobekuntza nabariagoa izan da.

Adina ez da beti muga

Orain arte pentsatu izan da adin batetik aurrera anbliopia ez duela tratamendurik; haurra eskolan hasi aurretik hasi behar dela tratatzen eta 10 urtetik aurrera ez dela hobekuntzarik ematen. Ghosh doktoreak Saurav Sen gaztearen kasua ipini du adibide gisa; 13 urterekin hasi zen anbliopia arazoak sumatzen eta beranduegi zela esan zioten. Esperimenduan parte hartu ostean nabarmen egin du hobera gaztetxo horren ikusmen mailak.

Jaurlaritzak beste 18 haur-etxe zabalduko ditu datorren urtean

Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburu Gemma Zabaletak eman du erabakiaren berri. Uneotan bost haur-etxe daude fase esperimendal baten zabalik, guztiak Bizkaian. Asmoa da datorren urtean, 2012an, beste 18 unitate zabaltzea, eta modu horretan egitasmoa Euskal Autonomia Erkidegoko gainerako lurraldeetara zabaltzea.

Ipuin kontalari saioa egingo du Izaskun Mujikak Antzuolan

Izaskun Mujika aktore eta ipuin kontalari urnietarra Antzuolan izango da domekan, azaroak 20. Bost urte daramatza ipuin kontaketa saioak egiten eta Antzuolako haurrei zuzendutako saioa egingo du euskaraz Torresoroan. Sarrera doan da eta emanaldia 18:00etatik hasiko da. Ipuinak bertaratzen diren entzuleen arabera aukeratuko ditu.

Joko kooperatiboen gaineko hitzaldia Oñatiko Elkar Hezin

Elkar Hezi ikastetxeko guraso elkarteak antolatuta hitzaldia egingo du Bakeola elkarteak Oñatiko ikastetxean. Bi saio aurreikusten dituzte eta lehenengoa egunean, azaroaren 17an, 18:30ean egingo dute. Joko kooperatiboen garrantzia eta funtzioa izango dituzte hizpide. Saioak atal praktikoa ere izango du.



KULTURA



Musiraka dantza taldeko dantzariak, ikuskizuneko une batean; atzean Arizondo Argazkizale Elkartekoen argazki bat ikusten da. | JOSETXO ARANTZABAL

Udazkenari omenaldi hunkigarria dantza, olerki eta argazkiekin

Bergarako pilotalekua bete zen herriko artisten ikuskizunerako

USOA AGIRRE | BERGARA

Gaueko 22:30ean zuen ikuskizunak hasteko ordua, baina 22:00etarako jendez beteta zegoen Bergarako pilotaleku aurrea; kantxako eserleku guztiak bete ziren segituan. Pilotalekua bete, udazkenari dagokion omenaldia egin zieten Musiraka dantza taldeak, Uxue Agirre olerkariak eta Arizondo Argazkizale Elkartekoek.

Benito Lertxundiren *Udazken koloretan* abestiarekin hasi zen

emanaldia, kantuarekin batera udazkeneko argazkiak erakutsiz pantailan. Ondoren, poesia saioa egin zuen Uxue Agirrek: izara baten atzean, silueta bakarrik ikusten zela, errezitaldi goxo eta hunkigarria egin zuen, argazkiz lagunduta.

Ezohiko musika

Agirreraren *Orekaren soka* olerkiarekin sarrera eginda eta Tirri Tarraren *Sin palabras* abestia-


rekin irten ziren dantzariak ohol-tza gainera. Hortik aurrera dantzariak joan-etorrian ibili ziren eskenatokian: Agirrek olerkiarekin sarrera egin eta dantzariak segidan, argazkiez lagunduta.

Fandango eta arin-arina dira Musirakako koreografiaren oinarri, eta horiek biak dantzatu zituzten ezohiko musika erabilia. Yann Tiersenen akordeoiarekin jotako *L'Autre Valse d'Amelie* abestiarekin fandangoa dantzatu zuen

neska-mutil bikoteak, une batez Parisko kaleetara eramanez. Arin-arina neska-taldeak eskaini zuen Anabela portugaldarraren *Covilha Cidade Neve* kantuarekin.


Ballet ukitua ere izan zuen ikuskizunak, batez ere taldeko gazteenak hesi batekin lagunduta egin zuen dantza-saioan.

Argazki onak, olerki hunkigarriak eta dantzari apartak; udazkenari eta ikusleei omenaldi bikaina.



JUANTXO ETA ARANTXA BERGARA

"Osintxu herri txikia izateko maila handia eman dute Musirakako dantzariak. Elementu guztiak ondo uztartuta egon dira eta oso polita izan da ikuskizuna".



ANA BERGARA

"Oso polita izan da ikuskizuna eta asko gustatzen zait nola dantza egiten duten. Dantza, argazkia eta poesia nahastuta oso polita geratu da; momentu on bat pasatu dut".



LARRAITZ ARRASATE

"Oso polita izan da dena: argazkiak, dantzak, musika, poesia... Lehenengo aldia da Musirakaren emanaldi bat ikusi dudala eta talde ona iruditu zait".



MARIPI ANTZUOLA

"Ikusgarria, goxoa eta hunkigarria. Meritua dute herriko ekimen batetik irten delako taldea. Jarrai dezatela horrelaxe eta norbait behar badute prest nago ni".

'Oihan hegaletan': 40 urteko lana laburtzera datorren erakusketa

Xabi Otero argazkilari nafarrak irekiko du; abenduaren 11ra arte, Kulturaten

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Xabi Otero argazkilari, marrazkilari eta diseinugile nafarraren erakusketa aurkeztu zuten egubakoitzean Kulturateko klausuroan. *Oihan hegalean* du izenburu erakusketak eta Oteroren 40 urteko lana laburbiltzera dator.

Era guztietako euskarrietan erabili diren eta dagoeneko argia ikusi duten sortze-lanak erakusten ditu Oterok: Euskal Herriko eta beste leku batzuetako argazkiak, kartel eta logotipoen diseinuak eta aldizkari zein egunka-

rietako marrazkiak ikus daitezke. Abenduaren 11ra arte egongo da zabalik eta ordutegia honakoa da: martitzenetik domekara arte, 17:30etik 20:30era.

"Prozesu baten zati txikia"

Kutxaren laguntzarekin antolatu du erakusketa Udaleko Kultura Sailak. Aurkezpenean, Oterorekin batera, Inazio Azkarraga-Urizar Arrasateko alkatea eta Marta Madinabeitia Kutxako zuzendari komertziala izan ziren. Oterok berak aurkezpenean azaldu zuenez, 70.000 argazki baino gehiagok

osetzen duten artxibotik aukeratu behar izan zituen irudiak, eta honakoa gaineratu zuen: "Atera ditudan argazki guztiak atera zitezkeenak dira, hau da, protagonisten baimenarekin atera ditut".

Oterok argazkilaritza prozesu luze bat moduan ulertzen du: "Argazkiak prozesu handi baten zati txiki bat dira, niretzat ez dira prozesu horren zatirik garrantzitsuena. Goiz hotz-hotz batean itxaronaldi luze batetik aukeratu duzun ueña dira, behe-lainoa desagertzen hasten denekoa".



Xabi Otero haren argazki baten ondoan, aurkezpenaren ostean. | JOKIN BEREZIARTUA

Paddy Rekalde | Idazlea

"Nire poemak ez dira intimistak, eta irakurleak ez dira galtzen"

- ▶ DJ eta grafiti egile batekin irakurri ditu 'Spray'-ko poemak Arrasaten
- ▶ AEDk eta gaztetxeak gonbidatuta etorri zen egubakoitz iluntzean

OIHANA ELORTZA | ARRASATE

DJ Katza eta Peru Madalena grafiti egilearekin batera irakurri zituen Paddy Rekaldek bere *Spray* liburuko poemak egubakoitzean Arrasateko gaztetxean. Ikusleen artean, gazte, ez hain gazte eta baita gazte izatera iritsi ez diren ume batzuk ere. Denek konektatu zuten ondo idazle bilbotarra-ekin. Ikuskizunera joandako 15 bat ume hariak, adibidez, grafitia egiten lagundu zioten Madalena-ri, eta beste askok txaloka erantzun zieten poemei.

Gaztetxean egin duzu poema irakurketa. Toki aproposa da horretarako?

Uste dut gaztetxeak diren neurrian, erresistentzia mota guztiendako toki aproposak direla. Nirea ez da poesia intimista bat non entzulea edo irakurlea galtzen den. Testu irekiak dira, ulergarriak eta beti egoera sozialak, politikoak edo historikoak ukitzen ditut eta uste dut tokia ona dela. Gainera, kontua ez da tokia, kontua da zer irakurtzen duzun eta zer hori heltzen zaien edo ez.

Paddy Rekalde Arrasateko gaztetxean *Spray* liburua eskuetan duela. | J.A.

"Nire poemak humanoak dira, adjektibo bat sartu beharko banu"

Nola laburtu dezakezu *Spray*-k jasotzen duena?

Azkenengo 20 urtetan ematen den poesia orokorrean nahiko poesia itxia eta hermetikoa da, entzulea edo irakurlea galdu egiten da eta gertatzen zaie arte

modernoarean aurrean gertatzen zaiena, poesia mota horrek uxatu edo baztertu egiten dituela. Nire poesia oso humanoa da adjektibo bat sartu beharko banu, ulergarria. Emozioak eta sentimenduak bilatzen ditut baina edonor puntu horretan egoteko moduan. Jorrazten ditudan gaiak dira ni unkitzen nautenak: errealitate soziala, politikoa, historikoa, sexuaren inguruko kontuak ... Lurrean ibiltzen naiz.

Poesiarekin etorri zara, baina genero ezberdinak lantzen dituzu. Zeren arabera hartzen duzu boligrafoa eta papera genero bat edo beste idazteko?

Ideiak hartu edozein lekutan hartzen dira, eskuz, eta jorratu eta idatzi ordenagailuan egiten ditut, ordenagailuak ematen dizulako aukera gauza bera ez idazteko mila aldiz. Nobela, narrazioa eta poesia idatzi dut eta izaten da beti istorioaren arabera. Batzuk dira argazki baten modukoak, eta beste batzuk narrazio luzeak egiteko bestekoak.

Aldez aurretik badakizu ze forma hartuko duen ideiak?

Bai. Batzuetan sentimendu edo emozio bat izan liteke poema baterako oinarria. Baina nik nobela baterako ideia bat baino gehiago behar ditut, Nobela biziak gustatzen zaizkit, ez astunak, nahiz eta gai zentral bat egon.

Irakurle mota zehatza du genero bakoitzak?

Uste dut emozioak disfrutatut dituen edonor joan daitekeela edozein ikuskizunera.

Argentinan eta Uruguain egingo du dantza Aukeran taldeak

Gernika, mihise gaineko dantza izeneko ikuskizuna Ameriketara eroan du Aukeran dantza konpainiak; eguenean, hilak 17, Rosarion (Argentina) egingo dute emanaldia, eta zapatuan, 19, Montevideon. Edu Muruamendiaratz beragararrak, konpainiaren sortzaileak, egin ditu dantza ikuskizun horretako koreografiak. Picassoren *Guernica* inspirazio hartuta sortu dituzte dantzak. Birako lehen emanaldia joan den egubakoitzean egin zuten, Argentinan.

'Enaren geometria' aurkeztuko du Arrasaten Rafa Ruedak

Kooltur Ostegunen barruan, datorren eguenean Rafa Rueda bakarlariak egingo du kontzertua, Arrasateko gaztetxean, 22:00etan. Sarrera 5 euro da.

Beste proiektu batzuetan dabilen bitartean, lan berria prestatu du Ruedak eta, oraingoan, Arkaitz Miner, Joseba Irazoki eta beste lagun batzuk ondoan dituela *Enaren geometria* aurkezteari ekin dio. Arrasatekoa egingo duen lehen geldionetako bat izango da.

goienakluba"

Deitu eta lortu Florida Guridirako 2 sarrera*

943 25 05 05



Abantailaz betetako kluba!

e-posta: kluba@goiena.com | www.goienakluba.com

* Sarrerak agortu arte.

SAINT
CHICKENS

GURE MUSIKA TALDEAK



DJ Pino Voice eta Carmine Galluzi, Italian emandako hainbat festatako zuzenekoetan. | GIUSEPPE SANTACROCE

"DJ izatea ez da musika elektronikoa jartzea; jendearen gustua ase behar da"

► Instrumentu tradizionalekin eta elektronikoekin egindako kantu dantzagarriak batzen ditu 2011n kaleratutako diskoak

MAIDER ARREGI | ARETXABALETA

Saint Chickens talde italiarreko kide da egun Aretxabaletan bizi den Giuseppe Santacroce, DJ Pino Voice. *Feel the Groove* azken lana dagoeneko entzun daiteke Arrasate eta Bergarako pubetan. Bada, *I belonge 2 U* eta *Come on feel the groove* kantuak hit bilakatu dira Italiako irrati eta diskoteka guztietan.

DJ Pino Voice, Italiatik Aretxabaletara etorri zara.

2010ean, Carmine Galluzik eta biok ekin genion Saint Chickens proiektuari, Italian. House, pop

eta musika elektronikoa produzitzen dugu. Diskoteka, festa eta Misanoko zirkuitu ezagunetan ere parte hartu dut nik. Aurkezle moduan ibili naiz, eta ondoren, produzitutako musika DJ saioetan islatzen dut. Orain, maitasunagatik Aretxabaletara etorri naiz. [Barre].

Disko-jartzailea, musikaria, aurkezlea... oso pertsona ezaguna, ospetsua zara Italian.

Speaker lanak egin ditut Italian. Musika jaialdietako antolatzaile lanetan eta giroa animatu eta jendea gerturatzeko lanetan ibi-

li naiz Italiako diskoteka eta festa askotan.

DJ lanak ere egiten dituzu. Zertan datza?

DJ izatea musika elektronikorekin lotzen dute askok: baina ez da hala. DJ izatearen funtzioa jendeari gustatzen zaion musikarekin dago lotuta. Jendea ase behar duzu. DJak giroa ikusi behar du, ez du musika elektronikoa soilik jartzen. Jendea gaztea, heldua, lasaia, urduria... nolakoa den ikusi behar du eta horretara egokitu behar da lana ondo egiteko.

Diskoteka garrantzitsuetan ere ibili zara DJ lanetan.

Italian *Rimini party*-n ibilia naiz. Rimini Italiako Eivissa da (Ibiza), oso garrantzitsuak dira hango festak. Jendea hara joaten da festa bila eta han oihartzuna hartu du nire musikak. Italiako hegoalderaino iristea lortu dut.

Hemengo musika entzuten duzu tabernetan? Zer iruditzen zaizu?

Hemen ez da musika oso ondo zaintzen. Zerbitzariak kontrolatzen dute tabernetan jartzen den musika. Italian, tabernarik txikienean ere zaintzen da hori. Uste dut horrek garrantzia kentzen diola tabernako musikari. DJ batek jendearekin egon behar du, jendearen gustua egiten du. Zerbitzaria ezin da tragoak ateratzen ibili eta jendearendako musika jartzen ibili; ezin da denean egon. Italian oso garrantzitsua da jendeari arreta hori eskaintzea.

Kontzertu eskaintza zabala daukagu; joaten zara?

Bai, jarraitzen ditut. Baina niri, kontzertuetatik ikastea gustatzen zait; izan ere, asko ikasten da! Baina joaten naizen zuzeneko gehienak DJ saioak izaten dira, normalean. Italian ere, aukera dudanean, joaten naiz zuzenekoetara eta musikariak aurkezten ditut.

Euskal Herrian zuzenekorik emateko asmorik?

Bada, gurako nuke hemengo herriko plazetara zabaldu; festaren baten ere gustura hartuko nuke parte.

ZERTZELADA



"FEEL THE GROOVE"

Estiloa: Techno, pop, rock...

Egilea: Saint Chickens.

Argitaletxea: Smilax.

Iraupena: 19,53 minutu.

Technoak hunkitzen al zaitu?

Nire belaunaldikoek ez dute ahaztuko 90eko hamarkadan techno eta bakailoak Euskal Herria sartu zenekoa. Parranda hutsa irudikatzen zuenez berdin zion kalitateak eta gehiegizkoa izan zen. Hala ere, gerora, hasieran kostata, hasi nintzen elektronikaz egindako gauzak ere entzuten eta tarteka gozatzen. Ez dut nik esango Saint Chickens-en eskaintza txarra edo ona denik, baina neska ahots ona, raggamuffi, rock eta countrya ere pixka bat lantzen baditu ere, aerobic-erako moduko techno matxakoiak ez dit niri emoziorik sortarazten

IKER BARANDIARAN

Kantari

ARETXABALETA

Arkupe aretoa goraino bete zen Aretxabaleta eta Eskoriatzako Agazttxoen erritmo eta ahotsaz gozatzeko asmorarekin. Gazttxoek ez zuten huts egin eta aste bukaeran zehar grabatu ziren saioetan ikuskizun galanta egin zuten. ARGAZKIAK: JOSETXO ARANTZABAL



Aretxabaletan grabatutako saioak azaroaren 25etik abenduaren 6ra emitituko dituzte Goiena telebistan, 19:15ean; biharamunetan, errepikapena eguerdian; eta aste bukaeran, denak.



Argazkiak eta saioak ikusteko: goiena.net/gaiak/kantari





1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Abadiño. Etxebizitza ia berria salgai. 4 urte. 2 logela, 2 komun, sukaldia (eskegitokia), balkoia, garajea eta trastelekua. Negoziazarria. 615-00 72 16.

Aramaio. 90 m²ko etxebizitza salgai. Ibargoia kalean. Hiru logela eta komun bi. Dena kanpoaldera begira. Ganbara eta garaje itxia. 652-72 83 60 / 945-44 53 52.

Arrasate. Etxebizitza salgai Erguin kalean. Hiru logela, egongela, sukaldia, komun eta bainugela. 606-86 71 97.

Arrasate. Etxebizitza salgai sailuente plazan, Musakolan. Guztiz berritua. Sotoarekin. Egoera paregabea. 143.000 euro. 666-53 95 39.

Arrasate. Uriburu kalean etxebizitza salgai. Hiru logela, sukaldia, egongela, komun eta despentsa. Berogailua. Barrutik eta kanpotik berritua. Ikuspegi ederra. Unibertsitatetik gertu. 153.000 euro. 615 71 86 84 edo 645 00 89 97

Atxondo. 82 m². 3 logela, sukaldia, egongela ederra, komun. 2 balkoi. Ganbara eta igogailua. Oso eguzkitsua. Kanpora ematen du etxe guztiak. Berriztatuta eta altzairuz hornitua. Deitu konpromiso barik eta ikusi. Tel.: 628-78 78 35.

Bergara. 70 metro koadroko etxebizitza salgai Toki Ederren. Terraza handia. Bi logela, egongela, bainugela handia eta komun. Igogailua eta berokuntza zentrala. Seigarren solairuan. 670 55 07 41

Beriz. Berrizen pisua salgai. 3 logela, 2 komun, sukaldia berritua, 2 balkoi, egongela handia, ganbara eta garaje itxia. Oso eguzkitsua. Egoera ezin hobean. Deitu 647-77 73 92 telefono zenbakira.

Beriz. Beriz erdian pisu berria salgai. 80 m². Oso kokapen ona. Guztiz jantzita dago. Sukaldia, egongela, komun handia, 2 logela (bat zurezko ganbaratxoagaz, balkoiagaz, despentsa txiki batez). Berogailua, zoru erradiantea da. Oso eguzkitsua da. 607-52 24 26.

Durango. Pisua salgai Murueta-Torren. 90 m². Sukaldia eskegitokiarekin, egongela, balkoia, 3 logela, 2 komun (bat logela barruan). Guztiz berritua (ateak, leihoak, horma-armairuak...) eta jantzia, eguzkitsua, bista eta kokapen ederra. Ganbara eta garajea. Deitu 686-13 89 09 telefonora.

Durango. Pisua salgai Sasikoa kalean. 3 logela, komun eta egongela-jangela handia. 2 balkoi. Kalefakzioa gas naturalarekin. Garajea eta ganbara. Prezioezin hobea. Deitu 679-38 23 69 zenbakira.

Durango. Atiko zoragarria salgai Durangoko alde zaharrean. Eguzkitsua eta bista ederreko terraza handiarekin. Kalefakzioa eta aire egokitua. Igogailurik ez. Zaharberrituriko eraikina. Deitu 665-94 46 74 zenbakira.

Elorrio. Elorriko erdialdean kokatua dagoen etxebizitza salgai. 2 logela eta 2 bainugela. 634-45 72 01.

Elorrio. Salgai estreinatzean dagoen 162 m²-ko terraza duen atikoa (73 m²), 2 logela, egongela bat, sukaldia eta 2 bainugela. Igogailua eta trastelekua. Oso kokapen ona, eguzkitsua eta bista zoragarriekin. Aukera paregabea!. Deitu: 615-75 59 85 (goizez) edo 636-22 49 02 (arratsaldez).

Elorrio. Etxebizitza berria erdialdean. 2 logela, 2 bainugela, sukaldia ekipatua. Igogailua. Trastelekua. Aukera ona. Deitu 657-79 39 93 telefonora.

Etxami-aranatz. Aralarera eta Beriainera bista ederrak. Interesatuak hots egin dezatela 686-75 07 00 edo 638-84 59 76 telefonotara.

Oñati. Etxebizitza salgai. 60 metro koadro. Trastelekua eta garaje itxia. Erremontari plazan. 653-73 08 04.

Oñati. 72 metro koadroko etxebizitza salgai kalebarrian. Sukaldia, egongela handia, bainugela eta bi logela. Dena guztiz jantzia. Patio erabilgarria eta trastelekua ere baditu. Garajea aukeran. Prezio negoziagarria. 665-71 77 98.

Tolosa. Tolosako alde zaharrean atikoa salgai. Kale Nagusia 32an. 55 m². 2 logela. 179.000 eurotan. 943-57 13 87. andoniudabe@hotmail.com

103. ERRENTAN EMAN

Antzuola. Etxebizitza ematen da errentan. Bi logela eta egongela. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 649 07 97 56

Aramaio. Etxebizitza errentan eman edo saltzen da Aita Gabirel Jauregi kalean. Bi logelakoa. Garaje eta ganbararekin. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 664 74 90 23 (Naiara) edo 679 45 57 62 (Ruben)

Arrasate. Musakolan etxebizitza ematen da errentan. Bi logela. Prezio interesgarria. 645 72 53 51

Bergara. Apartamentu bat, duplex bat eta etxebizitza bat ematen dira errentan. Berriak. Deitu 9etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara. 943 76 10 21

Donostia. Lokala alokatzen det Donostia. Etxebizitzarako egokitua, Antigua auzoan bertan. Persona batentzako egokitua, bi planta dauka eta kotxea sartzeko aukera dago. Eguzkitsua da eta lasaia. Prezio 500 euro. 609 -48 11 24.

Elorrio. Elorriko etxea errentan. Harremanetan jartzeko deitu ondorengo telefono zenbakira: 695-78 27 86.

104. ERRENTAN HARTU

Aretxabaleta. Etxea errentan hartuko nuke. 663-28 75 10.

Arrasate. Bikote arduratsua gara, lanean diharduguna. Etxebizitza behar dugu errentan, epe luzearako. Bi logelakoa gutxienez. 662-66 34 20.

Arrasate. Etxebizitza behar dut errentan erdigunean edo san andresen. 610-82 02 17.

Bergara. Bertako bikoteak etxebizitza behar du errentan. Hiru logelakoa, ahal bada. 675 -62 30 03 / 651-56 55 30.

Durandaldea. Pisu bila nabil Durango edo inguruetan. Pertsona arduratsua. Deitu 617-86 00 55 telefonora.

Durango. Bikote arduratsua alokairuko pisu baten bila durango edo inguruetan. Deitu 617-86 00 55. zenbakira

105. ETXEA OSATU

Antzuola. Baserri batean logela ematen da errentan, sukaldia eta abarrak erabiltzeko aukerarekin. Errentaz gain ez da beste ezer ordaindu beharko. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 679-34 00 45.

ZURE IRAGARKIAK

IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Egueneko 16:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu. Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere. GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:

PREZIO BEREZIA GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Motorra Saldu/Errentan.

Egubakoitzean + Astelehenean: 21 € (BEZ barne).

Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

- Profesionalen moduluak.

Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).

Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

Debagoienetik kanpoko iragarkiak, web gune honi esker eman dizkizugu: **iragarkilaburrak.com**

Arrasate. Logela ematen da errentan erdigunean. Pertsona bakararentzat. Deitu 657-55 81 15, 648-86 05 49 telefono zenbakira.

Arrasate. Logela ematen da errentan San Andresen. Erosoa eta handia. 617 98 78 67

Arrasate. Logela ematen da errentan Erguinen, unibertsitatetik gertu. Erosoa eta handia. 645-01 05 84.

Arrasate. Logela ematen da errentan, erdigunean. Pertsona bakararentzat. Mutila bada, hobeto. 688-69 64 90.

Beriz. Logela alokagai baserri batean. Estreinatze eta leku paregabea. Nahiago emakumea. 619-66 58 57.

Durango. Pisua konpartitzeko lagun baten bila nabil durangon. 2 komun, 2 logela, 2 egongela eta sukaldia konpartitzeko. Deitu 650-73 87 24 telefono zenbakira.

Durandaldea. Pisua konpartitzeko lagun bila nabil (emakumea nahiago). Deitu 688-67 86 90. telefono zenbakira

Durango. Logela bat alokatzen da komun pribatuarekin Ibaizabal auzunean. Deitu 652-86 57 80 telefono zenbakira.

Erasmus ikasleentzat logelak. Otsailaren 1etik ekainaren 30era etorriko diren Erasmus ikasleentzat logelak behar dira Debagoienean. Deitu 600 04 76 38 telefono zenbakira.

Eskoriatza. Erdigunean, pisua konpartitzeko bi pertsona behar dira. Etxe guztiz eraberritua. 685-73 60 57.

2. GARAJEAK

201. SALDU

Aretxabaleta. Lausitta kalean aurkitzen den garajea salgai. 676 43 28 05

Beriz. 42 m²-ko garaje itxia salgai. Ate automatikoa. Ur eta argi instalazioak izaz eginda. Komun eta bodega txiki bat. Txoko txikia sukaldagaz. 2 edo 3 kotxe. Deitu 615-75 21 36 telefono zenbakira.

Durango. Itxitako garajea salgai tronperri kalean, erdialdean. 628-78 78 35.

Elorrio. Kotxea gordetzeko garaje bila zabilta? Berrio-otxo kalean baduzu horretarako aukera! Garaje itxia salgai. Deitu 658-75 92 64 telefonora.

203. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Garaje itxia, 47 metro koadrokoa, errentan eman edo saltzen da Zerkaostetan. 943 77 03 38

Durango. Montebideon (Ertzaintza alboan) 26 m²-ko garaje itxia errentan ematen da. Interesatuok deitu 656-76 76 06 telefonora.

Durango. Durangoko Antso Estegiz kalean garajea alokagai. 690-18 91 68.

Durango. Garaje partzela alokagai Alluitz kalean. Deitu 669 -63 03 12 telefonora.

Durango. Zabalik dagoen garajea alokatzen da Murueta-torren. Ona eta merkea. Deitu 660-38 59 95 edo 660-38 60 43 zenbakietara.

204. ERRENTAN HARTU

Bergara. Harane Erreka edo Bolu kaleetan garajea errentan hartuko nuke. Arratsadez deitu mesedez. 943 76 59 94

3. LOKALAK

301. SALDU

Abadiño. Matiena. 44 m²-ko txoko berria. Beharrezko baimen guztiekin. 672-25 80 41.

Bergara. Lokal komertzial bat errentan eman edo saltzen da San Lorentzo kalean. Deitu 607 93 73 15 telefono zenbakira.

Elorrio. 360 m²-ko pabilioia salgai Elorrioko industrialdean. 634-45 72 01.

Elorrio. 950 m²-ko pabilioia salgai Elorrioko industrialdean. 634-45 72 01.

305. BESTELAKOAK

Oñati. Erdigunean, bulegoa lanetan jarduteko gela daukat libre. Berria eta oso argitsua. Erabiltzeko gertu dago. Egun soltetan erabiltzeko aukera ere bai. 651-70 17 41.

4. LANA

401. ESKAINTZAK

Antzuola. Urtarriletik aurrera, goizetan haurra zainduko duen norbait behar dugu. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 669 83 62 53 edo 635 70 76 79

Bergara. Bi ume zaindu eta etxeko lanak egiteko emakume bat behar da, goizean eta arratsaldean. Esperientzia izatea eskertzen da. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 678 32 90 62

Durandaldea. Etxeko lanak egiteko andra bat behar da. 94-655 09 37.

Durango. Pertsona eskalduna behar da ume bi zaindu, ikastolara eramane eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 651-70 96 76.

402. ESKAERAK

Aretxabaleta. Leire. Aretxabaletakoa. Haur hezkuntza ikasketak amaitu ditut. Umeak zaintzen lan egingo nuke, posible bada aretxabaletan, baina bai-lara osoan ere bai. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 665-74 12 66.

Arrasate. Bertako emakumea, arduratsua, gertu nagusiak zaintzeko. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 606 -88 94 14.

Arrasate. Orduka edo etxean bertan bizi izaten lan egingo nuke. 682-31 97 37.

Arrasate. Emakume eskalduna gertu plantxa egin edo bestelako lanetarako, orduka. 699 -54 17 27.

Arrasate. Haur hezkuntza ikasi duen neska eskalduna arratsaldean umeak zaintzeko prest. Arrasateko naiz. 665-73 10 08.

Arrasate. 53 urteko emakume eskalduna, lanerako gertu, ume edo nagusiak zaintzen, etxeko lanak egiten eta abar. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 943-79 60 89.

Arrasate. Erreferentzia onak dituen neska lan ezberdinetarako gertu: garbiketan, nagusiak zaintzen eta abar. Marta. 671-15 96 97.

Bergara. Emakumea gertu umeak edo nagusiak zaintzeko. 665-75 41 32.

Bergara edo Eibar. Emakume eskalduna eskaintzen da lan egiteko: etxeko lanak edo ume zein edadetuak zaintzen. 606 50 25 27

Beriz. Mutil gazte batek bere burua eskaintzen du lorazaintza lanak egiteko. Tel.: 652-72 38 69. Deitu arazorik gabe.

Debagoiena. Emakumea gertu sukaldari laguntzaile jarduteko zein gaixoak zaintzeko. Egunez eta gauzez. Esperientzia eta informea ditut. 661-48 86 74 / 943-79 67 96.

Debagoiena. Elikagaien manipularioarako titulua daukan neska gertu sukaldian lan egiteko. Baita ume edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egiteko, orduka edo egun osoz. Deitu 659-37 41 95 edo 681-37 60 13 telefono zenbakietara.

Debagoiena. Sukalde laguntzaileak lana egingo luke. Deitu zenbaki honetara edo mezuaz utzi. 667-06 79 62.

Debagoiena. Sukaldari laguntzaile, etxean postreak egiten edo garbitasun lanetan lan egingo nuke. 686-66 80 63.

Debagoiena. Asteburuetan lan egingo nuke nagusiak zaindu edo etxeko garbitzen. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 699-09 46 26.

Debagoiena. Mutila gertu nagusiak zaintzeko. Etxean bertan bizi izaten ere bai. 659-77 96 22 / 943-76 48 80.

Debagoiena. Neska gertu nagusi edo umeak zaindu eta garbiketarako egiteko. Orduka, egunez, gauetan edo etxean bertan bizi izanda ere bai. Erreferentzia onak daukat eta lanean berehala hasiko nintzateke. 638 -93 11 48 / 943-25 01 11.

Debagoiena. Neska gertu nagusiak zaintzeko, orduka. Baita zerbitzari ere. Eskarmetuduna. 674-59 85 01.

Debagoiena. Gizon arduratsua, legezko paperekin, prest garbitasun lanak egin edo nagusiak zaintzeko, orduka. Baita zerbitzari jarduteko ere. Gidabaimena eta autoa daukat. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 677-77 22 31.

Debagoiena. Neska eskaintzen da debagoienan pertsona nagusiak zein umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. Etxean bertan bizi izaten edo bestelako lanean hasteko moduan nago eta erreferentziak ditut. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 606-62 37 82.

Debagoiena. Neska gertu etxean bizi izaten edo orduka nagusi zein umeak zaintzeko, edo garbitasun lanetan jarduteko. Erreferentzia onak daukat eta berehala hasiko nintzateke lanean. 649-07 31 33.

Debagoiena. Ikasketako soziosanitarioak dituen neska gertu nagusiak zaindu edo garbiketa lanetan jarduteko, asteburuetan. 649-15 72 47.

Debagoiena. Bertako neska, esperientziaduna, nagusiak zaintzeko gertu 14:00etatik aurrera. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 637 -18 07 23.

Debagoiena. Nagusi eta umeak zaintzen edo garbiketa lanetan jardungo nuke. Egun erdiz edo osoz. Neska arduratsua naiz. 645-01 05 84.

Debagoiena. Ikasketako soziosanitarioak dituen neska gertu nagusiak zaindu edo garbiketa lanetan jarduteko, asteburuetan. 649-15 72 47.

Debagoiena. Nagusi eta umeak zaintzen eta garbitasun lanetan jardungo nuke. Regina. 646-22 29 35.

Debagoiena. Neska arduratsua, esperientziaduna, nagusi edo umeak zaintzeko gertu, etxean bertan bizi izaten. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 646-22 29 35.

Debagoiena. Neska eskalduna gertu umeak zaintzeko. 617-90 55 82.



Telesforo Aranzadi 2
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

ETXEBIZITZAK SALGAI

BERGARA

- Sanantonabat, 75 m², oso ondo, eguzkitsua, lorategia.
- Aranerrek, 80 m², oso ondo. Prezio ona.
- Matxiategi, 72 m², eguzkitsua. Prezio ona.
- Zubalotegi, 54 m², eguzkitsua, oso ondo.
- Burdiñate, 104 m², oso ondo.
- Ibargarai, apartamentua, 40 m², berria, garajea aukeran.
- Justo Garate, 80 m², oso ondo.
- Herrilagunak, 60 m².
- Martoko, 87 m², ondo, garajearekin.
- Ibargarai, 80 m² oso ondo eta eguzkitsua.
- Koldo Eleizalde, 87 m² oso ondo.
- Zabalotegi 80 m², eguzkitsua, berritua.
- Elorregi 70 m², terrazarekin, eguzkitsua, oso ondo.
- Urteaga 109 m², berritua, prezio onean.
- Zubieta, 125 m², terraza eta ortuarekin.
- Zabalotegi, 50 m², berritua. Oso eguzkitsua.
- Iparragirre, 190 m².
- Masterrek, 46 m², eraikuntza berria.
- San Lorentzo. Prezio ona. Berria.
- Urteaga. Berritzeko. Prezio ona.
- Urarte (Lorentxoko), 140 m². Berria
- Bidekurutzeta. 78 m². Berritua.
- Juan XXIII enparantza. 87 m². Ondo.
- **Etxebizitza berrien eraikuntza Maduran, San Pedron, Masterrekan, Zubiaurren, Bidekurutzetan, Zubietan, Martokan, San Lorentzon eta Lorentxokon.**
- Lorentxokon aukera ona.
- Basarte. 69 m². Oso ondo.
- Toki Eder plaza. 54 m². Apartamentua. Oso ondo.
- Artekale, 48 m². Apartamentua. Oso ondo.
- Ibargarai, 88 m². Berria. Garajearekin.
- Fraizkozuri, 75 m², eguzkitsua, oso ondo.

ANTZUOLA

- Eguzki auzoa, Antigua auzoa eta Sagasti auzoa.



Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokoosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

Bergara:

- San Antón

Debagoiena. Arrasate edo bergara. Neska gertu orduka lan egiteko: nagusiak zaindu, garbiketak edo sukalde laguntzaile. Honetan esperientzia daukat. 659-37 41 95.

Debagoiena. Arrasate, Aretxabaleta eta Eskoriatzan, emakumea gertu nagusiak zaindu edota garbiketata lanak egiteko. 672-88 01 01.

Debagoiena. Neska arduratsua orduka garbiketata lanak egiteko gertu, umeak edo nagusiak zaintzeko eta nagusiak pasioan ateratzeko. 943-71 53 74/ 695-73 87 95.

Debagoiena. Emakumea gertu edozein motako lanetan jarduteko. 610-99 70 46.

Debagoiena. Neska gertu sukalde laguntzaile, garbiketata, eta abarretarako. Etxean bizi izaten edo orduka. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 662-26 71 41.

Debagoiena. Esperientziadun neska, arratsaldean, nagusiak zaintzeko gertu. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 696-70 55 09.

Debagoiena. Esperientziadun auto mekanikaria lanerako gertu. 660-23 12 73.

Debagoiena. Neska 20:00etatik aurrera eta asteburuetan lan egiteko gertu. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 677-12 75 44.

Debagoiena. Neska gertu astean zehar orduka edo asteburuetan lan egiteko. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 659-90 85 13.

Debagoiena. Sukaldean, nagusiak zaindu zein garbiketata lanetan jardungo nuke. Orduka edo etxean bertan bizi izaten. 662-26 71 41.

Debagoiena. Mutil gazte euskalduna edozein lanerarako gertu, astean zehar zein goizez edo arratsalde, baita asteburuetan ere. 645-70 80 71.

Debagoiena. Emakumea gertu nagusi edo umeak zaintzeko, etxe, atari eta abarrek garbitzeko, edo sukalde laguntzaile jarduteko. Gidabaimena dut. 600-81 99 34.

Debagoiena. Mutil arduratsua, legezko paperekin, gertu nagusiak zaintzeko. Baita bestelako lanerarako ere. 673-60 77 38.

Debagoiena. Neska eskarmenduna gertu nagusi edo umeak zaintzeko zein garbitasun lanetan jarduteko. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 606-41 04 00.

Debagoiena. Neska gaztea lanerako gertu: nagusiak zaindu, sukaldean lagundu, garbitasun lana eta abar. Eskarmenduna. 688-29 67 41.

Debagoiena. Neska prest lanerako: ume zein nagusiak zaintzen edo garbiketata lanetan. Etxean bizitzen, orduka, egun osoz, gauzez edo asteburuetan ere bai. Berehalak hasteko aukerarekin. Erreferentzia onak. Interesatuok deitu telefono honetara: 619-96 54 76.

Debagoiena. Emakumea gertu garbiketata lanak egin eta pertsona nagusiak zaintzeko. Interesatuok deitu telefono honetara: 636-60 90 24.

Debagoiena. Neska gertu lanerako. Sukaldean, garbitasunak, nagusiak zaindu eta abarretan. 610-99 70 46.

Debagoiena. Nikaraguako neska arduratsua lanerako gertu, nagusiak edo haurrak zaintzen. Bergarano Debagoiena osoan. Deitu 606-62 37 82 edo 606-54 89 90 zenbakietara.

Durungaldea. Asteburuetan edo gauetan nagusiak edo umeak zaintzen edota etxeko garbiketata egiten lan egingo nuke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 603-07 16 26.

Durungaldea. Ume edo nagusien zaintzarako edota garbiketata lanerako prest. Interna edo externa. Gauzez edo asteburuetan ere. Esperientzia eta erreferentziak. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 628-00 22 17.

Durungaldea. Emakume arduratsua nagusien edo umeen zaintzan, etxeko garbiketatan, portaletan, tabernetan... Lan egiteko prest. Orduka edo jardunaldi osoan. Erreferentziak. 620-82 85 79.

Durungaldea. Bertako emakumea ume edo pertsona nagusiak zaintzeko prest. Goizez, arratsalde edo gauzez. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 94-658 33 32.

Durungaldea. Etxeko lanerako prest. Nagusiak edo umeak zaindu edota garbiketata lanerako. Interna edo externa. Jardunaldi osoa. Erreferentzia eta esperientzia. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 636-85 20 59.

Durungaldea. Neska euskalduna, fisioterapia diplomata. Durungaldean etxek etxek errehabilitazio (fisioterapia) traumatologikoa, neurologikoa, drenaje linfatikoa, masaiak, etab. Egiten ditut, pertsona bakoitzaren beharretara egokituta. Ordupegi malgua, goizez zein arratsalde. Interesatuok 635-74 15 15ra.

Durungaldea. Ordu batzuetan garbitasun lanak egiteko edota umeak zaintzeko prest. 94-681 19 98.

Durungaldea. Neska gazte euskalduna umeak zaindu edota etxeko lanak egiteko prest. Goiz eta arratsalde. Esperientzia. Gabinete pedagogikoan egon naiz laguntzen. 648-13 13 27.

Durango. Neska gazte euskaldunak bere burua eskaintzen du tabernari lanak egiteko, astean zehar goiz zein arratsalde, eta baita asteburuetan ere. Esperientziaduna. Interesatuok deitu: 615-71 62 32.

Durango. Emakumea gazte euskalduna umeak zaindu edota etxeko lanak egiteko prest. Goiz eta arratsalde. Esperientzia. Gabinete pedagogikoan egon naiz laguntzen. 648-13 13 27.

Durango. Neska gazte euskaldunak bere burua eskaintzen du tabernari lanak egiteko, astean zehar goiz zein arratsalde, eta baita asteburuetan ere. Esperientziaduna. Interesatuok deitu: 615-71 62 32.

Durango. Emakumea gazte euskalduna umeak zaindu edota etxeko lanak egiteko prest. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 659-08 81 85.

Durango. Umeak zein nagusiak zaintzeko eta garbiketarako lan bila. Esperientzia daukat. Orduka, jardunaldi osoan edo erdian. 616-30 04 15.

Durango. Neska gazte euskalduna haurrak zaintzeko prest, goizez zein arratsalde, haur-hezkuntzako ikasketak burutuak. Esperientziaduna. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 615-71 62 32.

Durango. Emakumea gazte euskalduna umeak zaindu edota etxeko lanak egin, haurrak zaindu, klase-partikularrik eman, tabernari lanak egin edota garbitzaile lanak egiteko prest. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 615-71 62 32.

Durango. Neska euskalduna naiz, EGA eta First Certificated in English titulurak dauzkat, eta farmazia ikasten ari naiz. Tabernaren batean lan egiteko, umeak zaintzeko edo klase partikularrik emateko prest nago, arratsalde. 638-85 78 60. Eskerrik asko.

Durango. Emakume arduratsua, esperientzia eta erreferentzia onekin pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko eta garbiketata lanerako prest. Interna edo externa modura. Orduka, jardunaldi erdi edo osoan, asteburuetan edo gauzez. Paperekin. Interesatuok deitu telefono honetara: 628-00 22 17.

Durango. Umeen edo pertsona nagusien zainketarako zein garbiketata lanerako lan bila. Jardunaldi osoan, erdian edo orduka. Esperientzia eta erreferentziak. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 638-43 79 01.

Durango. Lan bila nabil etxek garbitzeko edo umeak zein pertsona nagusiak zaintzeko. Interesatuok deitu telefono honetara: 696-75 35 30.

Durango. Psikologian lizentziatua. Durangoko neska euskalduna naiz eta prest nago irailaren 20tik aurrera umeak orduka zaintzeko, goizetan zein arratsaldetan. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 646-53 83 90.

Durango. Psikologian lizentziatua. Durangoko neska euskalduna naiz eta prest nago irailaren 20tik aurrera umeak orduka zaintzeko, goizetan zein arratsaldetan. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 646-53 83 90.

Durango. Emakume arduratsua bere burua eskaintzen du orduka eta externa bezala lan egiteko: umeak zein pertsona nagusiak zaintzeko, etxek, tabernak garbitzeko eta antzekoetarako. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 670-67 46 41 (Juana).

Durango. Pertsona nagusiak zaintzeko lan bila, interna edo externa modura, orduka zein gauzez. Esperientzia askorekin eta erreferentziak. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 603-95 41 94.

Durango. Neska euskalduna umeak zaintzeko, etxeko garbitzeko zein pertsona nagusiak zaintzeko prest. Kotxearekin. Tel.: 664-14 69 04.

Durango. Pertsona nagusiak zaintzeko lan bila, astelehentik ostiralera, 13:00etatik 20:00etara. Erreferentzia onak. Tel.: 650-61 01 94.

Durango. Andre euskalduna haurrak zaindu eta etxeko lanak egiteko prest. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 659-08 81 85.

Durango. Umeak zein nagusiak zaintzeko eta garbiketarako lan bila. Esperientzia daukat. Orduka, jardunaldi osoan edo erdian. 616-30 04 15.

Durango. Neska gazte euskalduna haurrak zaintzeko prest, goizez zein arratsalde, haur-hezkuntzako ikasketak burutuak. Esperientziaduna. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 615-71 62 32.

Durango. Emakumea gazte euskalduna haurrak zaindu edota etxeko lanak egin, haurrak zaindu, klase-partikularrik eman, tabernari lanak egin edota garbitzaile lanak egiteko prest. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 615-71 62 32.

Durango. Emakumea gazte euskalduna haurrak zaindu edota etxeko lanak egin, haurrak zaindu, klase-partikularrik eman, tabernari lanak egin edota garbitzaile lanak egiteko prest. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 615-71 62 32.

Durango. Emakumea gazte euskalduna haurrak zaindu edota etxeko lanak egin, haurrak zaindu, klase-partikularrik eman, tabernari lanak egin edota garbitzaile lanak egiteko prest. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 615-71 62 32.

Durango. Emakumea gazte euskalduna haurrak zaindu edota etxeko lanak egin, haurrak zaindu, klase-partikularrik eman, tabernari lanak egin edota garbitzaile lanak egiteko prest. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 615-71 62 32.

Durango. Emakume arduratsua umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko edota garbiketata lanerako prest. Interna edo externa. Esperientzia eta erreferentziak. 660-64 20 89.

Gasteiz. Gasteiz edo inguruetan lan bila nabil, edozein lan mota egiteko gertu. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 696-38 10 07.

Iurreta. 51 urteko emakume euskalduna lan bila, batez ere, arratsalde. Ume zaintzan esperientzia. Tel.: 663-32 84 25.

Oñati. Mutil gaztea eta euskalduna. Edozein lan egiteko prest, asteko egun denetan, asteburuak barne bai goizez edota arratsalde. 645-70 80 71.

Umeak zaintzeko prest. Neska gazte eta euskalduna naiz, umeak zaintzeko prest dagoena 2011-2012ko ikasturtean. Durangaldeko edozein herritan, goizez zein arratsalde, ez dago arazorik. Goi mailako haur hezkuntzako titulua. Edozein galderarekin: 615-00 59 64.

Zumaia. 3 urtetako lan esperientzia tokiko telebistan. Mota guztietako gertakari eta ikuskinak grabatuz eta hauen ondorengo edizio lanak egiten. Telebistako parilarren jarraipena. Premier eta encore programen ezagutzak. 629-11 23 11.

5. IRAKASKUNTZA

502. EMAN

Arbizu. Oinarriko eta goi maila, irakasle euskaldun edo/eta irlandarrarekin. Banakako klaseak edo talde murriztuak. Informazio gehiago nahi izanez gero, deitu 676-09 72 48 telefonora.

Arrasate. Neska euskalduna, LH, DBH eta Batxilergoko mailan eskola partikularrik emateko prest. Interesatuok deitu: 677 75 12 90.

Arrasate. Eskola partikularrik ematen dira Arrasate. Goimailako ingeniari industrialak. Matematika, fisika, kimika, teknologia, marrazketa, ... maila guztiak Unibertsitate barne. 630 71 35 83.

Arrasate. Mondragon Unibertsitateko Lein graduko ikasle talde bat enpresagintzako fakultatean bertan eskola partikularrik emateko prest gauzez. LH eta DBH-ko ikasleei. Orduetegiari dagokionez negoziagarria da baina beti ere arratsaldetan behar luke. 16:00etatik aurrera. Interesak izanez gero, deitu mesedez zenbaki honetara eta galdetu Oihanagatik. 685 76 92 05.

Arrasate. Neska euskalduna 6-12 urte bitarteko haurrei klase partikularrik emateko prest. Interesatuok deitu telefono honetara: 685 77 40 28.

Bergara. Ingeleseko eskola partikularrik ematen ditut. Elkarrizketa lantzeko ere bai. 654 94 87 26.

Bergara. Ingeleseko eskolak ematen ditut. Maila guztiak. Cambridge edo HEO azterketak prestatzeko. "Bussines" eta bakarkako eskolak ere bai. 618 91 32 89.

Debagoiena. Frantseseko eskolak ematen dira. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 679 74 00 61.

Debagoiena. Ingeles eta erusiera eskolak ematen ditut. Maila guztiak. Azterketak prestatzeko, komunikazioa eta abar. 10:00etatik 17:00etara. 610 97 49 68.

Debagoiena. Urte askotako esperientziadun irakasleak eskola partikularrik ematen ditu urte osoan. Deitu 943 78 28 43 edo 635 75 71 86 telefono zenbakietara.

Durungaldea. Batxilergoko marrazketa teknikoko klaseak emateko durangaldeko pertsona bat behar da. Ingenieritzako edota arkitekturako ikaslea edo lizentziatua. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 655-71 75 27.

Durango. Marrazketa teknikorako, algebra eta fisikarako irakaslea behar da. Deitu 659-84 17 75 edo 685-71 86 54 telefono zenbakietara.

Gitarra elektrikoko eskolak ematen dira. Merke. Nahi izanez gero ikaslearen etxean ere bai. Interesatuok deitu telefono honetara: 679 74 00 61.

Gitarra eskola partikularrik Durangon. Elektrikoa, akustikoa, rocka, bluesa, jazz, funka eta abar. Eskalak, akordeak, eritmoa, teknikak, inprobisazioa, irakurketa... Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 650-17 22 85.

Informatika. Informatika ingeneratza egindako neska prest programazio, datu base eta Photoshop-eko laguntzak eskeintzeko baita trebetasun gabeko nagusientzat, ordenagailuarekin hasteko laguntasuna. Deitu 678 47 43 54 edo 943 76 50 97 zenbakietara.

Italiera. Italierazko eskola partikularrik ematen ditut Debagoienan. Maila guztietan eta azterketa ofizialeterako prestatzako. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 630 35 89 16.

Oñati. Neska euskalduna klase partikularrik emateko prest. LH zein DBHko ikasleei. Interesak izanez gero, deitu zenbaki honetara: 659 09 67 32

Trikitixako klaseak. Trikitixako klaseak ematen ditut. Informatzeko deitu 661-12 56 47 telefonora.

Tolosa. Lehen hezkuntzako klase partikularrik ematen ditut, nirekin kontaktuan jartzeko 92naiaara@hotmail.es emaila uzten dizuet.

6. MOTORRA

601. SALDU

Mitsubishi Pajero Liberty 3.2cc 170zp salgai. Extra askorekin (GPS, control cruise, clima, CD, aurreko kubieta, disko eta pastilla berriekin). Iker Interesatuok deitu telefono honetara: 652-73 82 74.

Seat Ibiza salgai. Seat Ibiza 1900 tdi salgai. 5 urte. 86.000km. 100 zaldi. Beltza. 3 ate. lat-a pasatua. 5.000 euro. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 669-83 87 68.

Autokarabana salgai. Autokarabana 2010eko uztailan erosi. Benimar 310. 7500km. Eta datorren uztaila arte aseguratua. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 943-34 10 76.

7. ANIMALIAK

701. SALDU

Ardi latxak salgai. Deitu telefono honetara. 943 79 62 63

Astobak saldu eta beste bat oparitu. Batak urte bi ditu besteak bi. Landa ta basoak garbi edukitzeo egokiak. 616-58 57 88.

Astoa salgai. Urte biko asto arra, etxean jaio eta hazitakoa. Txipa jarrita. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 650-17 22 85.

Ehizako txakurkumeak salgai. Spaniel Breton-ak eta Setterrak. 150 euro. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 695-71 00 68.

Oilasko lumagorriak salgai. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 94-681 90 85. 20:00etatik 21:00etara.

Rottweiler txakurkume bi saltzen dira. Rottweiler txakurkume bi saltzen dira. Arrak eta bilihabetekoak. Prezio onean. Interesatuok deitu telefono honetara: 646-25 12 75.

Txakurra salgai. Gold Terrier bat saltzen ditut. 4-5 urte ditu. Zuria. Interesatuok deitu telefono honetara: 653-72 70 18.

703. EMAN

Arratoi txakur arra opari. Arratoi txakur arra oparitzen ditut. Urte bat inguru du. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 94-681 96 10.

Arratoi txakurra opari. Arratoi txakur emea oparitzen ditut 2 hilabetekoa. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 656-74 34 57.

704. BESTELAKOAK

Asto bat hartzeko prest nago. Arra edo emea, kumea edo nagusia, edozein motakoa astoa hartzeko prest nago. Oso ondo zaindua egongo da, zelai eder batean. Informazio gehiagorako bidali mezu bat astoa@hotmail.es-era.

8. DENETARIK

801. SALDU

Autorako MP3 irratiasalgai. Autoarentzako CD/MP3/WMA Pioneer deh4700mpb irratia salgai. Erabili gabea. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 636-27 15 08.

Baxua salgai. Baxu bat, ia berria, funda, kablea eta amplifikadorea (20watio). Prezioa: 200 euro. Bidali mezu bat: aitz2gain@yahoo.es.

Bergara. Lursaila salgai Bergaran. 16.000 metro koadrokoa. 30 urteko pinuekin. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 653-71 66 87.

Bergaran Ollagorria elkartean askorekin (GPS, control cruise, clima, CD, aurreko kubieta, disko eta pastilla berriekin). Iker Interesatuok deitu telefono honetara: 647-37 20 48.

Bertako intxaur berriak salgai. Bertako intxaur berriak salgai Añauko Lauztiazpi baserrian. Saltzen den gutxieneko kantitatea 5 kilo da. 943-18 02 40 telefonora deitu 12:00etatik 14:00etara.

Biolina salgai. Biolina salgai, gara 3/4 tamainakoa. Akzesorio guztiekin eta egoera onean. Deitu zenbaki honetara: 666-05 73 15.

Bizikleta txikia salgai. Bi gurpiletan ikasteko oso aproposa. Kalitate onekoa eta egoera onean. 15 euro. 657-79 79 35.

Bizikletarako umeen aukila salgai. Ume txikia atzean eramateko eroso. Oso gutxi erabilia. Merkea. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 648-63 58 06.

Durango. Bulegoko altzariak salgai: mahaia, aukila, batzar gela... Egoera oso onean daude. Deitu 656-73 77 79 telefono zenbakira.

Hozkailua combi New Pol No-frost. 200 euro. Frigorifico-congelador New Pol experience xr-1850 ix nf. No-frost sistemaduna. Altzairuzko atekak 4 urtetan martxan egondakoa, egoera onean dago. Neurriak: altuera 185 cm x zabalera 59 cm. 2 ate. Kristalezko apalak. Izozkailuaren kapacitatea: 75 litro. Hozkailuaren kapacitatea: 217 litro. 200 eurotan salgai. Interesatuok deitu telefono honetara: 680-59 73 79.

Izozkailua berria salgai. la berria dagoen izozkailua salgai. 85 litroko edukiera. Prezioa: 100 euro. Deitu 94-655 06 04 edo 672-41 09 38 zenbakietara.

Kanpadenda salgai. Marechal markako kanpadenda salgai. Behin bakarrik erabilia. 4 pertsonentzako. 120 euro. Tel.: 615-00 72 16.

Literak salgai. Literak salgai. Trenerako oheak salgai. Bi litera eta azpiko bat, gutzira hiru ohe. Egur argia. Armairu handia ere badute ohe baten azpian. Egoera onean. Merke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 657-79 79 35.

Mobil homea. Bañaresko kanpinean (Errioxa). Oso merke. 656 77 17 23

Paiste Alpha platerak salgai. Nahiko berriak dira, eta oso gutxi erabiliak. Honako hauek dira: Rock Crash 16 eta 18, Full ride 20, eta zildjian zht medium thin 16. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 607-43 84 03 edo idatzi mezu; cuesta.roberto@gmail.com

Piano elektrikoa salgai. Yamaha clavino clp 150 piano elektrikoa salgai. Kontakua: 650-17 22 85 edo stratokaster@gmail.com

Scooterrarentzat parabis pantalla. Scooter motorrarentzat haizearentzako pantalla, bere torloju eta guzti. 30 euro. Informazio gehiagorako deitu telefono zenbaki honetara: 686-89 77 32

Trabesiako botak. Mendiko eskia egiteko botak salgai. Nordica tr-10. Hiru fijazio lotura. 27-27,5 neurrikoak (eu 42-42,5). Oso egoera onean. Harremantarako idatzi mezu bat: aitz2gain@yahoo.es.

Trabesiako eskiak. Trabesiako eskiak salgai, taulak fischer x-trem 1,40 luzerikoak 111-72-98 fijazioa Silvertta pure carbontube 150 eurotan. 690-15 95 06.

Oñati. Oñatin lursaila salgai, Lamiategi auzoan, landetxe ondoan. Ura eta argindarra hartzeko aukera. Informazio gehiagorako deitu telefono zenb

Diasporarako gonbidapena joindiaspora.com helbidean sartuta lor daiteke. | JOINDIASPORA.COM

Pribatutasuna oinarri, martxan da, azkenean, Diaspora sare soziala

Kode irekiko sare sozial berriak erabiltzaileak dira euren edukien jabe

IRATI GOITIA | ARRASATE

Isilpean egon da azkenaldian, baina, azkenean, hemen da Diaspora sare soziala. 2010eko ekainean eman zen ezagutzera eta zeresan handia eman zuen, sare sozialaren eredu aldatzera zetorrela esan zen-eta.

Pribatutasuna aldarri

Lau ikasle estatubatuarrek eginiko kode irekiko proiektua da eta helburua da erabiltzailea bera izatea publikatzen dituen eduki guztien jabe. Facebookek ziurtatzen ez duen pribatutasuna eskai-

niko diela agintzen die erabiltzaileei sare sozial berriak. Gainera, kode libreko sare soziala da, eta deszentralizatua (*seeds* izeneko hainbat zerbitzari izango ditu). Bestalde, hainbat zerbitzu ere eskainiko ditu; esaterako, Twitter.

Joan den urteko azaroan orrialdean izena eman zuteneko dago erabilgarri sare soziala; helbide elektronikoz jaso dituzte gonbidapenak. Interesatuek joindiaspora.com orrian lor ditzakete gonbidapenak, eta eskuragarri dago euskaraz ere.

Lagunez gain, enpresak ere bai Googlen sare sozialean


'Google Plus orriak' atera du Googlek, enpresa eta erabiltzaileak harremanetan jartzeko helburuarekin

I.G. | ARRASATE

Abian jarri zenetik, Google Plusen 40 milioi erabiltzaile erregistratu lortu ditu. Sare sozialak jokoak, bilatzailea eta beste hainbat zerbitzu eskaintzen ditu, baina zerbait falta zitzaion: komertzio, instituzio, enpresa eta markekin harremanetan jartzeko gunea, hain zuzen. Facebook eta Tuentik zerbitzu hori eskaintzen dute eta orain, Google Plusen ere eskaintzen du. Hala, sare sozial horren erabiltzaileek enpresak gehitu ahal izango dituzte euren lagun taldera. Honakoa

adierazi du Interneteko enpresa handiak bere blog ofizialean: "Orain arte Google Plusen pertsonak jarri ditu harremanetan eta orain, posible egin nahi dugu gure erabiltzaileak interesa duten zerbitzuekin jartzea harremanetan; negozio lokaletatik hasi eta marka ezagunenetaraino".

Horrez gain, *Lotura zuzena* izeneko erreminta ere aurkeztu dute; balio du korporazioen sare soziala bilatzeko aurrean + jarrita (+Pepsi edo +Toyota, adibidez).



Pepsi markak badu Google plus. | PLUS.GOOGLE.COM

Adobek iragarri du mugikorrendako Flash garatzeari utziko diola

I.G. | ARRASATE

Asko kritikatu izan dira iPhone eta iPad *gadget*-ak, Flash edukia erreproduzitzeko gaitasunik ezagatik; eta, hala, Interneteko bideo eta joko asko ikusteko gaitasunik ez izateagatik. Bada, orain Adobek mugikorrendako Flash garatzeari utziko diola iragarri du. Gaineratu du HTML-5ean egingo dituela orain ahalgin guztiak. Honakoa adierazi du Adobek bere blogean: "HTML-5 bateragarria da euskarri mugikor nagusi guztiekin, eta, beraz, horixe da aukerarik hoberena mugikorretan edukia sortu eta ikusteko. Hala, arlo horretan lanean diharduten enpresa handienekin batera egingo dugu lan HTML-5 garatzeko: Google, Apple, Microsoft eta RIMekin. Gainera,

aldaketa honek ahalbidetuko digu inbertsioa areagotzen HTML-5aren berrikuntzan eta, era berean, Flash garatzen indar handien izan dezakeen arloetan; adibidez, jokoetan eta premium bideoetan".

Flash ez da desagertuko

Adobek ez du jarraituko Flash garatzen QNX (Blackberry eta PlayBook tabletendako sistema operatiboa) eta Androidendako, baina mantendu egingo du software paketea. Hala, blogean adierazi dute dagoeneko lanean dabiltzala Flash Player 12 kaleratzeko. Ildo beretik, esan dute Flashekin lortutako esperientzia aprobetxatuko dutela HTML-5 garatzeko orduan.

Mozillak Twitter gehitu dio Firefoxen bertsio berriari; martitzena ezker dago deskargatzeko moduan

Firefox 8 kaleratu du Mozilla fundazioak eta nabigatzailearen azken bertsioa berrikuntzekin dator; tartean, zortzigarren edizio horretan, bilatzailearen barran eta helbideetan Twitter sare sozialerako sarrera jarri du. Are gehiago, internautek nabigatzailetik zuzenean aurkitu ahal izango dituzte tuitak. Horrez gain, Mozillak fitxen erabilera eta HTML-5 ezaugarriko oinarriak hobetu ditu. Martitzena ezker (azaroak 8) deskarga daiteke bertsio berria Mozillaren webgune ofizialean.

Baimenik gabeko deskargak haziz doaz

I.G. | ARRASATE

Industria kulturalak adierazi du baimendu gabeko deskargak haziz doazela Espainiako Estatuan. Gaineratu dute liburuen erdiak pirateatzen direla eta musikaren %2 bakarrik eskuratzen dela ordainduta.

Datu horiek atera dira eduki digitalen kontsumo ohituren eta pirateriaren behatokiak eginiko azterketatik, eta eginiko ikerketaren helburua izan da ordaindutako eduki kulturalaren baimendu gabeko Internet bidezko deskargen garapena aztertzea. Txostenak baieztatzen du 2011ko lehen sei hilabeteetan eginiko baimenik gabeko deskargen balioa 5.229,4 milioi euro izan dela; ia epe horretan izandako kontsumoaren balio laukoitza (1.538,1 milioi euro izan zen).

Gogorarazi nahi izan dute Interneten badirela doako edukia eskuratzeko eredu legal berriak eta Jose Manuel Tourne jabetza intelektuaren babeserako fundazioak zuzendariak hazkundera egotzi dio Sinde Legearen atzeratzeari.

Internet Explorerren merkatu kuota, %50etik behera

I.G. | ARRASATE

Internet Explorerrek bere kuota galtzen jarraitzen du. Hala azaltzen du NetMarketShare-k egin duen ikerketak. Bertan zehazten da Microsoften nabigatzaileak ez duela kuotaren %50 ere betetzen (urrian %49,58ko merkatu kuota izan du).

Beharakada horren arrazoia mugikorrek dira. Izan ere, ordenagailuetatik Internetera egiten diren sarrerak %94 dira, baina gero eta gehiago dira webbera sarbidea ematen duten aplikazioak. Ordenagailuetan Microsoft erabiltzailearen presentzia ez da aipatutako zenbakiertaraino jaitsi (%52,6 da), baina mugikorretatik egiten diren sarbideetan galtzen du kuota.

Bestalde, Firefoxek oso modu apalean berreskuratu du kuota, %21,06tik %21,20ra pasa da; eta Chrome aurre egiten jarraitzen du, %15,17tik %16,59ra igaro da. Badi-rudi IEren nagusitasuna kolokan dagoela, aukerarik oraindik urrun izan arren.

TELE-BEGI

AMAIA
PAVON

Zerri guztixeri heldzen jake San Martiñ egune

Su etenaren gerizpean albistea jaso genuen, urriaren 20an Libian errebeldeek Gadafi aurkitu eta garrasi handien artean diktadorea hil egin zuten. Hurrengo eguneko egunkari eta telebista (ia) denetan ikusi ahal izan genuen hilketaren makina bat irudi, Gadafik jasandako torturak gutxi balira, gorpua zintzilik dantzan ikusi genuen hura bereganatu nahi zuten hainbat jenderen artean.

Txarribodez ari ginela, jakin dugu, beste behin ere, Telecinco kateak salaketa bat jaso duela, *Acorralados* reality-an txarriboda baten zati bat erakusteagatik. Antza, saio horretako proba bat izan zen txerria hiltzea eta garbitzea. Ikusi ditugun irudietan, lehiakideak (beste baterako utziko dugu lehiakideen plantaz hitz egitea) hildako txerria garbitzen dute, gero, zatitu eta okela janari gisa eramateko.

Eztabaida handia sortu dute txerriaren gaixoaren irudiak, bai. Ez dut gogoratzeko, ordea, Gadafiren gorpua erakutsi ez zuen hedabiderik. Gauza bat badakit, eta da Eroskin fileteak ez direla zerutik jausten.

ASTEA GOIENAN

GOIENA TELEBISTA

ASTELEHENA, 14

**Behobia-Donostia lasterketa**

20:45

Gipuzkoan ospatzen den lasterketarik jendetsuenak jarraipen zabala izango du Xabi Urtzelaireren eskutik Harmailatik saioan.

12:25 Magazinea
13:25 Marrazki bizidunak
13:45 Kantari
14:15 Bertso saioa
14:45 Berriak
15:15 Mahaingurua: hauteskundeak
16:15 Hamaika.bit
16:45 Berriak
17:15 Ur eta lur
17:47 28.Klip
18:17 Marrazki bizidunak
18:44 Berriak
19:14 Kantari
19:44 Magazinea
20:44 Harmailatik
21:29 Espainiako Gorteetarako Hauteskundeak
21:59 Magazinea
22:59 Harmailatik
23:44 Espainiako Gorteetarako Hauteskundeak

MARTITZENA, 15

**Urriko lehen astelehena**

16:28

Ikusmira saioak irauten duen ordu betean Gernikan urriko lehen asteleheneko azokan gertatzen den guztia hurbilduko digu.

12:30 Magazinea
13:30 Marrazki bizidunak
13:50 Kantari
14:17 Onein
14:45 Berriak
15:15 Espainiako Gorteetarako Hauteskundeak
15:45 Harmailatik
16:28 Ikusmira
17:28 Berriak
17:58 Harmailatik
18:43 Marrazki bizidunak
19:03 Berriak
19:30 Kantari
19:55 Magazinea
20:55 Espainiako Gorteetarako Hauteskundeak
21:25 Magazinea
22:25 Espainiako Gorteetarako Hauteskundeak
22:55 Magazinea
23:55 Gipuzkoa kultura

EGUAZTENA, 16

**Bergarako kantariak**

19:15

Gaurko saioan Bergarako artista gazte baina handiak ezagutzen jarraituko dugu Kantari karaoke ikuskizun handian.

12:30 Magazinea
13:30 Harmailatik
14:15 Kantari
14:45 Berriak
15:15 Espainiako Gorteetarako Hauteskundeak
15:45 Gipuzkoa kultura
16:15 Bertso saioa
16:50 Berriak
17:20 Bizitegia
17:47 Bertso saioa
18:12 Harmailatik
18:52 Berriak
19:22 Kantari
19:47 Magazinea
20:47 Espainiako Gorteetarako Hauteskundeak
21:17 Bertso saioa
21:47 Magazinea
22:47 Espainiako Gorteetarako Hauteskundeak
23:17 Magazinea
00:17 Bertso saioa

EGUENA, 17

**Ruper Ordorikaren diska**

22:15

Besteak beste, Oñatiko abeslari famatuak bere azken diskaren berezitasunak aurkeztu dizkigu Gipuzkoa kultura saioan.

12:30 Magazinea
13:30 Marrazki bizidunak
13:55 Kantari
14:20 Bizitegia
14:45 Berriak
15:15 Espainiako Gorteetarako Hauteskundeak
15:45 Onein
16:15 Bertso saioa
16:45 Berriak
17:15 Kantari
17:45 Bertso saioa
18:15 Erositaikasi
18:25 Hamaika.bit
18:50 Berriak
19:20 Kantari
19:47 Magazinea
20:47 Espainiako Gorteetarako Hauteskundeak
21:17 Magazinea
22:17 Gipuzkoa kultura
22:47 Espainiako Gorteetarako Hauteskundeak

EGUBAKOITZA, 18

**Jaki gozo eta errazak**

14:22

Gure sukaldariak guztiok egiteko moduko errezeta ekarriko digu. Gainera, dena ondo irten dadin trukotxoren bat ere emango digu.

12:30 Magazinea
13:30 Marrazki bizidunak
13:55 Kantari
14:22 Onein
14:47 Berriak
15:14 Espainiako Gorteetarako Hauteskundeak
16:14 Leku txiki bat
16:44 Berriak
17:17 Marrazki bizidunak
17:47 Ipupomamua
18:17 Onein
18:45 Berriak
19:20 Kantari
19:47 Magazinea
20:47 Gipuzkoa kultura
21:17 Espainiako Gorteetarako Hauteskundeak
22:45 Magazinea
23:45 Espainiako Gorteetarako Hauteskundeak
00:15 Magazinea

ARRASATE IRRATIA

Ruper Ordorika 107.7ko autobusera igoko da diska aurkezteko

Kantuak sortzen nekazina bada ere, Ruperrek tarte bat atera eta Arrasate Irratian izango da aste honetan diska berria aurkezteko. *Hodeien azpitik* bere ohiko musikarekin New Yorken grabatu ostean kaleratu du. Diskan gizakiaren barruko ametsez mintzo da Ruper.

'Topasex', herritarren sexualitatearen inguruko proposanak

Sexologia bulegoko Maialen Elizburuk Topasex ekimenari buruz mintzatuko da eguaztenean FM 107.7an. Herri foro honen bitartez, arrasatearrek euren sexualitatearen inguruko kezka jaso eta erantzutea izango du helburu. Bertan parte hartzeko lehen gonbita uhinen bitartez izango da.

Koultur egitasmoan Rafa Rueda entzuteko sarrearen zozketa

Ostegunean Rafa Ruedak bere azken diska aurkeztuko du gaztetxean. PILT taldea utzi ostean ziklo pertsonalago bati heldu dio Ruedak, beraz, bera entzun nahi dutenek, badakite zer egin. Beti bezala, zozketan parte hartzeko bi bide dituzte; deitu 943 25 05 05 telefonora edo idatzi irratia@goiena.com helbidera.

TELE-ALBISTEAK

Espainiako hauteskudeetako bost alderdiak goienan

Telebistan ezezik, elkarrizketak Arrasate Irratian ere entzuteko aukera egongo da

IMANOL GALLEGO | ARRASATE

Espainiako gorteetarako hauteskudeak Goienan jarraipen berezia izango dute. Eneko Azkarate kazetariak Gipuzkoan aurkeztu diren alderdi guztiak elkarrizketatuko ditu.

Alderdi Popularrak emango dio hasiera asteari. PPko kide den Juana Bengoetxeak gaur, astelehena, ekingo dio lehen elkarrizketari, hau, *Harmailatik* saioaren ostean izango da 21:29etan, errepikapena berriz bihar, martitzena, 15:15ean izango da. Bigarren Ezker Anitzeko Mikel

Izagirrek egingo du. Bera martitzenean 20:55ean entzuteko aukera egongo da eta etzi, 15:15ean errepikapena. Alderdi sozialistako Eneko Anduezen txanda eguaztenean 20:47ean izango da eta errepikapena egunean, 15:15ean. Jelatzaleen zita egunean izango da, 20:47ean eta Lore Leinzbarrutia izango da elkarrizketatua. EAJren errepikapenarekin batera (egubakoitzean, 15:14ean), Amaiurreko Maite Aristegiren elkarrizketa emango da. Errepikapena berriz, egubakoitzean 21:17ean izango da.

Eneko Azkarate, *Hauteskundeak* saiko aurkezlea. | IMANOL GALLEGO

Honela, Hausnarketa Egunean, ez da hauteskunde kanpainako saiorik egongo.

Arrasate Irratian ere bai

Martitzenean eta egubakoitza bitartean, elkarrizketak FMko 107.7an ere entzungo dira.

Horrez gainera, hauteskunde kanpainaren barruan, gurean egiten diren ekintzen jarraipen zabal bat ere izango duzue Arrasate Irratiko uhinetan.

Gipuzkoan aurkeztu diren alderdi guztiak izango dute hitza

Elkarrizketak Arrasate Irratian ere entzuteko aukera egongo da

ZORION AGURRAK



BERGARA
Aimar Sotil Marchena
Azaroaren 19an, 5 urte.
Zorionak, txapeldun!
Besarkada handi bat eta marrubizko muxu pila bat zure familia guztiaren partetik. Patxito magikoak Mariñeren partetik.



ARRASATE
Malen Altube Sedano
Azaroaren 17an, 7 urte.
Zorionak, neskato. Egun zoragarria pasa dezazula. Aita, ama eta Alaitzen partetik.



OÑATI
Zihara Rubio Markuleta
Azaroaren 16an, 5 urte.
Zorionak eta patxo handia familiaren partetik.



OÑATI
Ekain Galparsoro Galdos
Azaroaren 16an, 6 urte.
Zorionak, maittia! Muxu handi bat Irati, aitatxo eta amatxoren partetik. Egun polit-polita igaro dezazula. Asko maitte zaitugu.



ARRASATE
Julen Parra Matilla
Azaroaren 16an, 5 urte.
Zorionak, txapeldun!
Dagoeneko mutikote bat zara, dotore-dotore korbata eta guzti! 5 kilo txokomuxu handi, etxeko eta laguntxo guztien partetik. Patxoak!



BERGARA
Ane Mujika Agirre
Azaroaren 15ean, 6 urte.
Zorionak Artekaletako neskatila alai eta panpoxari!



BERGARA
Oier Aranes Albusua
Azaroaren 15ean, 6 urte.
Zorionak, *guapo!* Ondo pasatu zure egunian eta muxu handi-handi bat etxeko partetik.



BERGARA
Maren Leston Ezenarro
Azaroaren 15ean, 6 urte.
Zorionak, printzesa!
Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunean. Sei muxu potolo etxeko eta, bereziki, Oihanen partetik.



BERGARA
Irati Olabarria Lazkano
Azaroaren 15ean, 10 urte.
Muxu handi bat etxeko partetik batez ere bere ahizpa Eider eta lehengusu Enekok.



ARRASATE
Goiatz eta Maddi Belategi Galdos
Azaroaren 15ean, urtebete. Zorionak, *pitxintxos!* Primeran pasatu zuen lehen txokolatadan. Etxeko guztien partetik muxu goxo bana; handiena amatxorena eta aitatxorena.



OÑATI
Kimetz Korta Iñarra
Azaroaren 15ean, 2 urte.
Zorionak, pottoko! Bi urtetxo! Ondo pasatu eguna eta patxo handi-handi bat etxeko guztien partetik.



OÑATI
Jesusa Aramendi Ugarte
Azaroaren 14an, 70 urte.
Zorionak, amama! Egun zoriontsua pasa dezazula. Muxu potoloak zuretzat. Asko maitte zaitugu: Naroa, Ander eta Julen.



ARRASATE
Arrate Bergaretxe Astigarraga
Azaroaren 14an, 3 urte.
Zorionak, printzesa!
Aitatxoren, amatxoren eta, bereziki, ahizpa Saioaren partetik. Baita etxeko gainerakoen partetik ere.



OÑATI
Danel Diaz de Gereñu Larrañaga
Azaroaren 13an, urtebete. Zorionak zure lehenengo urtebetetzian! Muxu potolo-potolo bat familiako danon partetik.




ELGETA
Unax Agirre Osa
Azaroaren 13an, 2 urte.
Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta txintxo portatu! Patxo mordo bat familia guztixaren partetik. Txokolatezko pastela gure kontu!



ARRASATE
Tomas Sánchez Fernández
Azaroaren 13an, 89 urte.
Zorionak! Etxeko partetik belarritik tirakada handi bat.



BERGARA
Haizea Arantzabal Arizabaleta
Azaroaren 11n, 5 urte.
Zorionak, printzesa! Ondo pasatu eta hamaiketako ederra egingo dugu hamaikagarren urteko hamaikagarren hilabeteko hamaikagarren egunian... hamaika muxu...



ANTZUOLA
Silvia Berasaluze Regidor
Azaroaren 11n 4 urte bete ditu Silviak. Zorionak Arrasateko aitona, amona, osaba-izebak eta Alazne lehengusinarekin partetik. Muxu handi bat.



BERGARA
Aner Larrea Gantxegi
Azaroaren 10ean, 3 urte.
Zorionak, pottoko!
Etxeko piratak hiru urtetxo bete ditu dagoeneko! Muxu handi bat etxeko eta, bereziki, Nora eta Unaxen partetik.



OÑATI
Iker Igartua Kortabarria
Azaroaren 8an, 8 urte.
Zorionak, txapeldun!
Ondo pasatu eguna eta patxo handi bat etxeko partetik.



OÑATI
Unai Urrestarazu
Azaroaren 8an, 12 urte.
Zorionak, Urres!
Ondo-ondo pasatu eguna eta asko disfrutatu! Eskolan egongo zara ixa egun osua baina bueno! Zorionak zure lagun danen partetik!



ARAMAIO
Ainhoa Vilches Beitia
Azaroaren 4an, 12 urte.
Zorionak, *guapo!* Ondo pasatu zure urtebetetze eguna! Patxo potolo-potolo bat etxeko partetik.

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak. Hiru bide dituzu GOIENAREN bidez zoriontzeko:

Internet

Sar zaitetz goiena.net atarian eta Zorion agurra bidali botoia sakatu. Bete eskatutako datuak eta bertan argitaratuko da zorion agurra. Baita Goiena paperean ere.

Posta elektronikoa

Mezu bat bidali zorionagurra@goiena.com helbidera, adieraziz: izen abizenak, herria, urtebetetze data eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaitetz GOIENAKO ordezkari batzera.

Egubakoitzeko 11:00ak arte jasotako zorion agurak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

DENBORA-PASA



HITZ GEZIDUNAK

	Egur zati txikiak	Kuartango-ko kontzeju	Irudi geometrikoa
	Traba	Sendabideak	Txinpartak
	* Txinako hiriburua (Infin.) Birrindu		
Oriaren adarra	Inguru		
Hegazti mota	Helduz		
Aparra, bitxa			Korrikaren antolatzaile
Modu txarrean			
		Jainko egiptoarra	
		Hizki grekoa	
Eguzki		Ezkabarte-ko kontzeju	
Zintzo		Bokala	

LUMA

BILA-BILA 7

Bila itzazu zazpi ezberdintasun bi irudien artean.




SOLUZIOAK

HITZ GEZIDUNAK

K	V	O	K	E	N	V	S	E
E	R	A	R	I	K	I	E	K
A	R	A	I	K	A	R	X	T
V	O	P	A	P	A	R	A	V
A	N	A	L	A	L	O	U	R
O	N	A	R	A	B	A	V	A
N	I	K	I	P	E	K	I	N
O	P	O	Z	O	Z	O	Z	O
K	J	E						


BILA-BILA 7




JAIOTAKOAK

BABESLEA

IKUSI MAKUSI



Umeen paradisua



Lazarraga 4 OÑATI 943 08 23 32



Izadi Goya Urain

Arrasate 3,930 kilo. Azaroaren 4a. Gurasoak: Irupe eta Xabier. Argazkian, Izadi amarekin.



Beñat Erostarbe Arriaran

Oñati 3,120 kilo. Azaroaren 5a. Gurasoak: Nagore eta Jon. Argazkian, Beñat sehaskan.



Elias Portales Nacif

Arrasate 3,330 kilo. Azaroaren 6a. Gurasoak: Indira eta Juan. Argazkian, Elias sehaskan lo.



Irati Gorosabel Vaz

Arrasate 3,750 kilo. Azaroaren 6a. Gurasoak: Monica eta Mikel. Argazkian, umea amarekin.



Egoi Oyon Quiles

Eskoriatza 3,400 kilo. Azaroaren 6a. Gurasoak: Agurtzane eta Jesus. Argazkian, Egoi gurasoekin.



Iradi Agiriano Castelo

Arrasate 3,180 kilo. Azaroaren 7a. Gurasoak: Laura eta Alberto. Argazkian, Iradi amarekin.



Nahia Gavilan Lucena

Oñati 3,300 kilo. Azaroaren 9a. Gurasoak: Vanessa eta Jose Antonio. Argazkian, umea amarekin.



Markel Lizarralde Arruabarrena

Soraluze 3,900 kilo. Azaroaren 10a. Gurasoak: Alaine eta Jon. Argazkian, Markel sehaskan.



Alexandro Monteiro Rojas

Aretxabaleta 3,080 kilo. Azaroaren 9a. Gurasoak: Marisol eta Jose. Argazkian, Alexandro sehaskan.

AI, ENE!

Jaiotza ere, galaktikoa

Katalunian, ohikoa da gabonetako jaiotzan *caganer*-aren irudia. *Star Wars*-en zaleek orain badute eurendako diseinatutakoa www.nopuedocreer.com



AHOBERO

"Badakit telebistak gizentzen duela, baina a zer nolako ipurdia Trini andereñoarena!"

FERNANDO AUTRAN | ZIRKULAZIO ARDURADUNA

Madrilgo Zirkulazio arduradunak Trinidad Jimenezi buruz berba egiteko bota du esaldi hau; baina ez da egin duen era honetako adierazpen bakarra. Madrilgo alkate Gallardonek kalera bota du; horrela, akaso, barrabaskeriak beretzat gordetzen ikasiko du. twitter.com

EGURALDIA



Max. 16°

Min. 11°

Hodeiak ugarituz joango dira eta baliteke egunaren azken orduetan euria egitea. euskalmet.net

ASTELEHENKOA

goiena

2011-11-14

HARPIDETZA: ARETXABAETA 20550, E05 BASABE POLIGONOA | TEL.: 943 08 10 50 | HARPIDETZA@GOIENA.COM

HAMARREKOA

Asier Hormaza Duela 20 urte, publizitatea ikasten ari zela hasi zen aktore lanetan, eta ordutik telebistan, zineman eta antzerkian ikusi dugu. Azken erronka? Sabino Arana bihurtzea | TXOMIN MADINA

"Barrea zein negarra, emozioak eragitea da zailena"

1. Hasi zinenean, honetan jarraituko zenuela uste zenuen?

Unibertsiatzen nengoela hasi nintzen eta ez nuen planteatu bizitza osorako izango zenik. Hasi nintzen, bidea hartu nuen eta une baten esan nuen: "Kontxo, ia 40 urte ditut eta hemen nago oraindik!"

2. Aktore askoren kurrikulumean, zerbitzari lanek leku nabarmena izan ohi dute. Zurean ere bai?

Inoiz ere ez naiz antzerkia ez den zerbitzari lanean ibili. Akaso momentu puntualetan bai, baina beti honetan jarraitu izan dut. Inguruan baina, askok egin behar izan dituzte horrelako lanak... Edo aktore lanak utzi.

3. Euskal aktoreek askotan esan ahal izaten al dute ezetz?

Batzuk bai. Baina Euskal Herrian ez dira proiektu asko mugitzen, irtetzen direnek kalitate ona dute eta askotan lagunak daude tartean; ezetz esatea zaila da. Beti dago aitzakiaren bat baietz esateko.

4. Barre eragitea, negar eragitea baino zailagoa da. Egia ala gezurra?

Drama eta komedia, biak landu izan ditut. Asko errespetatzen ditut drama lantzen dutenak, hori ere zaila da. Barrea zein negarra, emozioak eragitea da zailena.

5. Beste topiko bat: pertsonaiak etxera eramatea. Gertatzen zaizu?

Inondik inora ere ez, erotzekoa litzateke. Lana maitatu arren, bere lekua du; nire bizitzan badauzkat gauza garrantzitsuagoak.



JON POZO

MAKILA MAGIKOIA BANEUKA...

"Boterea dutenei, kendu egingo nieke"

"Gaur egun, eta orokorrean historian, boterea izan duten guztiei kendu egingo nieke. Nik uste dut jasotzen ditugun arazo guztiak beti sortzen direla boterea maneiatzen duten horiek boterea maneiatu izan duten moduaren ondorioz. Beraz, boterea dutenei, boterea kenduko nieke".

6. Artea, Arrastoa eta Gronholm metodoa, euskaraz antzeztu dituzun nazioarteko arrakastak dira. Normalizazioaren seinale?

Euskarak merezi eta behar du; euskaldunek munduan zehar egiten diren antzezlanak bertaratzea eta euskaratzea merezi dute.

7. Sabino Arana bihurtzea izan duzu azken erronka. Gainditu al duzu?

Ikusleek esan beharko dute! Lehenengo aldia da Arana telebista edo zinemara eroaten dela. Badakit Sabino Arana Fundaziokoek ikusi dutela, eta iritzi onak jaso ditudala. Oraindik baina, ikusteko dago.

8. Aita futbolari izanda, izan zenuen baloitik bizitzeko tentaziorik?

Ibili nintzen eta oraindik ere lagunekin jokatzeko dut; baina horretaz bizitzeko oso zaila da, asko dira oso onak. Belaunaldi bat salto egiten omen du; espero dezagun semeren bat dudanean, berak hartzea aitoren herentzia!

9. Nola salduko luke Asier publizistak Asier aktorea?

Pertsona langile bat bezala. Lanean sinisten dut; ez dago beste sekreturik. Lana eta lan egitea gustatzen zaiola esango nuke. Ateratzen den gutzia, horren erantzuna da.

10. Getxokoa izanda, zaila al da pijo estereotipoari aurre egitea?

Nire familia oso umila izan da, eta guk jaso dugun hezkuntza ez da izan diruaren ingurukoa. Hala, koak entzutean zer? Entzun, irribarrea bota eta aurrera segi.

BIHARAMUNA

MARIA AGIRRE



Auto berririk, ikusi?

Duela hamabost bat urte, autoen salmenta bor-bor zegoen garaian, bailarako auto-saltzaile batekin egin nuen hizketaldia etorri zait gogora.

Pozik zegoen, erosleek autoa gero eta urte gutxiagoan aldatzen zutela ikusita. Hurrengo urteetako joera, gainera, hori izango omen zen. Auto batekin hamar urte egin, eta jendeak autoa aldatuko du? galdera egin nion. Keba, neska! Bost bat urte egin, eta jendeak auto berria erosiko du.

Pasa dira urteak, eta ni neu, behintzat, auto-saltzaileentzat ez naiz pagotxa izan. Hogei urtean bi auto. Azkena, gainera, bigarren eskukoa, eta ematen du luze geratuko dela nirekin.

Ingurura begiratuta ere, ez zait erraza estatistika hori betetzen duen jende asko topatzea. Pentsatzen hasita, auto distiratsiak, berri usaina daraien horietakoak, aspaldi ez ditut errepedean ikusi. Autoak ez dira niretzat arreta gune izan, baina auto berriena galzorian dagoen espeziea ematen du.

Joan den hilabetea izan omen zen urteetako txarrena auto-kontzesionarioetan. Ez da alerik saltzen, eta ez da poztetako. Baina auto salmentarena ere, ez ote doa logika batera?

Aretxabaletan, Txarapeako etxeetarako eskaintza berezia

IKER

SUKALDEAK:

ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43
OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48

FAGOR

Labe
pirolitiko
opari

